

**EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIAREN BIKTIMEN
DATU PERTSONALEN
TRATAMENDURAKO GIDA**



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GIDA

30



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
VITORIA-GASTEIZ 2015

E MAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIAREN BIKTIMEN
DATU PERTSONALEN
TRATAMENDURAKO GIDA

IZENBUUA: "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen
tratamendurako gida"

EDITOREA: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

AUTOREA: Ticdatum SLU

DISEINU GRAFIKOA

ETA MAKETAZIOA: Arrin. Comunicacion y Diseño

DATA: 2015eko azaroa

DESKRIBATZAILEAK: Genero-indarkeria, biktimak, tratu txarrak, datu pertsonalen babesa, araudia,
gidak

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	9
LEGE ESPARRUA	13
a) Legeria aplikagarria	15
b) Instituzioen arteko koordinazioa eta datuen babesa	16
c) Emakumeen aurkako indarkeria DBLOn	16
1. INFORMAZIOA ETA DATU PERTSONALEN BILKETA	19
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA BATEK ARRETA EDO AHOLKULARITZA ZERBITZU BATERA JOTZEN DUENEAN: ZER INFORMAZIO EMANGO DIOT PERTSONARI ETA ZER DATU PERTSONAL JASOKO DUT?	21
• Lehenengo galdera: Zein da indarkeriari aurre egiten dion emakumeari eskaini behar zaion informazioaren edukia?	21
• Bigarren galdera: Zer arazo sortzen da indarkeriari aurre egiten dion emakume batek arreta-zerbitzuekin kontaktuan jartzeko erabilitako bidearen arabera?	23
• Hirugarren galdera: Zer datu eska diezaioket indarkeria jasan duen emakumeari?	26
• Laugarren galdera: Nola jasoko ditut indarkeria jasan duen emakumearen datu pertsonalak?	27
2. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA	31
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMEN DATU PERTSONALAK BILDUTAKOAN, ZER EGIN DEZAKET HAIEKIN? DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA ..	33
• Lehenengo galdera: Indarkeria jasan duen emakumearen arreta-erakunde bateko langile guztiek eskura ditzakete datu pertsonalak?	33

• Bigarren galdera: jasotako datu pertsonalak hasieran jasotzeko zeudenak ez diren beste helburu batzuetarako erabil ditzakegu?	34
• Hirugarren galdera: Nola bermatuko dugu datu pertsonalen konfidentzialtasuna lehia publikoko prozesuetan?	34
• Laugarren galdera: Indarkeria jasan duten emakumeen datu pertsonalak estatistikako helburuetarako erabil genitzake?	37
3. DATU PERTSONALAK LAGATZEA	39
ZELAN KOMUNIKATU HIRUGARRENGO BATI INDARKERIA JASAN DUEN EMAKUME BATEN DATU PERTSONALAK: DATU PERTSONALAK ZELAN LAGATU	41
• Lehenengo galdera: Indarkeria jasan duen emakume baten datuak beste edo erakunde batzuei laga dakizkieke?	41
• Bigarren galdera: Posible da datu pertsonalak lagatzea indarkeria jasan duten emakumeen arreta integralerako lankidetzatza-protokolo batean sartutako pertsonen edo erakundeen artean?	42
• Hirugarren galdera: Gizarte-zerbitzuei, edo gizarte-zerbitzuetako arloen artean, ustezko indarkeria-egoeran bizi den adingabe baten datu pertsonalak laga dakizkieke?	44
• Laugarren galdera: Eman daiteke telefonoz informazio pertsonalik?	45
4. DATU PERTSONALEN SEGURTASUNA	47
DATU PERTSONALEN SEGURTASUNA: NOLA ZAINDU BEHAR DITUGUN INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEN DATUAK	49
• Lehenengo galdera: Zer ardura edo segurtasun-neurri hartu behar da indarkeria jasan duten emakumeen datu pertsonalei buruz?	49
• Bigarren galdera: Berariazko segurtasun-neurriak hartu behar ditut datu pertsonalak iritsitako bidearen arabera?	53
• Hirugarren galdera: Posible da langileek datu-base korporatiboen fitxategi paraleloak egitea indarkeria jasan duten emakumeen datu pertsonalak hobeto maneiatzeko?	54

• Laugarren galdera: Zein da laguntza-prozesuetan esku hartzen duten langileek informazio-sistemei eman beharreko arrazoizko erabilera?	55
5. DATU PERTSONALAK GORDETZEKO EDO ERABILTZEKO EPEA	59
INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEN DATU PERTSONALAK ERABILI ONDOREN, NOIZ ARTE GORDE EDO ERABIL DAITEZKE HAIEN DATU PERTSONALAK?	61
6. ARCO ESKUBIDEAK BERMATZEA	63
NOLA BERMATZEN DA ARCO ESKUBIDEEN ERABILERA?	65
• Lehenengo galdera: Noiz jakinarazi behar dizkiogu indarkeriari aurre egiten dion emakumeari bere datu pertsonalei ematen zaien tratamenduari lotuta dituen eskubideei buruz?	65
• Bigarren galdera: Zer prozesu jarraitu behar dugu ARCO eskubide pertsonala erabiltzen bada?	66
7. LABURPENA	69
8. BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTAZIOA	73
9. TERMINOEN GLOSARIOA	81
ERANSKINAK	87
1. ERANSKINA: DATU PERTSONALAK JASO ETA LAGATZEKO BAIMEN INFORMATUAREN KLAUSULA	89
2. ERANSKINA: FAQ-GIDA OPERATIBOA GAUZATZEKO PROZESUAN TEKNIKARIEK MAIZ EGITEN DITUZTEN GALDERAK	93
1. Informazioa eta datu pertsonalen bilketa	93

2. Datu pertsonalen tratamendua	94
3. Datu pertsonalak lagatzea	107
4. Datu pertsonalen segurtasuna	113
3. ERANSKINA: Datuak lagatzea adingabeen arretan emakumeen kontrako indarkeria-egoeren aurrean	115
1. Adingabeak babesteko araudia	115
2. Adingabeen babeserako araudiaren interpretazioa datu pertsonalak babesteko lege organikoari lotuta	116
3. Laburpena: adingabeak eta datuen babesa	120



AURKEZPENA





Emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea bermatzeko, beharrezkoa da indarkeria jasaten duten emakumeak artatzen dituzten zerbitzu guztiek koordinatuta eta eraginkortasunez jardutea. Alor horretan erakundeen arteko koordinazioa sendotzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek Etxeko tratatu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen Arteko II. Akordioa sinatu zuten 2009ko otsailaren 3an; Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerrik, bestalde, erakundearteko koordinaziorako protokoloak izenpetu dituzte.

Erakundearteko koordinazioak datuak gordetzea/lagatzea/komunikatzea eskatzen du, askotan; beraz, garrantzitsua da ekintza horiek nola egiten diren neurtzea, erakundeetara jotzen duten emakumeen pribatutasuna bermatzeko, kontuan hartuta nola eragiten duten bi arau hauek:

15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, eta 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, lege hori garatzeko Erregelamendua onartzen duena.

Gidaliburu honek manu bi hauen arteko elkarrizketa argitzen du: batetik, koordinatzeko beharra, oneratzeko prozesua erraztuko duen arreta eskaintzeko; eta, bestetik, emakumeek prozesu horietan hartzen dituzten erabakiak errespetatzeko beharra eta emakumeei beraiei buruzko datuen gaineko kontrola bermatzeko beharra. Horrela, dokumentu hau koordinazio eraginkorra bideratzen laguntzeko da, indarkeriaren biktima diren emakumeen datuak babestuta izatea bermatuta. Zentzu honetan, eskerrak eman nahi dizkiogu emandako laguntzagatik Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

Badakigu planteatutako gaiak ez direla erraz ebazten. Horregatik, nahi genuke gidaliburu hau lagungarri izatea jakiteko ea erakundeok nola koordinatu behar garen egungo esparruan, datuak behar bezala babesteko eskariak aintzat hartuta. Edonola ere, gai hauek eztabaidatzen eta aztertzen jarraitu behar dugu, testuinguru hau emakumeen eskaerei erantzuteko egokia dela ziurtatzeko, hots, behar bezala erantzuteko erasotutak izan gabe bizitzeko eskubidearen alde borrokatzen diren emakumeen eskaerei.

Miren Izaskun Landaida Larizgoitia
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria





LEGE ESPARRUA

A) LEGERIA APLIKAGARRIA

Gida operatibo honek kontuan hartu du aipatutako indarkeriaren biktima diren emakumeen informazio pertsonalaren tratamenduari aplikatu beharreko datu pertsonalen babesari eta informazioaren segurtasunari buruz indarrean dagoen legeria, eta, bereziki, jarraian zerrendatutakoa:

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948ko abenduaren 10ekoa.
- Europako Kontseiluaren 108. Hitzarmena, 1981eko urtarrilaren 28koa, pertsonak datu pertsonalen tratamendu automatizatuari dagokionez babestekoa
- 4/1986 Legea, apirilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoa.
- 95/46/EE Zuzentaraua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.
- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa.
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.
- 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, informazioaren gizartearen zerbitzuari eta salerosketa elektronikolari buruzkoa.
- 2002/58/EE Zuzentaraua, pribatutasunari eta komunikazio elektronikoei buruzkoa.
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.
- 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.
- Europako Kontseiluaren emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko hitzarmena berresteko tresna, Istanbul, 2011ko maiatzaren 11.
- 2012/29/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko urriaren 25koa, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituenak.

- Europar Batasunaren 611/2013 Erregelamendua, ekainaren 24koa, datu pertsonalen urraketa-
ketaren jakinarazpenari aplikatu beharreko neurriei buruzkoa.

Araudi hori Etxeko Tratu Txarrak Eta Sexu-Indarkeria Jasaten dituzten Emakumeei Harrera Hobe Egiteko Erakundeen arteko II. Akordioak proiektatutako esparruan aztertu da. Akordio hori erakundeek emakumeen aurkako indarkeriaren arazoari erantzuna emateko modua da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza ematen dihardutenen arteko koordinazioa hobetzeko behar diren mekanismoak ezartzen ditu.

B) INSTITUZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA DATUEN BABESA

Testuinguru horretan, indarkeria jasaten duten emakumeen datu pertsonalen tratamendurako gida honen helburua instituzioen arteko esparru horretako koordinazio eraginkorra da, datu pertsonalen babesa guztiz errespetatuz.

Planteamendu horretarako, legeriak ahalbidetzen dituen mugen barruan, talde horri laguntza ematen diharduten euskal herri-administrazioen esku-hartze sektoreek koordinatuta jardun behar dute, datu pertsonalen babesaren ikuspegitik, legearen mugen barruan, emakumeen aurkako indarkeria jasaten dutenen eskubideen zaintzan eta babesean parte hartzen duten eremuen jardunak bateratu ahal izateko.

Datuak babesteko araudiak emakumearen segurtasuna eta haren eskubideak babesten laguntzen du, indarkeria-ekintza arbuigarriek erasandako biktimek bizi duten kalte fisiko, psikiko, familiar, sozial edo ekonomikoak eragindako astinaldiari administrazioak haien egoerarentzako arretarako eta zaintzarako darabiltzan prozesuak gauzatzean informazio pertsonalaren tratamendu desegokiak eragindako bigarren biktimizazioa gehitzea saihesteko.

Horretarako, jarduteko egoera egokia diseinatu behar da, datuen babes positiboa bermatzeko, eta, hala, aukerarik onuragarriena ezarri ahal izateko. Aukera horrek informazio pertsonalaren tratamenduaren eremuan begirunezko esku-hartzea garatzea ahalbidetu behar die indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei laguntza emateko prozesuetan esku hartzen duten pertsona guztiei.

C) EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DBLON

Egungo araudiaren arabera, Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (aurrerantzean, DBLO) garatzeko Erregelamenduko 81.3 artikulua ematen die babes-mailarik handiena genero-indarkeriako ekintzetatik datozen datu pertsonalei; izan ere, honakoa xedatu du berriaz: "Oinarrizko mailako eta maila ertaineko neurriak ez ezik, goi-mai-

lako neurriak datu pertsonalen honako fitxategietan edo tratamenduetan aplikatuko dira:
c) Genero-indarkeriako ekintzetatik datozen datuak dauzkatenak.”

Hala, adierazi behar da emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan datuak babesteko araudiak ezarritako betebeharrak Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 1. artikuluko edukari buruzkoak direla bera-riaz; alegia, ezkontideak direnek edo izan direnek edo haiei, elkarrekin bizi gabe ere, afektibo-tasuneko antzeko harremanen bidez lotuta egon direnek emakumeen aurka erabilitako indar-keria. Haren baitan indarkeria fisikoak eta psikologikoak sartzen dira, sexu-askatasunaren aur-kako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo askatasuna arbitrarioki kentzea barne.

Eremu subjektibo horrek, galarazi barik, hura emakumeen aurkako indarkeria modu guztiei aplikatzea aholkatzen du, diskriminazioaren, desberdintasuneko egoeraren eta gizonen ema-kumeen gainean dituzten botere-harremanen adierazpenak diren heinean, emakume izateaga-tik egin badira, edo haien ondorioz emakume baten osasun fisikoaren, sexualaren edo psiko-logikoaren kaltea edo pairamena egoteko aukerak badauzkate. Are gehiago, kontuan hartzen bada emakumeen aurkako egoera horietan guztietan, osasunari, ideologiari, erlijioari, sines-menei edo arraza-jatorriari buruzko datuak agertuko direla, zeinak, genero-indarkeriaren da-tuak bezala, datu bereziki sentikorrak baitira, eta datuak babesteko araudiak informazio per-sonala babestu, zaindu eta defendatzeko ezarri dituen babes-maila gorena baitute.

Hain zuzen ere, indarkeria sexista motaren bat eragiten zaien emakumeentzako babesa in-tegratzeko ildo horretan kokatzen da Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa.

Hortaz, gida honetan emakumeen aurka eragindako indarkeria-egoera guztiak integratuko dira, gida honetan jasotako datu pertsonalen tratamendu egokian.



1. NFORMAZIOA ETA DATU PERTSONALEN BILKETA



1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA BATEK ARRETA EDO AHOLKULARITZA ZERBITZU BATERA JOTZEN DUENEAN: ZER INFORMAZIO EMANGO DIOT PERTSONARI ETA ZER DATU PERTSONAL JASOKO DUT?

LEHENENGO GALDERA:

ZEIN DA INDARKERIARI AURRE EGITEN DION EMAKUMEARI ESKAINI BEHAR ZAION INFORMAZIOAREN EDUKIA?

Indarkeria jasaten duten emakumeei datu pertsonalak eskatzen bazaizkie, aurrez berariaz, argi eta zalantzarik gabe eman behar zaie honakoen berri:

- a) Emandako datuak fitxategi batean sartuko direla (eta fitxategi horren izen zehatza), eta datu horiek jasotzearen helburua eta informazioa jasoko duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
- b) Eskatutako egiazko datuak leialtasunez eta zintzotasunez eman behar dituztela, eta haiek lortzen lagundu behar dutela, batez ere osasun-arretagatik edo interes publikoko arrazoiengatik beharrezkoak direnean.
- c) Datuak ematearen edo emateari uko egitearen ondorioak; alegia, eskatutako datuak emateak behar den arreta eta arreta horri heltzeko dauden baliabideak identifikatzeko balioko duela, eta uko egiteak, aldiz, premia horiek eta dagozkien baliabideak zuzen zehaztea galarriziko duela.
- d) ARCO -eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, edota datuen aurka egiteko- eskubideak erabiltzeko aukera dagoela, lege ezarritako baldintzetan.
- e) Fitxategiaren ardura duen erakundearen, entitatearen edo zerbitzuaren edo, kasuan kasu, eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izateko duen ordezkariaren identitatea eta helbidea zein diren.

Informazio hori era ulergarrian eta egokian eman behar da. Bestalde, ez da nahikoa informatzea; aitzitik, informatu behar hori bete dela ziurtatzeko aukera izan behar dugu, pertsonak bere datu pertsonalen erabilera jakin bat baimendu izana ukatzen badu, baimen hori daukagula egiaztatu ahal izateko, eta berea den eta guk darabilgun informazioa eskuratzeko eskatzen badu, zer helbururekin darabilgun eta, esaterako, zer pertsonari edo erakunderi utzi diogun, zehatz informatu ahal izateko. Beraz, beharrezkoa da emakumeari informatu beharra bete iza-

na ziurtatu ahal izateko elementuren bat gordetzea. Horretarako, gomendagarria da jasotzeko inprimakian, zein ere den informazioa eskuratzeko bidea (idatzizkoa, weba, aplikazioa), azaldu-tako informatzeko betebeharra bete dela jasotzea.

Adingabeak badira, baimena 14 urtez gorako pertsonarena da. Pertsona hori fisikoki edo juridikoki ezinduta badago, bere ulermen-mailaren arabera informatuko dugu, haren legezko ordezkaria edo tutorea ere informatzeko aukera baztertu gabe.

Azken finean, langileek informazio nahikoa eta egokia eskaini behar diete indarkeriaren biktimei, jasoko diren datuei, jasotzeko helburuari eta gordetzeko moduari buruz, eta zuzen erabiltzearen erantzukizuna duen zerbitzuari edo pertsonari buruzko informazioa ere erantsiko da.

Oso garrantzitsua da arreta-prozesuan esku hartzen duten teknikariek hori dena jasotzearen helburua azaltzea; alegia, zertarako jasotzen diren datu horiek: helburua arreta izan daiteke, sendatzea (medikuen eta osasun-langileen kasuan), delitua jazartzea (poliziaren kasuan), edo beste batzuk izan daiteke.

Baldintza horretarako, lehenago jasoko diren datuei buruz hausnartu behar da; izan ere, helburuaren arabera, datu pertsonal gehiago edo gutxiago jaso beharko da. Ezin da helburuari egokitzen ez zaion daturik jaso. Adibidez, ezin da datu ekonomikorik jaso helburua sendatzea bada.

Zein ere den informazioa jasotzeko erabilitako bidea edo bideak, arreta ematen zaien emakumeei jasotako datu pertsonalak gordeko diren fitxategiaren izena ere jakinaraziko zaie. Fitxategi horrek datuak jaso aurretik egon behar du sortuta eta inskribatuta eskumena duen datuak babesteko agentzian; euskal erakunde publikoei dagokienez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB) da hura. Halaber, fitxategiaren arduraduna nor den eta indarkeria jasan duen emakumeak ARCO eskubideak erabili ahal izateko pertsona nor den ere jakinarazi behar zaio.

ARCO eskubideak deritzenak DBLOk pertsonen euren datu pertsonalak kontrolatu ahal izatea bermatzeko darabilen -eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko- eskubide multzoa da. Kontu horrek garrantzi berezia hartzen du; izan ere, maiz indarkeria jasan eta arazoa konpondu duten emakumeek ez dute fitxategi ofizialetan agertu nahi, eta datu horiek deuseztatu eta are haien tratamenduaren aurka egin nahia adierazten dute. Kasu horretan, eskubide horren erabilera ebatzi beharko da; horretarako, informazio horrek etorkizunean izango duen helburuaren aurreikuspena aztertu beharko da hari eutsi eta datuak ez deuseztatzeko; alegia, jasotzeko helburua agortzen denean deuseztatzeko.

Halaber, jakinarazi behar zaio ematen diren datuak sekretuak direla eta baimena duten eta datuak jaso ziren helburuarekin lotura duten pertsonen baimenik ez dituztela tratatuko.

Eta, azkenik, datu horiek beste herri-administrazio, pertsona edo erakunde pribatu batzuei uzteko asmorik egonez gero, pertsonari alderdi hori jakinarazi behar zaio datuak biltzeko unean, eta horretarako baimena emateko edo ez emateko aukera eman behar zaio. Aukera hori funtsezkoa da etorkizuneko lagapenak legearen arabera izan ahal izateko.

Geroago aztertuko dugu kontu hori; hemen datu pertsonalak biltzean datuen lagapen horiei buruzko informazioa sartu behar dela baino ez dugu jaso nahi.

BIGARREN GALDERA:

ZER ARAZO SORTZEN DA INDARKERIARI AURRE EGITEN DION EMAKUME BATEK ARRETA-ZERBITZUEKIN KONTAKTUAN JARTZEKO ERABILITAKO BIDEAREN ARABERA?

A priori dauden eta informazio bilketa baldintzatzen duten aukerak honakoak dira:

- a) Telefonoa
- b) Aurrez aurrekoa
- c) Posta elektronikoa
- d) Webgunea
- e) Kontaktu horretarako diseinatutako aplikazio mugikorrak.

Arreta- edo aholkularitza-zerbitzura jotzeko moduaren arabera, baldintzak eta arazoak ere aldatu egiten dira.

A) TELEFONOA

Datuak telefonoz jaso behar badira, telefonozko arreta egiten duten langileek, arreta horretarako prestakuntza berezia edukiz ezik, datuen babesari buruzko oinarritzko prestakuntza eduki behar dute. Horretarako informazioa bildu aurretik, kontu horiei buruzko azalen egokia emateko gai izan behar du.

Abiapuntu gisa, ez da gomendagarria datu pertsonalak bide horren bidez biltzea; aitzitik, hobe da pertsonari hitzordua jartzea teknikariekin, izan ere, haiek haren arretak behar duen informazioa eskainiko diote eta, beste eduki batzuen artean, haren datu pertsonalen babesari buruzko informazioa ere emango diote. Hitzordua finkatzeko ere, ordea, pertsona hori identifikatu eta lokalizatu ahal izateko datuak -oinarritzko datuak: nortasuna, helbidea edota telefonoa- jaso behar dira, eta datu horiek ere informazio pertsonala dira.

Asmo hori lortzeko, ahozko eduki gisa, emakumeari jakinarazi behar zaio bere datuak konfidentzialtasunez tratatuko direla, arreta egokia eman ahal izateko bilduko direla, datu horiek eman ezean ezinezkoa litzatekeela arreta hori ematea eta informazio zehatzagoa emango zaio-la bera bertaratzen den hitzorduan, guztiz lasai egon dadin bere datu pertsonalak erabiltzeko segurtasunari, ardurari eta begiruneari dagokienez. Hala, pertsonari aurrez aurreko arreta emandakoan, haren datu pertsonalak babesteko lehen fasea egongo litzateke beteta, hots, datuen tratamenduaren, erabileraren eta maneiuaren baimen informatua, jarraian aztertuko dena.

B) AURREZ AURREKOA

Informazioa aurrez aurre jasotzen bada, bereziki eta berariaz jakinaraziko zaizkio emakumeari legeak informazioa bildu aurretik eskatzen dituen baldintzak (1). Informazio hori behin baino ez da emango, eta ez da beharrezkoa izango informazio hori errepikatzea pertsona berak talde horrentzako arreta-zerbitzura jotzen duen bakoitzean.

Zehazki, eta datu pertsonalak jaso eta lagatzeko baimen informatuaren klausularen aurrean, zer datu bilduko den jakinaraziko zaio. Horretarako, nahikoa izango da haiek gaintetik azaltzea edo datu horien deskribapen orokorra egitea (nortasunaren datu orokorrak, datu ekonomikoak, osasunari buruzko datuak, familiari eta bizikidetzari buruzko datuak, seme-alabei eta haien egoerari buruzko datuak, bildu beharreko beste batzuen artean), datu horiek jasotzearen helburua bere premiei egokitutako arreta integrala eskaini ahal izatea dela eta horretarako batzuetan informazio hori beste pertsona edo erakunde batzuei komunikatu beharko zaiela adieraziko zaio.

Puntu horretan, aholkatzen duen teknikariak, emakume bakoitzak behar duen laguntzaren helburua dela-eta, datu pertsonalak lagako edo laga ahalko zaizkion pertsonei, erakundeei edo entitateei dagozkien baimen informatuaren klausularen laukitxoak markatuko ditu. Hura osatutakoan, dokumentua emakumeak sinatuko du, eta, ondoren, kopia bat emango zaio hari. Pertsonak, edozein arrazoi dela-eta, sinatzeko ezinduta badago, emakumeak horretarako adierazitako pertsonak sinatu ahalko du.

C) POSTA ELEKTRONIKOA

Informazioa posta elektronikoz jasotzen bada, alegia, indarkeria jasan duten emakumeen eskura salatzeko, arretarako, laguntzarako edo beste helburu batzuetarako helbidea jartzen

(1) Ikus 1. eranskina: datu pertsonalak jaso eta lagatzeko baimen informatuaren klausula.

bada, kontuan hartu behar da emakumeek posta hori kudeatzen duen administrazioari datu pertsonalak biltzen dituen informazioa emateko erabil lezaketela.

Horregatik sistema bat diseinatu behar da emakumea informatu eta haren baimena jaso ahal izateko, izan bidalitako edozein postari erantzun automatikoa bidaliz, izan indarkeria jasan duen emakumearekin ahalik eta lasterren kontaktuan jarritz bera informatzeko eta haren baimena jasotzeko, izan posta ematen den webgunean mezua bidali aurretik ezinbestean irakurri behar den klausula bat jarritz, zeinek administrazioari irakurri izanaren eta indarkeria jasan duen emakumeak baimena eman izanaren “aztarna” emango dion.

D) WEBGUNEAK

Azken irtenbide horretatik oso hurbil dago webgunearen bidez informazioa jasotzeari eman behar dioguna. Indarkeria jasan duen emakumeak bete behar duen inprimaki bat diseinatu bada eta han haren datu pertsonalak jasotzen badira, arestian adierazitako parametroak dituen informazio-klausula bat sartu beharko da, eta atal bat emakume horrek bere baimena emateko edo ez emateko. Sistemak diseinatuta egon behar du emakumeak bere baimena ematen ez badu inprimakia ezin bidaltzeko, eta uko egin izanaren ondorioez jakinarazteko. Horrek webgunea diseinatzeko esfortzua eskatuko du.

Hala ere, eta talde horrek sentikortasun berezia eskatzen duenez, emakumeak sistemari baimena eman nahi ez diola adierazteko aukerak alerta bat sortu beharko du arretarako interesa edo premia duen emakume bat dagoela ezagutu ahal izateko eta, geroago eta modu berezian, haren baimena lortu ahal izateko. Premiazkotasuna baloratzeko, berehalako arreta gero-raezina beharko da, datuak geroago jaso ahal badira ere, webgunearen bidezko laguntza ez litzatekeen beste edozein egoeratan egingo litzatekeen bezala. Edonola ere, emakumearentzako laguntzak behar ez badu eta informazio pertsonala biltzen ez bada ez dago datuak babesteko araudiari lotuta egin beharreko tratamendurik.

Kontuan hartu behar da berehalako arretak behar lezakeen premiazkotasuna ezin dela kalteu aztertzen ari garen bezalako alderdi formalak bete beharragatik; baina horrek ez du esan nahi geroago bete behar ez denik.

Ondo barneratu behar da datuak babesteko araudiaren helburua ez dela esku artean dugun bezalako talde sentikor baten arreta oztopatzea, informazio pertsonalaren konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzea baizik. Informazio pertsonala kontu oso handiz erabili behar da, informazio hori erakundean zertan ezagutu ez duten hirugarren pertsonen nahi eta behar gabe ezagutaraztea edo erasotzailearen inguruneak edo berak ezagutzea saihesteko.

Horretarako, datuak babesteko araudia tresna baliotsua eta operatiboa da pertsonak bere osotasun fisikoari edota emozionalari arriskua dakarkion testuinguru batean behar duen segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko.

E) GAILU MUGIKORRETARAKO APLIKAZIOA

Azkenik, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak eta herri-administrazioa kontaktuan jartzeko gailu mugikorretarako aplikazio bat diseinatzea erabakiko balitz, aplikazio horrek informazioari eta baimenei buruz azaldutako kontuak jaso behar lituzke, eta horretarako administrazioak baliabide teknikoak eduki behar ditu informazio hori azaldu egin dela eta baimena jaso dela ziurtatzeko.

HIRUGARREN GALDERA:

ZER DATU ESKA DIEZAIOKET INDARKERIA JASAN DUEN EMAKUMEARI?

Indarkeria jasan duten emakumeen datuak jasotzen dituen pertsonak zer datu jaso behar duen eta zer datu jaso behar ez duen ere jakin behar du.

Jasotzen diren datu pertsonalek pertsonak behar duen laguntza-jardunak behar dituenak izan behar dute. Hortaz, emakumeak behar duen laguntza emateko behar den datu kopurua jaso beharko da. Horrek ez du esan nahi hainbat inprimaki eduki behar izatea; teknikariek kasu bakoitzean zer informazio bete behar den jakin behar dute, eta pertsonari daukan arazo zehatza konpontzen laguntzeko behar-beharrezkoak diren datuak baino ez dizkio eskatu behar.

Jardun hori, alde batetik, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta zuzena da eta, bestetik, datu pertsonalen babesari buruz legeak ezarritako baldintza ere bada; izan ere, neurrikoak, ez gehiegizkoak, egokiak eta beharrezkoak diren datuak baino ez dira jaso behar.

Bestalde, hirugarren pertsonen buruzko datuetan kontu oso handiz jokatu beharko da, eta arretarako ezinbestekoak diren datuak baino ez dira jaso beharko; hala gertatzen da beste senide batzuei, semeei, alabei edo asabei buruzko datuekin, edo are erasotzailearen beraren datu pertsonalekin.

Komenigarria da arloan lan egiten duten administrazioek izan ditzaketen aukerei edo helburuei egokitutako datu-bilketarako inprimakia diseinatzea eta lana erraztea hala. Halaber, aukera guztiei egokitutako informazio- eta bilketa-klausula bat orokortu behar da kasu bakoitzean informatu eta baimena jasotzeko.

Helburu horixe dauka arestian aipatu den indarkeria jasan duten emakumeen datu pertsonalak bildu eta lagatzeko baimen informatuko klausulak, zein gida honetako 1. eranskinean jaso den.

LAUGARREN GALDERA:

NOLA JASOKO DITUT INDARKERIA JASAN DUEN EMAKUMEAREN DATU PERTSONALAK?

Askotan galdera hau ez da aintzat hartzen, zuzen egingo dela segurutzat joz. Datuak jasotzeko moduari buruz zenbait lerro idaztea komeni dela uste dugu, ordea. Kasu honetan, erantzuteko zenbait galdera daude.

A) KONFIDENTZIALTASUNA DATUAK BILTZEAN

Lehenengoa, datuak biltzeko testuingurua da. Datu pertsonalen tratamenduan konfidentzialtasuna behar da, eta horrek datuak jasotzean ere eskatzen du konfidentzialtasuna. Indarkeria jasan duten emakumeen datu pertsonalak ez dira gela komunetan, beste arlo batzuetan diharduten langileak ere dauden geletan, edo isolamendu akustiko egokirik ez duten tokietan bildu behar. Administrazioek esfortzu handia egin beharko dute horri dagokionez.

Halaber, talde horren arretarako eremua ez da kartezez seinaleztatu behar, horrek laguntza hori behar duten pertsonak bistaz identifikatzea ahalbidetuko bailuke, eta ez da jarri behar, adibidez, indarkeria jasan duten emakumeak zenbait hitzordurekin edo antzekoekin identifikatzen dituen zerrendarik. Arreta-guneak zuzen ez aurkitzeko arriskua dagoela jakitun, modu orokorrak bilatu behar dira, adibidez, sarreran informazio-panel batean gelak burutzen den jarduerari lotuz (1. gela - emakumeen aurkako indarkeria) eta gela bere erreferentzia zenbakiarekin identifikatuz soilik. Beste aukera bat informazio-zerbitzuak interesdunak horri buruz bideratzea da.

Azken batean, indarkeria jasan duten emakumeen arretari behar duen konfidentzialtasuna eman behar zaio, eta hirugarren pertsonak pertsona jakin batzuk halakotzat identifikatu ahal izatea saihestu behar da. Eta informazio hori biltzen hasitakoan, hura sarbide murriztua duten toki itxietan egin behar da eta behar den intimitatea eman.

B) AUDIOA EDO BIDEOA GRABATZEA

Garrantzitsua da informazio-bilketa hori dokumentatzeko audioa edo irudiak grabatzeko baliabide teknikoak erabilera. Ez dago legezko oztoporik datuak biltzeko sistemekin batera indarkeria jasan duen emakumearekin izandako elkarrizketa-saioak audioa edota bideoa grabatzeko. Zenbait ñabardura egin behar da, ordea.

- Grabaketa segurtasuneko eta konfidentzialtasuneko baldintza egokiak betez egin behar da.

- Grabatzen hasi aurretik, elkarrizketetatik datozen irudien edota audioaren fitxategia eratu, eta dagokion erregistroan aitortu eta inskribatu behar da. Ez da genero-indarkeriarenetik bereizitako fitxategia; aitzitik, erakunde bakoitzari dagokion mota horretako fitxategi bakoitzean “irudia eta soinua” bildutako datu bezala adierazi behar da. Oso garrantzitsua da adieraztea egun euskal udalek ez daukatela inskribatuta genero-indarkeriaren fitxategirik, oinarritzko jarduna izanik; gabezia hori pentsaezina da datu pertsonalen tratamendu orotan baina bereziki araudiak, adierazitako arrazoiengatik, segurtasun-, babes- eta ardura-maila gorenaz babesten duen datu mota horretan.
- Grabatzen hasi aurretik, indarkeria jasan duen emakumea era egokian ohartarazi behar da horretaz, eta xehetasunez adierazi behar zaio zer grabatuko den, nork eskuratu ahalko dituen grabaketak, grabatzeak zer helburu duen, noiz suntsituko den eta irudi horientzat fitxategi bat berariaz eratu den ala indarkeria jasan duten emakumeei lotutako datuen fitxategiaren barruan gordeko diren.
- Informatutakoan grabatzeko haren baimena jaso behar litzateke, eta informazio-bilketako klausulei grabatzeko baimenari buruzko berariazko aipamena gehitu behar litzaeke.
- Grabaketei dagokionez, indarkeria jasan duten emakumeen gainerako datuetarako erabilitako segurtasuneko eta konfidentzialtasuna aurreikusteko neurri berberak erabili behar lirateke, kasu honetan DBLOK aurreikusitako maila gorena da -maila altua-, jarraian ikusiko duguna.
- Grabaketak hilabeteko epean ezabatu behar dira gehienez. Epe horretatik harago edozein erabilera egiteko zerbitzuaren ardura duen organoak berariaz balioetsi behar luke, haren helburuaren eta edukien arabera.
- Grabaketak zaindu egin behar dira eta xehetasunez eta era oso murriztailean aztertu behar dira helburu nagusitik kanpo -hots, informazioa biltzeko prozesua dokumentatzea- laga edo erabiltzeko aukerak.

C) NOREKIN BATERA

Halaber, garrantzitsua da definitzea, datu-bilketari dagokionez, bertan hirugarren pertsonak egon daitezkeen, hala nola laguntzaileak, senideak edo beste batzuk.

Komenigarria da elkarrizketan, datu-bilketari berari dagokion zatian, indarkeria jasan duen emakumez eta bilketa egiten duen teknikariak beste pertsonarik ez egotea. Hala ere, irizpide hori alde batera utziko da pertsonaren beste premia batzuei erantzuteko lehentasuna badago; premia horietako bat, besteak beste, elkarrizketaren edukia era egokian ulertzen laguntzeko beste pertsona batek esku hartu beharra izan daiteke (har ditzagun gogoan minusbaliotasun

edo desgaitasun fisiko edo psikologikoren bat edo hizkuntza ulertzeko zailtasunak dituen pertsonak, baita pertsonaren urduritasuneko egoerak ere).

Edonola ere, eta datu-bilketa hirugarren pertsonen aurrean egiaztatzen bada, horretan guztian bildutako datuek behar duten konfidentzialtasunaz ohartarazi behar da eta datu-bilketan pertsona hori egin dela jaso behar da.

D) HIRUGARREN PERTSONEN DATUAK

Atal honetan funtsezkoa da eztabaidatzea indarkeriari aurre egiten dion emakumeak emandako hirugarren pertsonen datuak bil daitezkeen. Printzipioz, hirugarren pertsonen (senideak, aurrekoak edo ondorengoak, auzotarrak edo gertakariak ezagutzen dituzten pertsonak, edo are erasotzailea bera) datuak biltzeko aukera ahalik eta gehien murriztu behar da, eta behar-beharrezkoak diren datuak baino ez dira bildu behar eta kontatutako datuak -hots, hirugarren pertsonen buruzkoak- direla eta haiei dagokienez biltzeko baimenik jaso ez dela adieraziz.

Hamalau urtetik beherako seme-alabei dagokienez, ez litzateke neurririk hartu behar; izan ere, baimena gurasoren baten borondateak ordeztzen du. Hamalau urtetik gorako seme-alabak eta, noski, hamazortzi urtetik gorakoak badira, ordea, hirugarren pertsonen datuen tratamenduari buruz arestian aipatutakoaren gaineko jarraibide berberak bete behar dira.

Esan behar da datuak babesteko lege organikoan aurreikusitako kalitate-printzipioaren aplikazio zorrotzak datu horiek bildutako helbururako beharrezkoak eta batez ere ez gehiegizkoak izatea eskatzen duela. Talde horren sentikortasun berezia kontuan hartuta, ordea, onargarria litzateke datu-bilketa hedatua, prebentziokoa eta zuhurra egitea, ildo babeslean eta zaintzailean eta zuhurtziaren mugen barruan; izan ere, beharrezkoa izan daiteke biktimaren arreta integralerako biktimaren testuinguruari buruzko informazio gehiago edukitzea, laguntza-plan integralak edo indarkeriaren biktimen prebentzio-politikak prestatzen laguntzeko.

Araudiaren arabera, hirugarren pertsonen datuak jasotakoan beharrezkoa izango da pertsona haiei jakinaraztea bilketa hori egin dela, eta datu horiek dagokion administrazioak daukan fitxategian daudela jasota. Kontuan hartu behar da, ordea, komunikazio horrekin emakumearen segurtasuna arriskuan jar daitekeela, haren osotasun fisikoa edo psikikoa edo arriskuan egon daitekeela edo jendaurrean jartzeko arriskua egon daitekeela. Egoera horiek bateragarriak dira konfidentzialtasunarekin eta, beraz, haren segurtasuna lehenetsi beharko da informazioaren gainetik lehian dauden pertsonaren balio gorenak, hala nola, kasu honetan, bizia, babesteko, zein maila goren horretan jaso baitu Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak.

2. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA





2. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMEN DATU PERTSONALAK BILDUTAKOAN, ZER EGIN DEZAKET HAIEKIN? DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

LEHENENGO GALDERA:

INDARKERIA JASAN DUEN EMAKUMEAREN ARRETA-ERAKUNDE BATEKO LANGILE GUZTIEK ESKURA DITZAKETE DATU PERTSONALAK?

Atal honetan datu pertsonalen tratamenduari buruzko alderdiei heldu diegu. Legeak datu pertsonalen tratamendurako ezarritako baldintzak lehenago azaldu dira neurri batean.

Tratamendua datuak bildu dituen administrazioak informazioari emango dizkion erabilerak izango dira, kasu honetan, eta administrazioaren arabera, helburua laguntza ematea, soziala, diru-laguntzak ematea, sendatzea, edo delitua jazartzea litzateke, besteak beste.

Tratamendurako konfidentzialtasuna baldintza guztiz ezinbestekoa da kasu orotan eta erakundean jarraitu beharreko printzipiorik garrantzitsuena behar du, banako pertsonak edo euren erakunde publikoetan edo pribatuetan duten jarduerarako ezagutzeko batere premiarik ez dutenek datu pertsonalak eskuratzea galarazteko.

Hala, hausnarketa prozesua egin eta erabaki egin behar da erakundean nork ezagutu behar dituen datu pertsonalak emakumeen aurkako indarkeria egoeren testuinguruan kasu bakoitzaren dagoen helbururako.

Beraz, tratamenduko funtsezko printzipio gisa, datu pertsonalek arreta-prozesuan duten parte-hartzeagatik derrigorrez ezagutu behar dituzten pertsonentzat baino ez dute eskuragarriak izan behar.

Askotan planteatzen da datu horiek erakundeko beste kide batzuei ezagutaraz dakizkiekeen -esaterako, udal-eremuan eskatzen dituzten zinegotziei edo teknikariei-; eskatzen dituen hierarkia handiagoko bati edo beste zerbitzu bateko pertsonari jakinaraz dakizkiekeen.

Erantzuna kasu bakoitzaren azterketa zehatzetik dator, bi parametro nagusitatik: lehenengo, lagapen hori aurreikusten duen lege-mailako araurik dagoen aztertzea; egonez gero, lagapen hori arazorik gabe egin daiteke. Bigarrena, lagapen horretarako emakumearen baimena daukagun aztertzea eta beharrezkoa izanez gero hura lortzea.

Adierazi dugunez, indarkeria jasan duten emakumeen datuak biltzeko kasu berrietan etorkizuneko lagapenen aurreikuspena jaso behar dugu, eta hala jasotzen da 1. eranskinean dago-

en indarkeria jasandako emakumeen datu pertsonalak bildu eta lagatzeko baimen informatuko klausulan, kontuan hartuz lagatzeko aurreikuspen horrek berariazkoa eta zehatza izan behar duela, alegia, ezin dela orokorra izan ("beharrezkotzat jotzen diren lagapenak..." motakoa).

BIGARREN GALDERA:

JASOTAKO DATU PERTSONALAK HASIERAN JASOTZEKO ZEUDENAK EZ DIREN BESTE HELBURU BATZUETARAKO ERABIL DITZAKEGU?

Ikusi dugunez, tratamenduko funtsezko printzipio gisa, datu pertsonalek indarkeria jasan duen emakumearen arreta-prozesuan duten parte-hartzeagatik derrigorrez ezagutu behar dituzten pertsonentzat baino ez dute eskuragarriak izan behar.

Hots, tratamendua kalitate/helburu-printzipioak gidatzen du.

Ikusiko ditugun salbuespen batzuetan izan ezik, datuak ezingo dira inolaz ere erabili biltze-ko zeudenak ez diren beste helburu batzuetarako. Hortaz, laguntza-helburuarekin bildu diren datuak ezin dira azkenean beste helburu baterako erabili.

Azalpen oso argia dauka horrek, eta adierazitako informazioko eta baimeneko baldintzei lotuta dago, ezin baita baimendu ezagutzen ez dena. Indarkeria jasan duen emakume bati esan badiogu bere datuak sendatzeko xedez jasoko ditugula, adibidez mediku baten kasuan, sistema publikokoa zein erakunde pribatu batekoa izan, hark ezingo ditu datuak erabili helburu horretarako baino, eta ez beste batzuetarako. Adibidez, ezingo ditu erabili laborategi baten produktu edo zerbitzu komertzialak eskaintzeko, edo beste helburu batzuetarako komertzialak izan zein ez.

HIRUGARREN GALDERA:

NOLA BERMATUKO DUGU DATU PERTSONALEN KONFIDENTZIALTASUNA LEHIA PUBLIKOKO PROZESUETAN?

Datuen tratamenduak nabarmena den konfidentziasun-printzipioa errespetatu behar du, hots, ezingo dira inola ere aipatu, eztabaidatu edo erabili, arreta hobetzeko edo emango den laguntza optimizatzeko ez bada.

Datu pertsonalen tratamenduaren eremuan, bestalde, kontuan hartu behar dira indarkeria jasandako emakumeei osorik edo partzialki zuzendutako laguntza-deialdietatik datozen alderdiak.

Euskadiko laguntzen egoeran laguntzetarako dauden aukerak, hala nola udalek emandako udal-laguntzen kudeaketa, aztertu ondoren, ondorioztatu behar dugu deialdietarako zenbait aukera daudela eta zeinek bere irtenbidea behar duela:

- 1) Lehenik, indarkeria jasandako emakumeentzat berariaz egindako laguntza-deialdiak.
- 2) Bigarrenik, laguntza orokorretarako deialdiak, non deialdiaren barruan talde horrentzako berariazko txanda dagoen; horietan, laguntzarik eman behar ez dela ebazten bada, horiek, eman gabe dauden heinean, deialdi orokorrera pasatuko dira, hura handituz edo areagotuz.
- 3) Hirugarrenik, deialdi orokorrak, zeinetara indarkeria jasandako emakumeak baldintza berdinetan aurkezten diren, baremoan inguruabar horregatik berariazko puntuazioa egonik (epai irmoa egonda, salaketa egonda, etab.).
- 4) Azkenik, deialdi orokorrak, zeinetara indarkeria jasandako emakumeak gainerakoen baldintza berdinetan aurkezten diren, horregatik berariazko puntuaziorik eman gabe.

Lehenengo kasuan, indarkeria jasan duten emakumeei bakarrik zuzendutako laguntzen publikitateak, printzipioz, mugatua izan behar du, interesdunei, hots, prozesuan parte hartzen dutenei, ematen zaizkien datuei dagokienez, eta diru-laguntzak emateko prozesuan parte hartzen duten pertsonei eurei egon behar du bideratuta.

Kasu horretan garrantzitsua da prozesuan parte hartzen duten gainerakoek beste parte-hartzaileei buruzko informazioa ezagutu eta eskuratu ahal izatea, haien eskubideei eragiten dielako. Baina ez informazio guztia; alegia, informazio hori eskuratzeko eskubidea interesdunak dauka, beste eskatzaileen baldintza berdinetan lehiatuta laguntza eskuratu ez duena izanik interesduna, eta eskuratu edo ezagut dezakeen informazioa ez da guztia, laguntza onuradunei era objektiboan eman zaiela egiaztatzeko ezinbestekoa dena baizik.

Muga horrek, datu pertsonalen kalitate-printzipioari lotuta, 2014ko abenduaren 10az geroztik indarrean jarri zen Gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen azpian dagoen planteamendua eta asmoa errespetatzen ditu. Lege horrek informazio publikoa ezagutzeko aukera eman nahi die herritarrei, egiten duten guztia eta herritarren baliabide ekonomikoak zertan gastatzen dituzten jakinarazten duten administrazio gardenak eskatzen baitituzte. Horretarako, herri-administrazioen zein, besteak beste, haien planen, kontratu publikoen, hitzarmenen, diru-laguntzen, aurrekontuen eta ordainsarien publikitate aktiboa aurreikusi du, informazio hori herritarren eskura gera dadin.

Arau horrek administrazioaren jardunbidea datuen babesaren ikuspegiaren pean birdefiniaraziko du gardentasuna informazio pertsonala erakusten denaren gaineko kontrolik gabe zabaltzearekin nahastea ekiditeko.

Bigarren kasuan (indarkeria jasandako emakumeentzat berariazko txanda dagoenean baina eman ezean emakume horientzako laguntza deialdi orokorrera igarotzen denean), honako arazoa sortzen da: deialdiko gainerako parte-hartzaileen eskubideei eragiten zaizkie deialdira aurkeztu diren indarkeria jasandako emakumeei lotutako informazioa ematen bazaie. Kasu horretan, kontuan hartu behar da indarkeriaren txandan eman ez diren laguntzak deialdi orokorrari gehitzen bazaizkio, hura dela elementu erabakigarria, eta laguntza eskuratu ez duten gainerako parte-hartzaileek eskuratu lezaketela eskatzaileen espedienteak, zein, indarkeriako inguruabarra betez, esleipendunak gertatu diren, deialdiko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen. Haien nortasuna, helbidea, etab. ezagutzea dakar horrek? Erantzunak ezezkoa behar du, deialdiko oinarriak betetzeari lotutako datuak baino ez lituzkete eskuratu behar; hots, sarbide mugatua eman behar da.

Hirugarren kasuan ere (deialdi orokorrak eta berariazko puntuazioa baremazioan indarkeria jasan duten emakumeentzat), erantzunean aplikatu beharreko printzipioa, datuen babesaren printzipio orokorrak ez ezik, prozesuko gainerako parte-hartzaileen eskubidea bermatzea da, eta parte-hartzaileetako batzuk biktima izandako emakumeak direla egiaztatu ahalko dute. Kasu horretan, indarkeria jasan duten emakumeen nortasuna orokorrean babestu egin behar da. Gainerako parte-hartzaileei sarbide mugatua onartuko zaie euren interesak defendatzeko eskatuko balute; eskatzaileen nortasuna ez dute ezagutuko, indarkeria jasan duen emakumeak direla besterik ez, inguruabar horregatik berariazko puntuazioa ematean laguntza eman izana ziurtatzeari begira.

Laugarren kasuan (indarkeria jasandako emakumeak sartzen diren deialdi orokorrak), ez dago arazorik datuen babesari dagokionez; izan ere, indarkeria jasandako emakumeak izatea frogatu behar ez dutenez gero, ez da arazorik sortzen. Datu hori beharrik gabe bildu ezean; kasu horretan, arazoa sortuko litzateke, bilketagatik beragatik, prozesurako beharrezkoa ez den datu pertsonal bat biltzean.

Irtenbide horiek, planteamendu orokorrean, funtzio publikoan sartzeko deialdiei, lan-pol-tsetarako deialdiei, eta abarri ere aplikatu dakizkieke. Halakoetan, funtzio publikoan sartzeko prozesuko espedienteak eskuratzeari dagokionez, pertsona bakoitzak prozesuan dagoen bere informazioa eskuratu ahalko du, eta gainerako parte-hartzaileena ere eskuratu ahalko du alderdi interesduna denean deitutako plaza ez lortzeagatik kaltetua izatean, eta indarkeria jasandako emakumeen informaziorako sarbide mugatua egongo da, arestian azaldu bezala.

LAUGARREN GALDERA:

INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEN DATU PERTSONALAK ESTATISTIKAKO HELBURUETARAKO ERABIL GENITZAKE?

Datu pertsonalak biltzearen balioetako bat geroago testuinguru horretan erabiltzeko estatistikak egitea da.

Hasiera batean erantzuna baiezkoa da; izan ere, datuak babesteko araudiak helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako erabili ahal izatea ahalbidetzen du, hasiera batean asmo horrekin bildu ez balira ere. Asmo horretarako, ordea, datu pertsonalak anonimo bihurtu behar dira, hots, pertsona bat identifikatzea edo identifikagarri bihurtzea ahalbidetzen duten datu pertsonalak ezabatu behar dira.

Hala ere, kontu bat azpimarratu behar da: estatistikari buruz indarrean dagoen legediak ezarri du datu pertsonalei zer erabilera eman dakiekeen eta asmo estatistikoa zer helburuk gidatzen duen. Hots, udal batek edo Emakundek estatistika publikoak egin nahi baditu estatistikari buruzko legediak ezarritako baldintzen arabera egin behar du. Legediari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legea erreforma-prozesuan dago egun.

Baldintza horien artean lege honetako 9. artikuluan jasotakoa da -esan dugunez, lege hori eguneratzeko prozesuan dago-. Manu horrek adierazi duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera estatistikoa antolatzeke tresna Euskal Estatistika Plana da, derrigorrez lege onartu beharrekoa, eta planak indarrean dagoen aldian egin beharreko estatistikak eta mota horretako beste jarduerak jasoko ditu. Eta berariazko aitorpena egin beharretik salbuetsi du plan horretan Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzaren hitzarmenei dagozkien jarduera estatistiko guztiak sartzea.

Esan behar da helburu estatistikoa derrigorrez bildu ondoren egiten den datu pertsonalen erabilera dela. Bilketa horren funtsezko helburua laguntza eta aholkularitza bilatzen dituzten emakumeei laguntzea da. Beraz, baimen informatuko klausularen edukian ezin liteke sartu emakumeak zerbitzura jotzeko zioaren berezko premia ez dena.

Bestalde, kontuan hartu behar da datu pertsonalak helburu estatistikoarekin biltzea hasierako unean bateraezina dela jarduera estatistikoan datu pertsonalei anonimo bihurtutako tratamendua ematearekin. Bestela esanda, estatistikak egiteko datu pertsonalak anonimo bihurtu behar badira, ez da zuzena ustezko helburu estatistikoarekin datu pertsonalak biltzea, estatistikak alde batera utzi behar baititu datu horiek.

3. **D**ATU PERTSONALAK LAGATZEA





3. ZELAN KOMUNIKATU HIRUGARRENGO BATI INDARKERIA JASAN DUEN EMAKUME BATEN DATU PERTSONALAK: DATU PERTSONAK ZELAN LAGATU

LEHENENGO GALDERA:

INDARKERIA JASAN DUEN EMAKUME BATEN DATUAK BESTE PERTSONA EDO ERAKUNDE BATZUEI LAGA DAKIZKIEKE?

Kasu honetan, bi arazo mota atzeman ditugu. Alde batetik, datuak erakunde bereko pertso-
nei komunikatzea (adibidez, indarkeria-zerbitzu baten datuak zinegotziei komunikatzea edo
ezagutaraztea) eta, bestetik, erakundearen arteko lagapenak (A udalak datuak bildu eta
Osakidetza, B elkarteari, eta abarri uzten dizkie).

Askotan planteatzen da datu horiek erakundeko beste kide batzuei ezagutaraz dakizkiekeen
(2), esaterako, udal-eremuan eskatzen dituen zinegotzi bati ezagutaraz dakizkiekeen, eskatzen
dituen hierarkia handiagoko bati edo beste zerbitzu bateko pertsonei jakinaraz dakizkiekeen,
edozein administrazioan.

Galdera honen erantzunak kasu bakoitzaren azterketa zehatzetik etorri behar du, arestian
azaldu diren bi parametro nagusitatik; duten garrantziagatik errepikatu egingo ditugu: lehe-
nengoa, lagapen hori aurreikusten duen lege-mailako araurik dagoen aztertzea; egonez gero,
lagapen hori arazorik gabe egin daiteke. Bigarrena, indarkeria jasan duen emakumeak lagapen
horretarako baimena eman digun aztertzea eta beharrezkoa bada hura lortzea, lagapena bera-
riaz baimentzeko eskatuz.

Adierazi dugunez, datu-bilketa horretan komenigarria da etorkizuneko lagapenak aurrei-
kustea, gida honetako 1. eranskinean jasotako indarkeria jasandako emakumeen datuak bildu
eta lagatzeko baimen informatuko klausulan jaso denez. Lagapenaren aurreikuspen horrek be-
rriazkoa eta zehatza (zehazki zer erakunderi) izan behar du, alegia, ezin da orokorra izan (“be-
harrezkotzat jotzen diren lagapenak...” motatakoa).

(2) Argitu behar da, erakundearen barruan, datu pertsonalak komunikatzea ez dela lagapena, informazio hori ezagu-
tzeko baimena duten pertsonen artean gertatzen bada.

BIGARREN GALDERA:

POSIBLE DA DATU PERTSONALAK LAGATZEA INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEN ARRETA INTEGRALERAKO LANKIDETZA-PROTOKOLO BATEAN SARTUTAKO PERTSONEN EDO ERAKUNDEEN ARTEAN?

Azken urteotan Euskadiko zenbait udalerritan indarkeria jasan duten emakumeen arretarako “protokoloak” izenekoak garatzen ari dira. Haien helburua talde horren arretarako erakundeen arteko lankidetzaz esparrua ezartzea da. Udal eremuan, batez ere osasun-administrazioa, gizarte-zerbitzuen eremuko udal-administrazioa, polizia-administrazioa, fiskaltza, edo botere judiziala, zein beste erakunde batzuk.

Protokolo horiek Genero indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako printzipioak jarraitzen dituzte. Azken lege horrek ezarri duenez, arreta-prozesuan parte hartzen duten erakundeen arteko lankidetzaz sustatu beharko da. Horrek, ordea, administrazio horien artean gerta daitezkeen datu-lagapenei buruzko hausnarketa eskatzen du.

Lagapen horiek, arestian azaldu dugunez, lege-mailako arau batean (3) egon behar dute aurreikusita edo, bestela, indarkeria jasan duen emakumeak lehenago berariaz emandako baimenez egin behar dira, eta hark egingo diren lagapen zehatzak ezagutu behar ditu. Argi izan behar da, bestalde, premisa gisa, zenbait erakundek sinatutako protokoloa ez dela babes juridiko nahikoa, eta beraz, ez dela lege-mailako araua, haren babesean egiten diren lagapenetarako. Horregatik, emakumearen baimena lortu behar da lagapen horietarako, eremu horren zorrotasun eta sentikortasun berezia dela-eta.

Baimenaz eta lege-mailako arau batek datu pertsonalak lagatzeko berariaz gaitzeaz gain, esan behar da lagapenak gaitzeko hirugarren aukera bat dagoela: hura eskumen berberak dituzten organoen artean gertatzea. Horrek zenbait udaletako gizarte-zerbitzuen artean, udalerri

(3) Egun ez dago gaitzeko lege-mailako araurik indarkeriaren arloko lagapena arautzera berariaz zuzenduta, baina, hala ere, edozein unetan gerta daiteke hura jasotzen duen lege-aldaketa bat edo arau berri bat, Estatu- zein autonomia-mailan eremu honetan esku hartzen duten edozein erakunderen erregulazioaren eremuan. Aukera horiek aztertzeke egin zen Etxeko tratutzarraz eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeen harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioko datu pertsonalen babesari buruzko atariko txostena. Txosten hori datu pertsonalen babesaren araudi-ara egokitzeaz buruzkoa da, eta datu pertsonalen lagapenari era egokian heltzeko irtenbideak ezarri ditu. Egun ez dago legezko zirikiturik egoera hori gaitzeko eta ez litzateke gomendagarria halakoak egotea datu pertsonalak eta emakumea bera era egokian babesteko. Puntu horretan mentalizazioa eta kontzientizazioa funtsezkoak dira eta berariaz eskatzen ditu legeak.

bateko eta foru-aldundiko gizarte zerbitzuen artean, edo haien eta Eusko Jaurlaritzaren artean gertatutako datuen lagapena balioztaraziko luke, baina aukera hori ezin zaie zabaltu gizarte-arreta koordinatzeko protokolo bateko kide guztiei, gizarte-zerbitzuen arloan eskumen jakin batzuk dauzkateni baizik.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (DBEB) 10/8/9ko irizpenak kontu hori ebatzi zuen eta erabaki zuenez, gizarte-zerbitzuen arloko lagapenak datu pertsonalen babesari buruzko araudiaren arabera direla eskumen berberak edo arlo berberei buruzko eskumenak dauzkaten organoen artean gertatzen direnean.

Ildo horretatik, DBEBren irizpenak adierazi duenez, gizarte-zerbitzuen arretaren arloan euskal herri-administrazioek partekatzen duten eskumenen erabilera dago, eta horregatik eremu horretan gertatzen diren datuen lagapenei arestian adierazitako datuak lagatzeko baimena behar izateko salbuespena aplikatuko zaie -eskumen berberak edo arlo berari buruzko eskumenak-.

Informazioa partekatzeko aukera hori bat dator Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean jasotako koordinazioarekin; izan ere, hark adierazi duenez, euskal herri-administrazioek euren arteko lankidetzako eta koordinazioko betebeharraren arabera jardungo dute, premiazkoak biak sistemaren funtzionamenduan koherentzia, batasun, efikazia eta eraginkortasunik handienak bermatzeko.

Hala ere, eta kasu horietan legeak informazioa partekatzeko gaitzen duen arren, datuen babesaren arloko oinarritzko printzipio bat kontuan hartu beharraz ere ohartarazi behar da, hots, kalitatearena.

Printzipio horren arabera, izaera pertsonaleko datuak, tratatu ahal izateko, bai eta tratamendu horretatik pasazteko ere, kasu honetan bakarrik jaso ahal izango dira: datuak eremuari eta eskuratu diren helburu zehatz, berariazko eta bidezkoiei dagokienez egokiak, egoerari dagozkionak eta ez gehiegizkoak direnean.

Hortaz, eta printzipio hori aplikatuz, bi baldintza betetzen dituzten datu pertsonalak baino ezingo dira laga:

- 1) Organo biek, lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak, eskumen berberak edo arlo berberei buruzkoak izatea, eta
- 2) Lagatako datuak eskuratu diren eremuari eta helburu zehatz, berariazko eta bidezkoiei dagokienez datu egokietara, egoerari dagozkionetara eta ez gehiegizkoetara mugatzea.

Hala, beste erakundeek datu pertsonalak eskatzen dituztenean, lankidetzako udal-protokoloan parte hartu zein ez, erantzunak azaldutakoa izan behar du beti: lehenik, gaitzen duen lege-mailako araurik dagoen lagapena berariaz baimentzen duena edo komunikazioa eskumen ber-

berak dituzten organoen artean egin nahi izatea, eta biek helburu bera betetzea bilatzea; alegia, eskumen berberak edo arlo berberei buruzko eskumenak dituzten organoen artean; eta bigarrenik, hori beteko ez balitz, indarkeria jasan duen biktimaren baimenik dagoen aztertzea edo hura berariaz lortzea. Parametro horietakoren bat betetzen ez bada, lagapena ez da gertatu behar.

Edonola ere, eta etorkizunari begira, arau orokor gisa, etorkizunean egingo diren lagapenatarako indarkeria jasan duen emakumearen baimena bildu beharko da, 1. eranskinean jasotako indarkeria jasandako emakumeen datu pertsonalak bildu eta lagatzeko baimen informatuko klausularen arabera, hura biltzean datu horiek jasoko dituzten lagapen-hartzaileak sartuz (4).

Datu pertsonalak tratatu bitartean bere datu pertsonalak eskuratu, administrazioaren esku zer datu dagoen ezagutu, okerrak badira datu pertsonal horiek zuzendu, haien tratamenduaren aurka egon edo haiek deuseztatzeko eska dezakeen bakarra, emakumea bera izango da, bere ARCO eskubideak erabiliz (norberaren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatze-ko eta aurka egiteko eskubideak).

HIRUGARREN GALDERA:

GIZARTE-ZERBITZUEI, EDO GIZARTE-ZERBITZUETAKO ARLOEN ARTEAN, USTEZKO INDARKERIA-EGOERAN BIZI DEN ADINGABE BATEN DATU PERTSONALAK LAGA DAKIZKIEKE?

Kontu horrek duen berezko garrantzia dela-eta 3. eranskinean planteamendu osoa azaldu da, eta hemen haren azterketa juridikoak eragin dituen gogoetak adierazi dira.

Orain arte adierazi denez, lagapenen arau orokorra baimena da, eta hura izan da, eta izan behar du, gaiari buruzko gomendiorik garrantzitsuena. Adierazi dugunez, ordea, gerta daiteke datuen lagapenak legez gaituta egotea, hots, lagapena gaitzen duen lege-mailako arau bat egotea. Arau horrek berariazkoa izan behar du, eta ez orokorra, eta haren idazketa aztertu behar da egiatan titulu nahikoa den erabaki ahal izateko.

Arloari buruz dagoen egoera juridikoa aztertuta -haren balorazioa 3. eranskinean jaso da-, ondorioztatu denez, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005

(4) Gizarte-zerbitzuen eremuan 1/2004 Lege Organikoaren erreformak edo etorkizuneko udal-lege bateko haren erregulazioak ekar lezakeen lagapena gaitzeko lege-arau bat ez dagoen bitartean, behintzat.

Legeko 58.1 artikuluko aurreikuspena babesgabetasuneko egoeran dauden adingabeen datuak lagatzeko gaitzen duen lege-titulua da, honako mugak dituena: lehenik, babesgabetasuneko kasuei baino ez dagokie eta administrazioak egoera hori ezagutzen den uneaz geroztik; bigarrenik, ez du gaitzen espediente osoak lagatzeko, kasu zehatzetan eta soilik ezinbestekoa den heinean beste herri-administrazio batzuen esku dauden datuak edo informazioak jaso ditzaketen txostenak prestatzeko baizik; hirugarrenik, uneoro hartu behar da kontuan kalitate-printzipioaren aplikazioa, 58.1 artikuluan bertan berariaz jasota; haren arabera, nahi den helbururako behar-beharrezkoak diren datuak baino ezingo dira laga eta, beraz, arloan eskumena duten organoei, kasu honetan, adingabeei arreta emateko ezarritako zerbitzuari.

LAUGARREN GALDERA:

EMAN DAITEKE TELEFONOZ INFORMAZIO PERTSONALIK?

Azkenik, kapitulu honetan, herritarrentzako telefonozko arreta sistemak aipatu behar dira. Horri dagokionez, ez da posible administrazioari telefonoz deitzen dion pertsona bati informazioa inola ere ematea dioen pertsona dela arrazoizko ziurtasunez jakin gabe. Baina bereziki egiaztapen hori gabe erakundeari telefonoz deitzen dioten pertsonen informazioa ematea mugatu behar da bereziki babestutako datuen pareko goi-mailako datuak direnean.

Nortasuna egiaztatzeko zenbait sistema erabil daitezke, hala nola administrazio-prozedura hastean pertsonari espediente zenbakia ematea eta zenbaki hori eskatzea, nortasuna egiaztatzeko beste galderaren batekin, haiek denek bateratuta pertsonaren nortasuna ziurta dezaten.

Edozein zalantzaren aurrean, telefonoz deitu duen pertsonari ez zaio informazioa eman behar, eta aurrez aurre bertaratzeko eskatu behar zaio. Balio dezakeen beste aukera bat galderei erantzutea da; kasu horretan komunikatu den pertsonak ezagutzen dituen informazioei baietz edo ezetz esango die operadoreak, erantzunean luzatu gabe eta informazio gehigarririk eman gabe.



4. DATU PERTSONALEN SEGURTASUNA



4. DATU PERTSONALEN SEGURTASUNA: NOLA ZAINDU BEHAR DITUGUN INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEN DATUAK

Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak ezi zituen bereziki babestutako datuen artean sartu indarkeria jasan duten emakumeengandik datozen edo haiei lotuta dauden datuak. Horrek halako datu pertsonalei babes-maila gorena duten datuen estatusa emango ziekeen. DBLO garatu duen 1720/2007 Erregelamenduak, ordea, aipamen garrantzitsua jaso du. Aipamen horren ondorioz, praktikan, genero-indarkeriari lotutako datuek babes-maila hori hartzen dute (5). Izan ere, mota horretako datuak goi-mailako segurtasun-neurriekin babestu beharra ezarri zuen.

LEHENENGO GALDERA:

ZER ARDURA EDO SEGURTASUN-NEURRI HARTU BEHAR DA INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEN DATU PERTSONALEI BURUZ?

Segurtasun-neurriak hiru segurtasun-mailatan aplikatzen dira; oinarrizko mailako neurriak, maila ertainekoak eta goi-mailakoak. Segurtasun-neurri horiek xehetasunez ezarri dira Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa garatzeko Erregelamenduan eta era metagarrian aplikatu behar dira, hots, oinarrizko mailako neurriak datu mota guztiei; maila ertaineko datuei oinarrizko mailako neurriak eta maila ertainekoak aplikatuko zaizkie eta, goi-mailako datuei oinarrizko mailako neurriak, maila ertainekoak eta goi-mailakoak aplikatuko zaizkie.

Beraz, genero-indarkeriako egintzek eragindako datu pertsonalei segurtasun-neurri guztiak aplikatuko zaizkie; alegia, oinarrizko mailakoak, gehi maila ertainekoak, gehi goi-mailakoak. Derrigorrez betebeharreko gutxieneko edukiei dagozkien legezko betebeharrak dira, eta haiek ez bete edo era desegokian betez gero, datuen babesaren arloko kontrol-erakundeek zehapenak ezarri edo arau-haustea adieraziko dute.

Laburbilduz, indarkeria jasan duen emakume batengandik datozen datu-fitxategiei aplikatu beharreko neurriak honakoak lirateke:

- Lehenengoa eta garrantzitsuena, segurtasun-agiri eguneratua edukitzea da. Oinarrizko segurtasun-neurria da eta dokumentu horrek definituko ditu langileen eginkizunak eta betebeharrak, eta bete ezean langileek izan ditzaketen ondorioak.

(5) Gida honetako 16 eta 17. orrialdeetan “emakumeen aurkako indarkeria” kontzeptuari buruz egindako zehaztasunei lotzen gatzaizkie.

Erakundearen barneko dokumentua da, eta eguneratuta eduki behar da beti. Segurtasuneko dokumentua edukitzea derrigorrezkoa da zein ere den aplikatu beharreko segurtasun maila.

Segurtasun-agiriak gutxienez honako atalak jaso behar ditu:

- Aplikazio-eremua: babestutako baliabideak zein diren azaldu behar da zehatz.
 - Segurtasun-neurriak, -arauak, -prozedurak, -erregelak eta -estandarrak.
 - Langileen eginkizunak eta betebeharrak.
 - Fitxategien eta informazio-sistemen egitura eta deskribapena.
 - Gorabehera buruzko jakinarazpen-, kudeaketa- eta erantzun-prozedura.
 - Babes-kopiak egiteko eta datuak berreskuratzeko prozedurak.
 - Euskarrien eta dokumentuen garraioan, suntsipenean edota berrerabilpenean hartutako neurriak.
-
- Segurtasun-agiria edukitakoan, erakundeak hura ezagutu, barneratu eta han azaldutako neurriak hartu behar ditu bere eguneroko zereginetan. Horretarako, pertsonen etengabeko prestakuntza funtsezkoa bihurtzen da.
 - Datu pertsonalei eragiten dieten gorabeherak jakinarazteko eta kudeatzeko prozedura izan beharko da eta erregistro bat ezarri beharko da.
 - Gorabehera ihesengatik, informazio-galerengatik edo lapurretatik -azken batean, nahi gabeko edo nahitako ekintzengatik- informazioaren segurtasunari lotutako alderdiren bat-konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna- arriskuan jar dezakeen gertaera oro da.
 - Gorabeherak jakinarazteko prozedurarako erregela batzuk ezarri behar dira langile guztiek gorabeherak zuzen kudeatzeko eta hark eragindako eragina gutxiagotzeko; horretarako, datu pertsonalak erabiltzen dituzten langile guztiek ezagutzen duten prozedura bat eduki behar da, eta prozedura horrek gorabeherak komunikatzea, erregistratzea, dokumentatzea, jarraitzea, haiei erantzutea eta ixtea ahalbidetu behar du.
 - Erabiltzaileek euren eginkizunak burutzeko behar dituzten baliabideak -hots, mekanismoak edo tresnak- baino ezingo dituzte eskuratu eta fitxategiaren arduradunak arduratu beharko du erabiltzaileen eta erabiltzaile-profilen zerrenda eguneratua egoteaz eta erabiltzaile horietako bakoitzak zer eskuratzeko baimena duen ezartzeaz.
 - Euskarriek eta agiriekin, datu pertsonalik baldin badute, zer-nolako informazioa duten identifikatzeko aukera eta inbentariatzeko aukera eman behar dute, eta segurtasun-agiriaren arabera sarbide-baimena dutenen eskura besterik ez dute egon behar.

- Euskarri eta agiri horiek, mezu elektroniko batean jasotakoak edo haiei erantsitakoak barne, lokaletatik kanpo ateratzeko fitxategiaren arduradunaren baimena beharko da edo segurtasun-agirian behar bezala baimenduta egon beharko du.
- Erabiltzaileen identifikazio eta autentifikazio zuzena bermatzeko neurriak hartu beharko ditu fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunak.
- Identifikazioak sistemari erabiltzailea ezagutzea ahalbidetzen dion jarduna da; eta autentifikazioa sistemak identifikazio horren gainean egiten duen egiaztapena da, eta lehen urrat-
sa da pertsona baimenduak baino sartzen ez direla bermatzeko.

Prozesu informatikoetan autentifikatzeko ohiko bidea pasahitzen erabilera da. Pasahitz horiek euren konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko moduan esleitu, banatu eta biltegitatu behar dira, eta ezi dira langileen artean zabaldu behar. Bestalde, pasahitzak aldian behin aldatu eta modu ulertezinean biltegitatu behar dira.

- Babes-kopiak gutxienez astean behin egiteko moduko prozedurak antolatu behar dira. Epea horixe izango da, denbora-tarte horretan bat ere datu-eguneraketarik egin ez denean salbu. Datuak berreskuratzeko prozedurak ere antolatu behar dira. Prozedura horiek bermatu beharko dute galdu edo desegin ziren momentuan zeuden bezala berreskuratuko direla datu horiek.
- Segurtasun-maila ertainetik aurrera, segurtasun-agirian segurtasun-arduradun bat edo batzuk izendatu beharko dira; haiek arduratuko dira bertan definitutako neurriak kontrolatzeaz, arestian adierazi dugunez, segurtasun-agiriaren izaera deskribatzean, eta agiriaren edukia aldian behin kontrolatu beharko da.
- Gutxienez bi urtean behin DBLO Auditoria bat egingo zaie informazio-sistemei eta datuak tratatu eta biltegitatzeko instalazioei, datu pertsonalen tratamenduan segurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatzeko. Halaber, auditoria hori egin beharko da informazio-sisteman funtsezko aldaketak egiten diren guztietan, aldaketa horiek ezarritako segurtasun-neurriak betetzeari eragin badiezaioke, haien egokitzapena, egokitasuna eta efikazia egiaztatzeko; funtsezko aldaketa hori gertatu izanagatik beharrezkoa den kasuetan auditoria berezi hori egiten denean ohiko bi urteen zenbaketa hasten da.
- Oinarrizko neurri gisa ezarritako irteeraren erregistro-sistemaz gain, euskarrien sarreraren erregistroa ere ezarri beharko da.
- Informazio pertsonala duten euskarrien -papereko edo gailu teknologikoetako agiriak- irteerak eta sarrerak idatzi egingo dira, eskuzko prozedura edo prozedura informatiko baten arabera. Sarreretan, honakoak adieraziko dira: agiri edo euskarri mota, eguna eta ordua, bidaltzailea, bidalketan sartutako agirien edo euskarrien kopurua, daukaten informazio mota, bidaltzeko modua eta hartzeko ardura duen pertsona baimendua; eta irteerei dago-

kienez: agiri edo euskarri mota, eguna eta ordua, jasotzailea, bidalketan sartutako agirien edo euskarrien kopurua, daukaten informazio mota, bidaltzeko modua eta emateko ardura duen pertsona baimendua.

- Fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunak mekanismoren bat ezarriko du informazio-sistemara behin eta berriz baimenik gabe iristen saiatzeko aukerak mugatzeko.
- Goi-mailatik aurrera, informazio-sistemen ekipo fisikoak instalaturik dauden lekuetarako sarbidea, segurtasun-agirian baimendurik dauden langileek baino ez dute izango.
- Datu pertsonalak dituzten euskarriak banatzeko, datu horiek enkriptatuta adierazi beharko dira, edo beste moduren batera ere egin ahal izango da, baina bermatzekotan garraioak dirauen bitartean inork ez duela informazio hori ez eskuratuko ez ezertan aldatuko. Halaber, fitxategi-arduradunaren kontrolpeko instalazioetatik kanpora daudenean, gailu eramangarrietan dauden datuak ere enkriptatu egingo dira. Datuak zenbaki bidez adierazteko modurik ez badago, ahal dela gailu eramangarrietan ez da datu pertsonalik tratatu behar.
- Datuen eta horiek berreskuratzekeko prozeduren babes-kopia bat gorde behar da, haiek tratatzen dituzten ekipamendu informatikoak dauden bestelako leku batean.
- Datuetan sartzeko ahalegin bakoitzetik, gutxienez, informazio hau gorde, beharko da: erabiltzailearen identifikazioa, zein egunetan eta ordutan egin den, zein fitxategitara sartu den, sartze hori zein motatakoa den, eta sarrera hori baimendu edo ukatu egin den. Sartzeko baimena eman bada, beharrezkoa izango da zein erregistrotara sartu den identifikatu ahal izateko informazioa gordetzea.
- Alderdi horiez gain, eta automatizatu gabeko fitxategiei, hots, paperean tratatzen direnei dagokienez, garrantzitsua da adieraztea haiek gordetzen diren armairuek, artxibategiek edo bestelako elementuek sarrera babestua duten areetan egon behar dutela eta sartzeko ateez giltzaren edo haren pareko beste gailu baten bidez irekitzeko sistemak eduki behar dituztela. Fitxategi horietako datuen beharrik ez dagoenean, leku horiek itxita egon beharko dute.
- Datuak paperean tratatzen direnean, bestalde, hirugarren pertsonak eskuratzea kontrolatzeko neurriak eta kopiak egin ahal izatea murrizteko neurriak hartu, eta agirien lekualdaketa fisikoari buruzko neurrien kontrola egin behar da.

Laburbilduz, tratamendu-sistemei eragiten dieten segurtasun-neurri fisikoak (hala nola espazioak egokitzea) eta segurtasun-neurri teknikoak daude. Halaber, neurri batzuek lanaren antolamenduari eta datuak tratatzeko moduari eragiten diete eta beste batzuk informatikoak bai-

no ez dira. Komenigarria da, bestalde, segurtasunaren ikuspegi globala hartzea, legea osorik bete eta indarkeria jasan duten emakumeen datuei tratamendu zuzena ematea ahalbidetzeko.

Informazio pertsonala egiaztatzeko garapen edo sistema informatiko bat edukitzea ez da konponbidea datu pertsonalen tratamendu arretatsua eta egokia alde batera utzi ahal izateko, sistema informatikoak parametro horiek kontuan hartuko dituelakoan. Izan ere, sistema informatikoak operatibitatean, funtzionaltasunean eta errendimenduan oinarritutako irizpide teknikoetan oinarritzen da, eta ez irizpide judizialetan edo legeletan. Azken horiek ezagutzea ez da beharrezkoa sistema informatikoak egiteko. Halaber, gailu informatikoak ez daudelako giza-kien nahitako edo nahi gabeko portaeratik salbu.

Datuak babesteko araudiak ezarritako betebeharretarako informatikoaz besteko segurtasun-neurriak ere hartu eta informatikoak ez diren jarduerak egin behar dira: fitxategiak zuzen inskribatu eta beharrezkoa den segurtasun-agiria prestatu, datu pertsonalen tratamendua agintzeko kontratuak idatzi -datu pertsonalen erabilera behar duten zenbait administrazio-zerbitzuren emakidan-, datuak babesteko araudiak eskatutako segurtasun-neurriak betetzearen egiaztapena -minimoa behintzat-, webguneetan pribatutasun-politika egokia prestatu, edo informazio pertsonalaren tratamendu zuzena egiaztatu. Halaber, langileek behar den informazioa eta prestakuntza izan behar dituzte oinarritzko alderdiak ezagutzeko, hala nola ARCO esku-bidearen eskabide bat bete eta prozesatzeko modua, beste betebehar batzuen artean.

Horregatik, ezin da programa edo laguntza informatiko baten esku utzi informazio-sistemen egiaztapena; aitzitik, alderdi biak bateratu behar dira: sistemaren funtzionaltasuna eta haren segurtasuna, informazioaren babesari dagokionez.

BIGARREN GALDERA:

BERARIAZKO SEGURTASUN-NEURRIAK HARTU BEHAR DITUT DATU PERTSONALAK IRITSITAKO BIDEAREN ARABERA?

Arestian azaldu dugunez, zenbait modu daude indarkeria jasan duen emakume baten datu pertsonalak administrazioa iristeko; a priori honakoak har ditzakegu gogoan: telefonozko komunikazioa, aurrez aurrekoa, webgunearen erabilera, posta elektronikoa edo aplikazio mugikorren bidez. Haietan guztietan bermatu behar da, prozedura tekniko egokien bidez, datuak administrazioaren eskura egon orduko, arestian azaldutako segurtasun-neurrien pean egongo direla, eta tratatuko dituzten pertsonen eskura baino ez.

Beraz, komunikatzeko bideak ez du garrantzirik izango ondorio horietarako, eta neurri berberak eta konfidentzialtasun-printzipioa aplikatu beharko dira kasu guztietan; baina barneko kudeaketa-sistema bat diseinatu beharko da bermatzeko datu horiek erakundean dituzten zereginengatik eskuratu behar dituzten pertsonen baino ezingo dituztela eskuratu, prozesu ho-

rretatik at utziz datu horiek eskuratzeko batere arrazoirik ez duten bitartekariak edo laguntzai-leak.

Zenbait pertsonak parte hartzen duten zerbitzu baten kasuan, haiek denek eskuratu ahalko dituzte emakumearen datu pertsonalak, pertsona horiek administrazio-prozesuan horretarako arrazoi bat badute; alegia, datuak babesteko araudiko funtsezko printzipio bat aplikatzeagatik, hots, helburuari lotutako kalitate-printzipioa, helburu hori emakume horri arreta, aholkularitza eta laguntza ematea izanik, eduki ditzakeen irtenbideetan.

Helburu horren barruan, administrazio-zerbitzu horretan dauden funtzionamendu-mekanismoek zerbitzu-buruak informazio-bilketa edo ebazpenak berrikustea eska dezakete, edo zereginen banaketagatik teknikari bat informazio-bilketaz arduratzea eta beste bat haren tratamenduaz arduratzea eska dezakete. Tratamenduan helburuari eusten bazaio, horrek ez dakar arazorik.

Arazoa helburua aldatu eta datuak beste helburu bat duen beste udal-zerbitzu bati lagatzen zaizkionean sortzen da; adibidez, errolda-zerbitzuari lagatzen zaizkie helbidea eta bizikideak egiaztatzeko, edo zerga-bilketari beste egiaztapen batzuetarako, edo zinegotziari edo alkateari lagatzen zaizkie.

Jatorrizko helburutik -hura izanik hasierako baimenak babestutakoa- ateratzen diren lagapen horiek ezin dira printzipioz egin. Kontuan hartu behar da indarrean dagoen araudiak emakumeen aurkako indarkeriari lotutako datuentzat goi-mailako segurtasun-neurriak eskatzen dituela; neurri horiek oso zorrotzak dira eta, esaterako, beste kontu askoren artean, ez dute onartzen datuak baimenik gabe eskuratzea, eta espedienteak eskuratzen duen pertsona orok, are eskuratzeko baimena dutenek, azterna utzi behar dute.

HIRUGARREN GALDERA:

POSIBLE DA LANGILEEK DATU-BASE KORPORATIBOEN FITXATEGI PARALELOAK EGITEA INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEN DATU PERTSONALAK HOBETO MANEIAITZEKO?

Batzuetan, indarkeria jasandako emakumeei laguntza ematen dieten teknikariek, jaso dituzten datuak, datu-base korporatiboan ez ezik, paraleloki sortu eta tratamenduaren arduradunak gainbegiratu gabe maneiatzen duten beste datu-base batean ere sartzen dute. Tratamendu horren helburua informazioa uneoro edukitzea da, emakumeari laguntza hobea emateko, baina segurtasun-arazo handiak sortzen ditu, ordea; izan ere, fitxategi paralelo horiek ez zaizkio eskumena duen Datuak Babesteko Bulegoari aitortzen eta ez daude araudiak ezarritako segurtasun-baldintzen pean.

Fitxategia eskumena duen Datuak Babesteko Bulegoari aitortzeak han bildutako datuen kontrola eta erantzukizuna nork duen, orokorrean datu horiei buruz nork erabakitzen duen ezartzen du. Beraz, ez da posible fitxategi paralelorik sortzea fitxategiaren ardura duen erakundeak edo entitateak kontrolatzeko ahalmen hori erabiltzerik ez badu. Izatekotan, erakundeak, tratamenduaren erantzulea den aldetik, biltegiratze paraleloak edo beste formatuetako fitxategiak sortzea baimenduko balu, haien tratamendua errazteko, hori segurtasun-agirian aurreikusi behar litzateke, orokorrean segurtasuneko informazio-ihesei lotutako arazoak saihesteko.

Adierazi behar da aldi baterako fitxategi horiek, edo lanerako kopiak sortu eta mantentzeko fitxategiaren erantzukizuna duten erakundeek edo entitateek baimena behar dela. Fitxategi horiek tratatutako datu pertsonalen tipologiaren eta helburuaren arabera dagokien segurtasun-maila bete beharko dutela. Bestalde, erakundeek, fitxategiaren erantzuleak diren aldetik, aldi baterako fitxategi edo lanerako kopia oro bera sorrarazi zuten helburuetarako beharrezkoa izateari utzitakoan ezabatua edo suntsitua izateko jarraibidea eman beharko du.

Beraz, kasu horretarako erakundeak erabakia hartu behar du datuen kudeaketa modu jakin batean egin dadin, bat-batekotasunik gabe, eta erakundeak, fitxategiaren erantzulea den aldetik, ezagutzen ez dituen datu paraleloen pilaketa-sistematik ez dagoela gainbegiratzuz, horrek informazio-iheseko arazoak eragin bailitzake.

LAUGARREN GALDERA:

ZEIN DA LAGUNTZA-PROZESUETAN ESKU HARTZEN DUTEN LANGILEEK INFORMAZIO-SISTEMEI EMAN BEHARREKO ARRAZOIZKO ERABILERA?

Datuak babesteko araudia derrigorrez bete behar da, eta egun herritarrek eskatu ohi duten eta komunikabideetan oihartzun nabarmena duen eremua da.

Profesionalek araudi hori bete behar dute euren eginkizunak burutzean eta gainera aldian behingo prestakuntza jaso behar dute behar bezala birziklatzeko, etengabe garatzen eta bilakatzen ari den gai batean, hots, datuen babesari buruzko sektoreko araudian, zeinek eragina baitauka arauen beste alderdi batzuetan eta, alderantziz, haiek ere eragiten dioten; adibidez, gogora dezagun arestian aipatu den gardentasunaren legea edo etorkizunean egongo den Europako erregelamendua, Europako Parlamentuak onartzeko azken fasean. Aldian behingo eguneratze hori ezinbestekoa da, informazio pertsonalaren eguneroko maneian eta tratamenduan erabilera egokia egiteko eta zerbitzuaren erabiltzaileen informazio pertsonalarekin begirunez jokatzeko eta pertsonen eskubideei erasatea eta hala zenbait erantzukizun modutan jaustea saihesteko.

A) ERANTZUKIZUNA

Erantzukizuna ez da alderdi baztergarria. Kontuan hartu behar da, egungo datuak babeste-ko araudiak sektore pribatuko profesionalei edo erakundeei zehapen ekonomikoak, 900 eta 600.000 euro bitartekoak, jartzea baino aurreikusi ez badu ere, urraketa organo publiko batetik badator, zehapen ekonomikoa ezarri beharrean, administrazioak edonola ere zuzendu beharko duen arau-haustea adierazten dela.

Hala ere, ohartarazi behar da, alde batetik, egongo den Europako erregelamenduak zehapen ekonomikoak ezar ditzakeela herri-administrazioen eremuan ere. Eta, bestetik, aipatu behar da datu pertsonalen babesa kontrolatzeko agintariek emandako arau-hausteko adierazpenak banaka hartutako enplegatu publikoen aurkako diziiplina-prozedura bat abiaraz dezakeela. (DBLOko 46.2. artikulua).

Bestalde, pertsona batek herri-administrazioen ondarezko erantzukizuneko adierazpena kalte-ordain ekonomikoa gauzatzea lortu ahal izateko eta bigarren bide bat dagoela. Hain zuzen ere, zerbitzuaren funtzionamendu okerragatik ondarezko erantzukizuna ezartzea da hura, eta informazio pertsonalaren tratamendu bidegabea edo desegokia egin izana pertsonalizatzen den funtzionarioaren erantzukizuna egozteka ekar dezake. Hori gertatuz gero, administrazio-bidean edo auzitegi batek ezar lezakeen kalte-ordainaren ordainketan parte hartzeko eskatzera irits daiteke.

Aukera hori AJAPEL -Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea- 30/92 Legeko 145.2 artikuluan dago berariaz araututa, eta hark gaitzen du diziiplina-prozedura irekitzeko, adierazi baitu dagokion administrazioak, kaltetutako pertsonen kalte-ordaina ordaindu dienean, bere agintariei eta bere zerbitzurako gainerako langileei doloagatik, erruagatik edo zabarkeria larriengatik izandako erantzukizuna eskatuko diela ofizioz.

Horregatik guztiagatik, langileen -zuzendarien eta enplegatuen- gai horri buruzko prestakuntza funtsezkoa da, informazio pertsonalaren tratamenduari eta tratamendu desegokiak ekar ditzakeen erantzukizun-arriskuari eusteari buruz kontzientziatzeko eta jardunbide egokiak izateko. Izan ere, prozesu penala irekitzea ekar dezake, Zigor Kodeko 197. artikuluko eta hurrengoetako sekretuak ezagutarazteko delituagatik.

B) BALIABIDEEN ARRAZOIZKO ERABILERARAKO PROTOKOLOA

Jarraian langileek BALIABIDEEN ARRAZOIZKO ERABILERA EGITEKO PROTOKOLO bat erakutsi da, garatu beharreko oinarritzko jarreretara hurbiltzeko. Ohartarazi behar da protokolo hau bide korporatiboak erabiltzeko jardunbiderik oinarritzkoenak baino ez dituela jaso eta aztertutako jardueraren garapenak behar duen prestakuntzan lehen fasea eta oinarritzkoena dela.

1. Zenbait jarrera hartu, hala nola informazio-fitxategiak gordetzeko sarraila-mekanismoak erabiltzea (tiraderak, armairuak eta bulegoetako ateak).
2. Eskuko paper-zorroak kodeen edo zenbaki bidezko adierazpenen bidez identifikatu.
3. Inprimagailuaren irteera-erretiluan eta jendearen eskura dauden tokietan edo bulegoetan (erakusmahaia, bilerak egin edo bisitak hartzen diren mahaia) informazio pertsonala duen agiri inprimaturik geratu ez dela egiaztatu.
4. Paper-birringailua erabili eta ez berrerabili datu pertsonalak dauzkan paperik.
5. Mahai garbiko politika. Atsedendietan, etenaldietan edo lanaldia amaitzean lanpostua uztean hura agiririk gabe utzi, horretarako ondo itxitako tiraderak edo artxibategiak erabiliz.
6. Pantailen edukia bistaratzea galarazi.
7. Telefonozko arretan informazio pertsonala ematea edo eskatzea saihestu, eta informazio horren eskaera laguntza ematen duten langileekin egin beharreko hitzorduetara bideratzen saiatu.
8. Lanaldia amaitzean eta lanpostutik tarte baterako alde egitean saioa itxi edo blokeatu.
9. Fitxategiaren arduradunaren berariazko baimenik gabe, edozein euskarritan (papera edo informatikoa) datu pertsonalak gordetzen dituen informazio-sisteman gordetako informazioa ez kopiatu eta bulegoetatik ez atera.
10. Norberaren pasahitza erabili, ez trukatu pasahitza lankideekin edo haiei hura ez eman, eta sistemak eskatutako maiztasunarekin aldatu.
11. Segurtasunaren arduradunari ezagutzen diren segurtasuneko gorabeheren berri eman.
12. Interneten erabilera arduratsuko jardunbideak hartu informazio-sistemei eta informazioari berari erasan diezaieketen orri ez seguruetan sartzeari ekiditeko.
13. Ez bidali datu pertsonalik posta elektronikoz, baimenduta egon ezean. Halaber, emakumeen aurkako indarkeriari lotutako datuei eta goi-mailako datu pertsonalei -pertsonek ideologiari, erlijioari, sinesmenei, arraza-jatorriari, osasunari edo bizitza sexualari buruzko datuak dauzkatenak- buruzko informazioa bidaltzeko, ezinbestekoa izango da bidalketa informazioa hirugarren pertsonak ulertu edo aldatu ahal izateko modukoa izatea galarazten duten mekanismoak erabiliz (enkriptazioa) egitea.

14. Mezu elektronikoak erabiltzaile bati baino gehiagori bidaltzen bazaizkie ezkutuko kopiako sistema (Bcc) erabili behar da, pertsona bakoitzak komunikazioaren gainerako alderdien helbideak eskuratu ahal izatea saihestuz.

Ohar honetan ez da sartzen e-mailak arloetako langileek ezagut ditzaketen posta elektronikoko helbideetara bidaltzea, helbide elektroniko korporatibo horiek erakundearen beraren jarduera kudeatu eta garatu xedez ezagutarazten baitira, eta eremua barnekoa baita, langileek ezagutzea egokia eta beharrezkoa denean. Azken finean, barneko eremuari dagokionez, ez litzateke beharrezkoa izango ezkutuko kopia erabiltzea langileen helbide pertsonalak sartzen ez badira.

5. **D**ATU PERTSONALAK
GORDEZKEKO EDO
ERABILTZEKO EPEA



5. INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEN DATU PERTSONALAK ERABILI ONDOREN, NOIZ ARTE GORDE EDO ERABIL DAITEZKE HAIEN DATU PERTSONALAK?

Legearen arabera, da datu pertsonalak dagozkion erakundearen esku dagoen fitxategian “mugarik gabe” gordetzea? Lehenbizi adierazi behar da galdera horri erantzuteko indarkeria jasan duten emakumeen datuak bildu eta tratatzeko posibilitateari buruz adierazi duguna gogoratu behar dela: bildu diren helburuari zuzenean lotutako datuak baino ezingo dira bildu eta tratatu, eta helburu hori ezingo da aldatu.

Hala, tratamenduko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datuak biltzeko helburuekin bateragarriak ez diren helburuetarako.

Beraz, oso garrantzitsua da hausnarketa hori hasierako unean egitea, tratamendu-prozesua zuzena izan dadin eta datu pertsonalak helburu-printzipioari lotuta gordetzea. Era horretan, datu pertsonalak deuseztatu egin behar dira bildu ziren helbururako beharrezkoak izateari uzten diotenean.

Erantzuna helburu-printzipio horren aplikazioak ematen du eta, beraz, indarkeria jasan duen emakumearen datuak bildu zituen erakundearen esku gorde ahalko dira haiek biltzeko helburuak dirauen bitartean. Egoera horretan emakume batek laguntzeko behar duen denbora organismoak ezarri behar du eta aldi hori amaitutakoan datuak deuseztatuko egingo dira. Halaber, fitxategia mugarik gabe gordearazten duen lege-mailako xedapenen bat badago, han jasotako datu pertsonalak modu horretan gordeko dira.

Alegia, kroniko ez bihurtzeko asmoa errespetatuz, laguntza luzeagoa edo esku-hartze erregularra behar duen pertsonaren egoera, arazoa konpondu delako, laguntza alde batera utzi nahi duelako, edo bere bizilekua erakundeak eskumenik ez duen beste toki batera aldatzen duelako, unean uneko arreta behar duen pertsonaren egoeratik bereizi behar da. Kasu horietan guztietan, laguntzaren helburua agortutakoan, pertsona onuradunen datuak deuseztatu behar dira. Laguntza iraunkorra edo denboran luzatua behar den kasuetarako datuak aldi luzeago batean gorde behar diren baloratu behar da.

Halaber, gerta daiteke indarkeria jasan duten emakumeentzako laguntzak deitzea, zeinek denboran iraupen jakin bat daukaten, adibidez, urtean deialdi bakarra egiten delako: eskabideak aurkezteko epe bat dago, balorazio epe bat eta onuradunei eman edo ukatu zaien jakinarazten zaie. Kasu horretan, deialdiaren helburua agortutakoan -hots, laguntza ematea- eta deialdi hori berrikusteko berariazko zailtasunik ez badago, onuradunen datuak deuseztatu egin behar ko dira. Datu horiek, blokeatuta bada ere, gordetzea beharrezkoa izan ezean, lege-mailako arau batek hala xedatu duelako edo zerbitzuak arreta hobea emateko antolamenduko irizpide batek hala aholkatzen duelako, gorde behar hori arrazoitua eta justifikatua bada.

Era berean, halako deialdietan kontuan hartu beharko da emakume onuradunen publizitate mugatua; izan ere, aldizkari ofizialean edo webgunean argitaratzeak orokorrean konfidentzialtasun-printzipioa urratuko luke eta DBLOn eta hura garatzeko Erregelamenduan halako datu pertsonalen segurtasunari buruz xedatutakoa ere urratuko luke.

Publizitate-sistema hori, hura mugatua bada ere, banaka baloratu behar da, eskuratzeko posibilitateak eta batez ere hirugarren pertsonen onuradun baten informazioa eskuratzeko ezintasuna aztertuz.

Erakundeek dauzkaten datu pertsonalak etengabe eguneratuta egotea lortzeko, gomendagarria da haiek datuok berrikusteko protokolo bat ezartzea, adibidez, indarkeria jasan duen emakumearekin aldi berean behin kontaktatuz haren egoera eta oraindik zerbitzuaren laguntzaren bat behar duen ezagutzeko. Datuak eguneratzeko prozesu horietan, esaterako emakumearekin aldi berean kontakta daiteke (hilero edo urtero) haren egoera eta administrazio eskudunak eskainitako edozein zerbitzu jaso dezakeenetz berretsi ahal izateko. kontaktu horretan, kome-nigarria litzateke emakumeari bere datu pertsonalak deuseztatzeko aukera duela jakinaraztea.

Kontaktuan jartzea posible ez balitz, esaterako, udalerrian erroldatuta jarraitzen ez duelako, haren helbideak, telefonoak edo kontaktatzeko bestelako moduak balio ez dutelako, edo kon-taktatzeko saioak huts egin duelako, edo haren berririk izan gabe arrazoizko denbora igaro de-lako, datuak ofizioz deusezta daitezke.

Gerta daiteke administrazio-zerbitzu batek deuseztatzeko zalantzak agertzea, geroago fitxa-tegian dagoen informazioaren beharra izan dezakeelako. Kasu horietan, eta helburua justifika-tuta badago, posible da datuak gordetzea, baina gogoan hartu behar dugu beti ezinezkoa dela datuak edukitze hutsagatik, edo “badaezpada” gordetzea.

Datuak gordetzeko denboraren zehaztapena erakundeak ezarri behar du eta aldi hori amai-tutakoan deuseztatu egingo ditu datuak. Halaber, kontuan hartu behar da legezko edo kontra-tuzko errekerimenduak egon daitezkeela edo tratamenduak berak eraginda fitxategia epe jakin batean gordearazten duten erantzukizunak, hala nola osasun-legediak, zeinek historia kliniko-ak gutxienez bost urtez gordearazten dituen.

Kasu horietan, datuak blokeatu egin behar dira epe horiek igaro arte, eta orduan geratuko dira datuak behin betiko deuseztatuta, suntsipen fisikoaren edo datu horien titularra identifi-katzea ahalbidetzen ez duten disoziazio-tekniken bidez, haiek identifikatzeko erreferentziak eza-batuz.



6. **A**RCO ESKUBIDEAK BERMATZEA



6. NOLA BERMATZEN DA ARCO ESKUBIDEEN ERABILERA?

ARCO eskubideak deritzenak DBLOk pertsonen euren datu pertsonalak kontrolatu ahal izatea bermatzeko darabilen -eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko- eskubide multzoa da.

Eskubide horien erabilera guztiz pertsonala da eta, beraz, datuen titularrak, haren legezko ordezkariak edo haren ordezkaritza daukala frogatzen duen beste pertsona fisiko batek baino ezin ditu erabili. Pertsonari eskubide horien berri eman behar zaio bere datu pertsonalak biltzeko unean.

Eskubide horiek zuzen betetzeko zailtasuna ez dator prozeduratik bertatik dator, legez tasatuta baitago, prozedura hori zuzen betetzetik baizik; izan ere, eskaera bakoitzak okupazio pertsonalizatua, kasuan kasuko egiaztapena, epe laburreko ebazpena, erantzun egokia eta denbora eta ardura jartzea eskatzen ditu.

LEHENENGO GALDERA:

NOIZ JAKINARAZI BEHAR DIZKIOGU INDARKERIARI AURRE EGITEN DION EMAKUMEARI BERE DATU PERTSONALEI EMATEN ZAIEN TRATAMENDUARI LOTUTA DITUEN ESKUBIDEEI BURUZ?

Aipatu berri dugunez, datuak babesteko araudiak zenbait eskubide aitortu dizkie, ARCO eskubideak deritzenak, datu pertsonalak eskatzen zaizkien pertsona fisikoei, zeinen bidez euren datuen gaineko kontrola izan dezaketen.

ARCO eskubide horiek datu pertsonalak biltzen dituen erakundeak edo entitateak haiek biltzeko erabilitako edozein bidez (telefonozko arreta, aurrez aurrekoa, maila, webgunea edo aplikazio mugikorra) datu pertsonalak biltzen diren unean jakinarazi behar dira, pertsonari bere datuak bildu aurretik jakinaraz dakion ARCO eskubideak erabiltzeko posibilitatea daukala eta zer bide daukan haiek erabiltzeko.

ARCO eskubide horiek erabiltzaileen eskura jarritako bide erraz eta doakoen bidez erabili behar dira, eta haiek ebazteko epe zehatzak eta laburrak egongo dira. Horregatik, haiek erregulatzeko prozedurak ezarri behar dira. Eskatzailearen ustez gai honi buruz dituen eskubideei indarrean dagoen arauaren arabera formak eta epean erantzun ez bazaie, edo erantzuna desegokia izan bada, kontrolerako agintarien babesa bila dezake; euskal erakundeei dagokienez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB) da hura.

Eskubide horien erabilera bermatzeko, administrazioaren erakundeek eta entitateek inprimakiak eman behar dizkiete euren langileei erabiltzaileen eskura egon daitezen eta, era berean, prestakuntza eman behar die lagundutako pertsonen horri buruz behar den informazioa ja-

kinarazi ahal izateko. Bestalde, zerbitzuetatik pertsona fisikoen datuekin lan egiten duten langileek jakin behar dute informazio hori eman behar dutela, pertsonen eskura eskubide horietako bakoitzaren inprimakiak eduki behar dituztela, paperean edo haiek ateratze ahalbidetzen duen aplikazio informatikoan, zein zerbitzuak datu pertsonalak biltzeko dituen bide guztietan, hala nola posta elektronikoa, webgunean edo aplikazio mugikorrean, egonez gero.

BIGARREN GALDERA:

ZER PROZESU JARRAITU BEHAR DUGU ARCO ESKUBIDE PERTSONALA ERABILTZEN BADA?

Laguntza eman diogun emakume batek ARCO eskubide bat badarabil, administrazio-erakundeak edo -zerbitzuak jarduteko protokolo tasatua izan behar du; protokolo horretan eskubidea jasotzen denetik ebazpena jakinarazi arte jarraitu beharreko urrats guztiak ezarri behar dira.

ARCO eskubide bat (norberaren datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo deuseztatzeko, edota aurka egiteko eskubideak) erabiltzeko eskaera jasotzen duen langileek burutu beharreko lehen urratsa eskaera bidali beharreko erakundea edo pertsona zein den jakitea da. Ebazteko epeen laburtasunaren aurrean (hilabete eskuratzeko eskubidea ebazteko eta hamar egun zuzendu, deuseztatu eta aurka egiteko eskubideak ebazteko) analisiak duen konplexutasuna eta behar duen denbora dela-eta, erakundeek ARCO eskubideei erantzuteko sail bat izan ohi dute, eta profesional adituak arduratu ohi dira. ARCO eskubideei erantzuteko ezarritako zerbitzuan eskuratzeko eskaera jasotzen denean, zigilua edo sinadura eta jasotako data jarri behako dira, erantzuteko epea jasota edukitzeko, eta eskaera hura tratatu eta ebazteko eskumena duten langileei igorriko die; langile horiek, eskaera jasotakoan, gutxieneko baldintzak betetzen dituen egiaztatuko du ,:

- 1) Interesdunaren izen-abizenak.
- 2) Haren eta, beharrezkoa bada, hura ordezkatzeko duenaren NANaren, pasaportearen, AIZren edo haren identitatea askitasunez frogatzen duen beste edozein identifikazioaren fotokopia. Eskaera egiteko bide telematikoak erabili badira identifikatzeko sinadura elektronikoa balioko du.
- 3) Jakinarazpenetarako helbidea.
- 4) Eskaeraren data eta sinadura.
- 5) Eskaeraren edukia.

Eskaerak ez baldin baditu lehenengo paragrafoan aipatzen diren baldintzak betetzen, fitxategiaren arduradunak dauden akatsak zuzentzeko eskatuko du. Zuzenketak egiteko 10 eguneko epea emango da.

Azpimarratu egin behar da ARCO eskubide horien erabilera guztiz pertsonala dela eta, beraz, interesdunak baino ezingo duela eskatu, ordezkaria ere izenda dezakeela kontuan hartuta. Horrexegatik, eskubide horiei erantzuteko eskumena duten langileek inguruabar hori berretsi beharko dute eta eskaera ezetsi bestela.

ARCO eskubideei erantzuteko langileek interesdunaren identitatea berretsiko dute, eta hura egiatan agertzen dela erakundearen datu-baseetan, eta eskatzailearen honako informazioa eskuratuko du:

- Datuen informazioa (erregistratuta dauden datuak).
- Datuen jatorria.
- Datuekin egin diren edo egitea aurreikusten diren komunikazioak.

Informazio hori eskuratutakoan, ARCO eskubideei erantzuteko langileek informazioa bidaliko diote eskatzaileari, posta ziurtatuaren bidez edo hartu izana jasota uztea ahalbidetzen duen beste edozein komunikazio bideren bidez -esaterako, posta elektronikoa-, eta prozesuari eusten dion dokumentazioa gordetzeko erantzukizuna izango dute.

7. **L** ABURPENA





7. LABURPENA

- INFORMAZIO-BILKETARI BURUZ. Indarkeria jasan duten emakumeen informazioa biltzean, zorrozki bete behar dira emakumeei eman beharreko informazioari buruzko jarraibideak.
- INFORMAZIOA BILTZEKO BEHARREZKO BALDINTZA. Informazioa bildu aurretik, datu horiek gordeko diren fitxategia aitortu eta eratu behar da.
- BAIMENARI BURUZ. Baimena informazioa bildu aurreko mekanismoa izango da, eta gomendio orokor gisa, berariaz eta idatziz jaso behar da, eta baimen hori geroago ziurtatu ahal izateko gordeko da.
- DATUEN TRATAMENDUARI BURUZ. Kalitate- eta helburu-printzipioak errespetatu behar ditu, ez da bilduko tratamenduarekin lortu nahi den helbururako behar den baino datu gehiagorik.
- DATUAK LAGATZEARI BURUZ. Hiru kasutan baino ez da posible izango: 1) datu pertsonalen titularrak baimena emanez gero 2) legeak gaituz gero (lege-maila duen arau batek berariaz gaituta egonda) edo 3) datuak arlo berberetan diharduten organoen artean komunikatzen direlako.
- DATUAK GORDETZEARI BURUZ. Datuak behar den segurtasunez gorde behar dira; indarkeria jasan duten emakumeen kasuan, legeak aurreikusitako maila gorena behar du, hots, goi-mailako segurtasun-neurriak.
- DATUAK DEUSEZTATZEARI BURUZ. Datuak ezin dira erakundearen eskura egon hasiera batean bilatu zen helbururako behar-beharrezkoa den denboratik harago, eta helburu hori betetzen denean deuseztatu egingo dira.
- ARCO ESKUBIDEAK (ESKURATU, ZUZENDU, DEUSEZTATU EDO AURKA EGITEKO ESKUBIDEAK) ERABILTZEARI BURUZ. Langileek, alde batetik, informazioaren titularrek eskubide pertsonal horiek erabiltzeko erakundeak ezarritako protokoloa ezagutu behar dute eta, bestetik, behar den informazioa eskatzen dutenei jakinarazten eta eskaerak haiek ebazteko ezarritako organoari edo zerbitzuari bidaltzen jakin behar dute.



8. BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTAZIOA



8. BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTAZIOA

BIBLIOGRAFIA

Datuak Babesteko Espainiako Agentzia. Segurtasun-gida. 2014.

Datuak Babesteko Madrilgo Erkidegoko Agentzia. Toki Administrazioentzako Datu Pertsonalen Babesa.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa. Las Luces Funcionan... Cumpliendo con la Protección de Datos Personales, 2007.

Aparicio Salom, J. Estudio sobre la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal. Aranzadi, 2009.

Cabrera Mercado, Rafael eta Carazo Liébana, M^a José. Análisis de la Legislación Autonómica sobre Violencia de Género. Berdintasunaren Ministerioa, 2010.

Colin J. Bennet. En Defensa de la Privacidad.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. La Importancia del Derecho a la Información de las Víctimas de Violencia de Género en la Ley Orgánica 1/2004 de 28 de diciembre de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género.

95/46/EE Zuzentarauko 29 artikulua en Taldearen lan-dokumetuak.

El Derecho a la Protección de Datos Personales en la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea: análisis crítico. Revista de Derecho Comunitario Europeo.

Fernández Salmerón, M. Algunas Reflexiones acerca de la Protección de Datos en las Administraciones Públicas.

Goizueta Vertiz, J., González Murua, A. R. eta Pariente de Prada, I. El Espacio de Libertad, Seguridad y Justicia: Shengen y Protección de Datos. Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco, 2014.

Guía de los Derechos de las Mujeres Víctimas de la Violencia de Género. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

Guichot Reina, E. Publicidad y Privacidad de la Información Administrativa. Thomson-Civitas.

Guichot Reina, E. Acceso a la Información y Protección de Datos. Estado de la cuestión.

Guichot Reina, E. Datos Personales y Administración Pública, de. Thomson-Civitas.

- Guichot Reina, E. La Comunicación de Datos Personales en Poder de la Administración. Aspectos Generales y Especialidades Derivadas de la Comunicación por Vía Telemática.
- Guichot Reina, E. La Potestad Sancionadora en Materia de Protección de Datos: Aproximación General.
- Guichot Reina, E. La Potestad Sancionadora de la Agencia Española de Protección de Datos. Thomson-Aranzadi.
- Lacaste, R., Sanmartín, E. eta Velasco, J. Auditoría de la Protección de Datos. Bosch.
- Messia de la Cerda, J. A. La Cesión de Datos de Carácter Personal, Civitas argitaletxea.
- Saiz Peña, C.A. Aproximación a los Aspectos de Protección de Datos, Riesgos Contractuales y Análisis de Riesgos de Seguridad de la Información.
- Serrano Pérez, M. M. El Derecho Fundamental a la Protección de Datos, Derecho Español y Comparado. Thomson-Civitas argitaletxea.
- Troncoso Reigada, A. La Contribución de las Agencias Autonómicas al Derecho Fundamental a la Protección de Datos.
- Troncoso Reigada, A. La Protección de Datos Personales: en Busca del Equilibrio. Tirant lo Blanc argitaletxea.
- Valero Torrijos, J., Fernández Salmerón, M. eta Parra Sáez, S. Crónica sobre la Protección de los Datos Personales en las Administraciones Públicas.
- Villaverde Menéndez, I. Protección de Datos Personales, Derecho a Ser Informado y Autodeterminación Informativa del Individuo.

INDARKERIAREN AURREKO PROTOKOLOAK ETA JARDUTEKO GIDAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN.

- EUDEL. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeen arreta hobetzeko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibideen gida.
- Abanto-Zierbena. Genero-indarkeriaren protokoloa.
- Balmaseda. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko jarduera-protokoloa.
- Basauri. Basaurin sexu-erasoak eta tratu txarrak jasan dituzten emakumeen arretarako erakundearen arteko koordinaziorako udal-protokoloa.

Bilbo. Genero-indarkeria egoeretan Gizarte Ekintza, Herritarren Segurtasun eta Babes Zibil eta Emakume eta Garapenerako Lankidetzaren Sailen artean arreta integralerako koordinatzeko udal-protokoloa.

Busturialdea-Gernika-Lumo. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko eskualdeko akordioa.

Donostia-San Sebastian. Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeekin esku hartzeko udal-protokoloa.

Durangaldea (Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrio). Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen arreta hobetzeko Durangaldeko erakundearen arteko koordinazio-protokoloa.

Eibar. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeen arreta hobetzeko jarduerarako eta erakundearen arteko koordinaziorako toki-protokoloa.

Elgoibar. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoaren biktimak diren emakumeen arreta hobetzeko udal-jarduerarako eta erakundearen arteko koordinaziorako protokoloa.

Erandio. I Emakumeen aurkako indarkeriarako protokoloa genero-indarkeria eta eraso sexualak koordinatu eta artatzeko.

Ermua. Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoaren biktimak diren emakumeen arreta hobetzeko jarduerarako eta erakundearen arteko koordinaziorako toki-protokoloa.

Galdakao Emakumeen aurkako indarkeria kasuetan erakundearen arteko koordinaziorako toki-protokoloa.

Hernani Emakumeen Aurkako Indarkeriari Erantzuteko Udalerri-mailako Protokoloa.

Legazpi. Indarkeria Arreta Protokoloa.

Leioa. Genero-indarkeriaren biktimen prebentzioan eta arretan koordinatzeko protokoloa.

Muskiz. Indarkeria sexistaren biktimak diren emakumeen arreta hobetzeko jarduerarako eta erakundearen arteko koordinaziorako toki-protokoloa.

Ondarroa. Erakundearen Arteko Jarduerarako eta Koordinaziorako II Udal Protokoloa. Genero Indarkeriaren eta Sexu Erasoaren Biktimak Diren Emakumeen Arreta Hobe Emateko.

Orozko. Tratutxo txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeen arreta integralerako udal-protokoloa.

Santurtzi. Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoaren biktimak diren emakumeen arreta hobetzeko jarduerarako eta erakundearen arteko koordinaziorako protokoloa.

Tolosa. Genero-indarkeriak eta sexu-erasoek erasandako emakumeen arreta hobetzeko jarduerarako eta erakundearen arteko koordinaziorako lehen toki-protokoloa.

Uribe Kosta. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko koordinazio-protokoloa.

Urola Garaia (Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga). Erakundeen Arteko Koordinaziorako Urola Garaia Udal Elkartearen I Protokoloa Genero Indarkeriaren eta Sexu Erasoen Biktima Diren Emakumeei Arreta Hobea Emateko.

Vitoria-Gasteiz. Etxeko eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin esku hartu, bideratu eta jarraitzeko udal-protokoloa.

INFORMAZIO PERTSONALAREN SEGURTASUNAREN BABESARI BURUZKO DOKTRINA EZARTZEN DUTEN KONTROLEKO AGINTARIEN -DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIA (AEPD) ETA DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA(DBEB)- EBAZPENAK ETA JARRAIBIDEAK ETA HONAKOEI BURUZKOAK

DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIAREN TXOSTENAK:

453/2006 AEPD txostena, genero-indarkeriari buruzko datuak agintaritza judizialari lagatzeari buruzkoa.

453/2006 txostena, genero-indarkeria jasan duten emakumeen datuen sekretuari buruzkoa

183/2009 AEPD txostena, erasotzaileek ezagutu ahal izatea saihesteko langile publikoek datu pertsonalak eskuratzeko murrizketari buruzkoa (183/2009 AEPD txostena).

320/2008 AEPD txostena, automatizatu gabeko fitxategietako segurtasun-neurriei buruzkoa

21/2009 AEPD txostena, ekipamendu informatikoan sartzeko pasahitz bera erabiltzeari buruzkoa.

183/2009 AEPD txostena, genero-indarkeriari buruzko fitxategietako segurtasun-neurriei buruzkoa.

584/2009 AEPD txostena, goi-mailari aplikatu beharreko segurtasun-neurriei buruzkoa

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN TXOSTENAK:

2011/1/20ko DBEB txostena, Euskadiko genero-indarkeriaren biktimen arretaren koordinazio-mekanismoen legezkotasunari buruzkoa.

11/10/27ko DBEB txostena, tratu txarrak jasandako emakumeen arretarako esku-hartze eta bideratze mekanismoak eta prozedurak (11-029 Irizpena).

2010/8/9ko DBEB irizpena, gizarte-zerbitzuen arloko eskumen berdintzat edo berberatzat hartzeari buruzkoak.

12/2/14ko DBEB irizpena, komunikazio-fitxategien segurtasun-mailari buruzkoa.

12/7/16ko DBEB irizpena, Udalen eta Lanbideren arteko lankidetza-hitzaumenari buruzkoa.

12/7/26ko DBEB irizpena, lan-poltsetako kideen bereziki babestutako datuak ezagutzeari buruzkoa.

12/11/20 eta 9/5eko DBEB irizpenak, osasuneko datuak lagatzeari buruzkoa.

12/9/11ko DBEB irizpena, hautapen-prozesuan datu pertsonalak eskuratzeari buruzkoa.

2013/5/9 DBEB irizpena, herri-administrazioen informazioa telefonoz eskuratzeari buruzkoa

13/7/23ko DBEB irizpena, erakundeen artean datu pertsonalak lagatzeari buruzkoa.

13/8/26ko irizpena, administrazio-espedientea eskuratzeari buruzkoa.

13/9/19ko DBEB irizpena, doako justiziaren onuradunen datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa.

13/11/26ko DBEB irizpena, artxibategietatik eta erregistrotik datozen datu pertsonalak eskuratzeari buruzkoa.

13/11/30eko irizpena, datuak estatistiketarako emateari buruzkoa.

13/12/21eko DBEB irizpena, lankidetza-hitzaumen arabera datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa.

13/12/30eko DBEB irizpena, zentro soziosanitarioek historia klinikoa eskuratzeari buruzkoa.

14/2/24ko DBEB irizpena, sarrera- eta irteera-erregistroa lagatzeari buruzkoa.

DBEBren datuak babesteko jardunbide egokien eskuliburua: betebeharren dekalogo.



9. ERMINOEN GLOSARIOA



9. TERMINOEN GLOSARIOA

Autentifikazioa: erabiltzaile baten identitatea zein den egiaztatzeko prozedura.

Blokeoa: datu pertsonalak identifikatu eta gordetzea, herri-administrazioek, epaileek eta auzitegiek erabileraren ondoriozko balizko erantzukizunei erantzuteko eta erantzukizun horien preskripzio-epean zehar bakarrik ez bada, beste inork erabiltzea eragozteko xedez.

Datuak lagatzea: datu pertsonalen titularra den pertsona fisikoa ez den pertsona bati datuak edozein eratan ezagutaraztea.

Tratamendurako datu pertsonalak lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen legezko eginkizunekin lotura zuzena duten helburuak betetzeko baino ezingo zaizkie jakinarazi hirugarren pertsona bati -fisikoa edo juridikoa-, eta lehenago informazioaren titularraren baimena behar da.

Baimena: askatasunez egindako borondatezko adierazpen argia eta zehatza, pertsonak bere datu pertsonalak tratatzeko baimena emateko.

Babes-kopia: fitxategi automatizatu bateko datuen kopia, berreskuratzeko aukera ematen duen euskarri batean

Datu pertsonalak: identifikaturiko edo identifika daitezkeen pertsona fisikoen gaineko edozein informazio.

Datu pertsonalen jasotzailea edo lagapen-hartzailea: datu pertsonalak ezagutarazten zaizkion izaera publikoko edo pribatuko pertsona fisikoa edo juridikoa.

Tratamenduaren arduraduna: fitxategiaren arduradunaren kontura datu pertsonalak tratatzen dituen izaera publikoko edo pribatuko pertsona fisikoa edo juridikoa.

Fitxategia: irizpide jakin batzuen arabera eskura daitezkeen datu pertsonalen multzo antolatua eta egituratu oro. Irizpiderik gabe datuak metatze hutsa ezingo da fitxategizat hartu legearen ondorioetarako.

Fitxategia automatizatua da datuak daukaten informazioa tratatzeko dezifratzeko gai diren tresnak behar dituzten gailu informatikoetan (disko gogorrak, ordenagailuak, DVDak...) gordeta daudenean; fitxategi automatizatuak esaten zaie.

Fitxategia eskuzkoa da (automatizatu gabea) datuak tratamendurako tresnarik behar ez duten euskarrietan gordeta badaude, hala nola paperean; fitxategi automatizatu gabea edo eskuzkoa esaten zaio (fitxategia pertsona fisikoei lotutako berariazko irizpideen arabera egi-

turatuta badago eta datu pertsonalak gehiegizko esfortzurik gabe eskuratzea ahalbidetzen badute). Definizio horretan sartzen dira era egituratuan papereko agiriak, hala nola, esaterako, hautagaien curriculum vitaeak, biltzen dituzten artxibategiak.

Fitxategia mistoa da informazio bera era automatizatuan eta eskuzkoan biltzen denean.

“Informazio”aren kontzeptu horretan zenbaki-datuak, alfabetikoak, grafikoak, fotografikoak eta akustikoak jasotzen dira; kontzeptu horrek, “identifikaturiko edo identifika daitezkeen” pertsona fisikoei egindako aipamenarekin batera, datu pertsonalen kontzeptua pertsona fisiko bati lotu dakiokkeen informaziora mugatzen du, hura ezagutu, lokalizatu eta, azken batean, identifikatu edo gainerako pertsonen artean identifikagarri bihurtu ahal izateko moduan. Hortaz, eta gaiari egindako lehen hurbilketa bezala, datu pertsonal baten aurrean gauden identifikatzeko funtsezko elementua honakoa da: informazioak, berez edo konbinatuta, pertsona jakin baten datuak ezagutzea ahalbidetzea, daturen baten bidez zuzenean identifikatuta dagoelako, edo beste bideren baten bidez identifikatua izan daitekeelako.

Aldi baterako fitxategiak: erabiltzaileek edo prozesuek sortutako laneko fitxategiak, beharrezkoak direnak noiz edo noizko tratamendu baterako, edo tarteko urrats gisa datu pertsonalen tratamendua egiterakoan.

Jendeak eskuragarri dituen iturriak: DBLOren ondorioetarako jendeak eskuragarri dituen iturriak dira arau mugatzaile batek galarazita egon gabe, edo, kasuan kasu, kopuru bat ordainduta eta bestelako baldintzarik gabe, edozein pertsonak kontsulta ditzakeen fitxategiak. Jendeak eskuragarri dituen iturriak soil-soilik honako hauek izango dira: sustapeneko erroldak; telefono-zerrendak (horiei buruzko arauak aurreikusitako baldintzetan); eta izena, titulua, lanbidea, jarduera,-maila akademikoa, helbidea eta taldea baino adierazten ez dituzten lanbide-taldeetako pertsonen zerrendak. Halaber, jendeak eskuragarri dituen iturritzat hartuko dira egunkari eta aldizkari ofizialak eta hedabideak.

Identifikazioa: erabiltzaile baten identitatea ezagutzeko prozedura.

Segurtasun-neurriak: datu pertsonalen segurtasuna bermatzen duten eta datu horien eraldaketa, galera, eta baimendu gabeko tratamendu edo eskuraketa galarazten dituzten neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak, teknologiaren egoera, gordetako datuen izaera eta arriskuak kontuan izanik, arriskuak bai gizakiek bai ingurune fisiko edo naturalak sortutakoak izan.

Ez da datu pertsonalik erregistratutako erregelamenduz zehazten diren segurtasun baldintzak eta tratamenduari, lokalei, ekipoei, sistemei eta programei buruzko baldintzak betetzen ez dituzten fitxategietan.

Pertsona interesatua edo ukitua: tratatzen diren datuen titularra den pertsona fisikoa.

Disoziazio-prozedura: banandutako datuak eskuratzeko aukera eskaintzen duen datu pertsonalen tratamendu oro.

Fitxategiaren arduraduna: tratamenduaren helburua, edukia eta erabilera erabakitzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa -publikoa nahiz pribatua- edota administrazioko organoa da.

Fitxategiaren arduradunak dauzkan betebeharrei dagokienez, berak erabakiko du fitxategia sortzeari eta fitxategi horretan gordetako datuen helburuari, edukiari eta erabilerari buruz, eta, halaber, pertsona fisikoei erantzun behar die pertsona arduradunaren aurrean euren ARCO eskubideak erabiltzen dituztenean eta fitxategiaren segurtasun-neurriak ere, oinarrizko mailako, maila ertaineko zein goi-mailakoak izan, hartu beharko ditu.

Segurtasun-arduraduna: fitxategiaren arduradunak formalki halaxe eman diolako, segurtasun-neurriak koordinatzeko eta kontrolatzeko eginkizuna bere gain duen pertsona (edo pertsonak). Haren eginkizuna enpresaren barruan informazio sentikorra babestea eta zainetzea da.

Informazio-sistema: datu pertsonalak tratatzeko erabiltzen diren fitxategi, tratamendu, programa, euskarri eta, hala badagokio, ekipoen multzoa.

Tratamendu-sistema: informazio-sistema bat antolatzeko edo erabiltzeko modua. Tratamendu-sistemaren arabera, informazio-sistemak automatizatuak, automatizatu gabeak edo partzialki automatizatuak izango dira.

Euskarria: datuak biltegitratzen dituen objektu fisikoa, edo informazio-sistema batean tratatzeko modukoa den objektua; bertan datuak grabatu eta bertatik datuak berreskuratzeko aukera egongo da.

Ezabatzea: blokeatutako datu pertsonalak fisikoki ezabatzea, datu horiek blokeatuta gorde ziren bitarteko tratamenduak sortutako balizko erantzukizunen preskripzio-epea igarotakoan.

Datu pertsonalen tratamendua: datuak biltzeko, grabatzeko, gordetzeko, prestatzeko, aldatzeko, blokeatzeko eta ezabatzeko, bai eta komunikazioetan, kontsultetan, interkonexioetan eta transferentzietan sortutako datuak lagatzeko ere aukera ematen duten eragiketa eta prozedura teknikoak, automatizatuak edo automatizatu gabeak izan daitezkeenak.

DBLOren babespeko datu pertsonalen tratamenduaren aurrean gaudela pentsatzeko, deskribatutako eragiketak automatizatuta egin behar dira edo, eskuz egiten badira, datu pertsonalak fitxategi batean gorde behar dira, fitxategia datu ordenatuen multzoa bezala ulertuta.

Honakoak dira, besteak beste, tratamenduaren adibideak:

- inskripzio-eskabideko inprimakiak biltzea.
- aplikazio informatiko batean (fitxategia) erabiltzaile batek gizarte langile batekin el-karrizketatzeko adostutako hitzordua grabatzea.
- bildutako informazioaren bidez datu gehiago eskuratzea (laguntza-baliabide bate-an edo bestean kalifikatzea).
- bildutako datu berrien bidez dagoen informazioa fitxategi batean eguneratzea.
- fitxategi batean dauden datuak ezabatzea.
- fitxategi bateko datuen kontsulta hutsa
- hirugarren pertsona fisiko edo juridiko bati pertsona fisiko baten datuak eskurat-zen uztea, edozein komunikazio, kontsulta, interkonexio edo transferentzia mota erabiliz (erabiltzaile talde baten enpresa hornitzaile edo laguntzaile bati bidaltzea jarduera bat egiteko).

Erabiltzailea: datuak edo baliabideak eskuratzeko baimena duen pertsona edo prozesua. Erabiltzaileztat hartuko dira erabiltzaile fisiko bat identifikatu beharrik izan gabe datuetara edo baliabideetara sartzeko baimena ematen duten prozesuak.

E RANSKINAK





ERANSKINAK

1. ERANSKINA: DATU PERTSONALAK JASO ETA LAGATZEKO BAIMEN INFORMATUAREN KLAUSULA

(ZERBITZUAREN IDENTIFIKAZIOA ETA LOGOA)

Nik, andereak, zenbakidun NANA/Pasaportea/Egoitza-baimena/Beste identifikazio-agiri bat duenak, agiri honen bidez, berariaz adierazten dutSail/Foru Aldundi/Udal/Mankomunitateko langileek honako edukien berri eman didatela:

1. Nire datu pertsonalak izeneko fitxategi batean sartu eta tratatuko direla, fitxategi horren titulartasuna helbidea(e)(a)n duen Sail/Foru Aldundi/Udal/Mankomunitatearena dela, eta horren helburua niri eta nire mendeko pertsonen laguntza integrala emateko -emakumeen aurkako indarkeriari aurre egin behar diogunoi laguntza emateko- behar diren datu pertsonalak kudeatzea dela.
2. Baimen hori emateari uko egiteko eskubidea daukadala, uko egiteak zer ondorio izan ditzakeen ere jakinarazita.
3. Sail/Foru Aldundi/Udal/Mankomunitatearen aurrean eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak (ARCO eskubideak) doan erabili ahalko ditudala, arestian adierazitako helbidera "datuen babesari" dioen erreferentzia jarrita komunikazio bat bidaliz, edo Sail/Foru Aldundi/Udal/Mankomunitatean horretarako prestatutako inprimakiak betez edo posta elektronikoen bidez.
4. Informazio horrek datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak prestatzen lagunduko duela eta estatistika- eta ikerketa-helburuetarako erabili ahalko dela.
5. Nire datuak datuen babesari buruzko araudian eskatzen den konfidentzialtasunarekin eta bertan eskatutako segurtasun-neurriekin tratatuko direla.
6. Adierazitako aurrekari guztiei buruz behar bezala informatu nautela.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut..... (eguna).

Emakumearen sinadura.

Lagundu duen pertsonaren identitatea eta sinadura bertaratzeko zioa jasota utziz.

DATU PERTSONALAK LAGATZEKO BAIMEN INFORMATUA

Halaber, honakoa ere adierazten dut: nire datu pertsonalak agiri honen atzealdean zerrendatutako erakunde publikoei edo pribatuei jakinarazi ahalko zaizkiela jakinarazi didate (6), zeina berariaz adierazten dudan, niri zein nire mendeko pertsonen laguntza integrala emateko xedez, eta legeak agindutakoaren arabera egin daitekeen lagapenaren kalterik gabe.

Horrekin guztiarekin ados egonda, askatasunez ematen dut nire baimena helburu horietarako behar diren datu pertsonalak agiri honen atzealdean aipatu erakundeen alde lagatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut (7).

Data eta emakumearen sinadura.

Lagundu duen pertsonaren identitatea eta sinadura bertaratzeko zioa jasota utziz.

BAIMEN INFORMATUA ADINGABEAK EGONEZ GERO

Nire alabak 14 urte baino gutxiago izanda, haren ama/tutorea naizen aldetik, baimena ematen dut haren datu pertsonalak biltzeko eta aipatu erakundeei lagatzeko, eta haiek aipatu ondorioetarako eta helbururako tratatzea baimentzen dut.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut.

Data eta emakumearen sinadura.

Lagundu duen pertsonaren identitatea eta sinadura bertaratzeko zioa jasota utziz.

(6) Oso garrantzitsua: puntu honetan laguntzaren helbururako datuak lagako edo laga ahalko zaizkien erakundeen zerrenda adierazi behar da. Erakunde horren aipamenaren aurrean interesdunak informazioa zer administraziori edo zerbitzuri adieraz ahal izateko laukitxo bat jarri behako da (ikus 92. orrialdea). Laukitxo hori eskumena duten langileek markatu behar dute emakumearen laguntza premiak aurreikusiz. Teknikariek mekanikoki markatu behar dituzte laukitxoak, euren ezagupenak eta esperientziak adierazten dietenean emakume bakoitzarentzako laguntzak beharko dituen zerbitzuak izango direla eta erakundeen, pertsonen edo entitateen artean datuak laga beharko direla; jardun hori era arin eta dinamikoan sartzeko da arretako eta aholkularitzako jardunean eta zerbitzuan artatutako emakumeen eskubide pertsonalekiko erabateko errespetua bermatzen du. Geroago beharrezko bihurtzen den lagapenen bat jaso ez bada, agiria berriz egin beharko da eta hor baimen berri hori jaso, sinatu, eman eta sinatutako kopia gordetzeko.

(7) Sinatu ondoren agiriaren kopia bat egin beharko da, datu pertsonalak lagatzeko markatutako aukerak jasotzen dituen atzealdea barne.

BAIMEN INFORMATUA GRABAKETA EGINEZ GERO (8)

Informazio-bilketa dokumentatzeko hura audio/bideo/audio-bideoko euskarrian erregistratuta geratu dela jakinarazi didate.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut.

Data eta emakumearen sinadura.

Lagundu duen pertsonaren identitatea eta sinadura bertaratzeko zioa jasota utziz.

(8) Klausula hau hautazkoa da, informazioa audioa edota bideoa grabatzeko euskarrietan biltzen bada. Kasu horretan, aipamen berezia sartu beharko da grabaketa hori eta adierazitako edukia baimentzeko.

ATZEALDEA

Esku-hartze integral eta koordinaturako nire datuak markatutako erakundeei lagatzea baimentzen dut.

- ☐ Eusko Jaurlaritza
 - ☐ Segurtasuna (Ertzaintza)
 - ☐ Gizarte Politikak
 - ☐ Etxebizitza
 - ☐ Justizia
 - ☐ Osasuna (Osakidetza)
 - ☐ Hezkuntza
 - ☐ Enplegua (Lanbide)
 - ☐ Berdintasuna (Emakunde)
 - ☐ Arartekoa
- ☐ _____ko Foru Aldundia
 - ☐ Gizarte Gaiak
 - ☐ _____ harrera-etxea
 - ☐ Zerbitzu juridikoa
 - ☐ Zerbitzu psikologikoa
 - ☐ Haurren zerbitzua
 - ☐ Berdintasun-zerbitzua
 - ☐ _____ko/go udal-zerbitzuak
- ☐ Gizarte Gaiak
 - ☐ _____ harrera-etxea
 - ☐ Zerbitzu juridikoa
 - ☐ Zerbitzu psikologikoa
 - ☐ Berdintasun-zerbitzua
- ☐ SEPE Enplegu Zerbitzu Publikoa
- ☐ Beste zerbitzu batzuk
 - ☐ _____ elkartea
 - ☐ _____ eskola/ikastetxea/Unibertsitatea
 - ☐ _____ abokatua
- ☐ Beste zerbitzu batzuk (berariaz identifikatu) _____

2. ERANSKINA: FAQ-GIDA GAUZATZEKO PROZESUAN TEKNIKARIEK MAIZ EGITEN DITUZTEN GALDERAK

Atal honetan jasotako galderak indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei laguntzen dieten langileek egin dituzte. Gida honetako I. eta VI. epigrafeen artean aztertutako egoeren identifikazioaren arabera ordenatu dira.

1. INFORMAZIOA ETA DATU PERTSONALEN BILKETA

1. FAQ

EGINDAKO GALDERA: DBLOren arabera, laguntza psikologikoan diharduen erakunde batek ba al du sentikortasun handiko datuak biltzerik, esate baterako desgaitasunari buruzkoak, GIBari buruzkoak edo emakumeak prostituzioan diharduen?

BAI. Berezko egoera da laguntza psikologikoak adierazitakoak bezalako datuak ezagutu behar izatea, haietako batzuk sentikortasun-maila gorenekoak izanik. Sentikortasun handiko datuak dira (besteak beste) osasun fisikokoak, hala nola GIBa ezagutzea, edo psikikoak.

Dibertsitate funtzionalari dagokionez, desgaitasunaren datua berez arauak goi-mailako babesetik kanpo berariaz utzi eta oinarritzko mailakotzat jo duen kasua da. Arestikoa gaindituta, hots, desgaitasun-maila edo hura ezarri duen diagnostikoa, goi-mailakoak dira.

Oinarritzko datu baten eta goi-mailako datu baten arteko aldeak ez dio eragiten hura biltzeari, arestian adierazi denez. Kasu honetan, noski, laguntza psikologiko egokia emateko behar den guztietan bildu ahalko dira. Eta datua zer helburutarako bilduko den kontuan hartu behar da; laguntza psikologikoaren kasuan, helburua laguntzea, sendatzea, etab. den.

Bereizketak datuak gorde, biltegiratu, erabili eta komunikatzeko segurtasun-neurriei eragingo die. Goi-mailako datu pertsonalak goi-mailako segurtasun-neurrien pean erabili beharko dira. Horrek esan nahi du haien tratamenduan eta maneian oinarritzko mailako, maila ertaineko eta goi-mailako neurriak hartuko direla, izaera metagarria baitute.

Goi-mailako neurrien artean euskarrien eta agirien enkriptazioa dago, haiek maneiatzeko baimena ez duten gainerako pertsonen edukia identifikatzea oztopatzeko, eta irizpide bera jarraitu behar dute informazioa gorde duten euskarriak garraiatu bitartean. Halaber, datuen eta horiek berreskuratze prozeduren babes-kopia bat gorde beharko da, haiek tratatzen dituzten ekipamendu informatikoak dauden bestelako leku batean, edo informazioaren osotasuna eta hura berreskuratzea bermatzen duten elementuak erabili beharko dira. Era berean, eskuratzeko

ko ahalegin bakoitzari buruzko informazioa erregistratuko da, besteak beste, hura baimendu edo ukatu den. Halaber, maila goreneko datu pertsonal mota hori transmititzen duten komunikazioak enkriptatuko dira, Legeak agindutako derrigorrezko goi-mailako beste segurtasun-neurri batzuen artean.

2. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

2. FAQ

EGINDAKO GALDERA: DBLOren arabera, lan-arlo batean (adibidez, babesean) diharduen erakunde batek bere eskumenekoak ez diren arloei buruzko datuak (adibidez, lan egiten duenetz) bil ditzake datuak bateratu eta gainerako erakundeekin eratzeko moduko estatistikak egiteko xedez?

Galdera bi egoerari buruzkoa da:

Lan-arlo jakin bateko erakunde batek bere eskumenekoak ez diren datuak bil ditzake?

Egindako galdera, ordea, zalantzarik da berez; izan ere, lan-arloa babesa bada, gerta daiteke datu pertsonala beharrezkoa izatea. Beraz, erantzunak bi alderdiei helduko die.

Datu pertsonal horien erabilera zerbitzuak datu pertsonalak bildu behar izateko duen helburuari lotuta dago. Alegia, lan-arloan (adibidean, babesa) biktimak lan egiten duenetz ezagutzea beharrezkoa bada, datu beharrezkoa izango da zerbitzua emateko.

Jarduera-arlorako datu pertsonal hori ezagutzea beharrezkoa ez bada, datu pertsonalen tratamenduak eskatzen duen helburu-printzipioa urratuko da, eta datu hori ezingo da bildu. Hala, eta jarritako adibidean, ezin liteke estatistikarako daturik bildu, erakundeak eskainitako zerbitzuaren eginkizuna edo helburua hori ez delako. Hortaz, balorazio hori egiteko funtsezko elementua helburua da, eta ez administrazio-organoaren eskumena bera.

Estatistika-helburuetarako erabil genitzake?

BAI. Helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako erabili ahalko dira, hasiera batean asmo horrekin bildu ez balira ere, baina asmo horretarako datu pertsonalak anonimo bihurtu behar dira. Bestalde, kontuan hartu beharko da estatistikari buruz indarrean dagoen legedia; hark ezarriko du datu pertsonalei zer erabilera eman dakiekeen eta asmo estatistikoa zer helburuk gidatzen duen.

3. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Udal batek, indarkeria sexista jasan duten emakumeei laguntzeko protokoloaren esparruan, sistema bat sortu du. Sistema horrek, NANaren logaritmo baten bidez, laguntza jaso duten emakumeen identitatea kodetzen du (protokoloan parte hartzen duten erakunde guztiek egiten dute kodetze hori). Hala, parte hartzen duten erakundeek (esaterako, Lanbide) protokoloaren koordinatzaileari Xf3gd759 emakumeari laguntza eman zaiola jakinarazten diote. Kode hori ezin da deskodetu.

Beraz, bi galdera: 1) urratu egingo luke koordinatzaileak lehenago emakume horrekin kontaktua izan badu eta bere erakundearen zerrenda batean Xf3gd759 kode bera agertzen bazaio? 2) horrek DBLO urratzen du koordinatzaileak ezin badu jakin zer emakume den?

“Datu pertsonala”ren kontzeptuan ez dago zerrenda itxirik, aitzitik, pertsona bat identifikatzen duen edo identifikatzen uzten duen datu orok osatzen du, zein ere den haren izaera, eta alde batera geratzen dira datu disoziatuak, hots, titularra identifikatzea ahalbidetzen ez dutenak.

Disoziazio-prozedura da datu pertsonalen tratamendu oro, baldin eta ezin badira uztartu lortutako informazioa eta identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona.

Hortaz, koordinatzaileak diseinatutako sistemak disoziazio-prozesua izan nahi du. Hala, datu pertsonalak emakumeari kode alfanumeriko bat esleituz disoziatuta, informazioa hari laguntzen esku hartzen duten pertsonen kontsultatu ahalko dute emakumea identifikatu ahal izan gabe.

Era horretan, informazio hori jasoko lukeen datu-basea guztiz anonimoa litzateke eta, beraz, DBLOren eta hura garatzen duen Erregelamenduaren aplikazio-eremutik kanpo geratuko litzateke, prozesu horren ondorioz, datu pertsonala ez litzatekeelako. Horretarako disoziazio-prozedura eta hura itzulezina den baloratu behar litzateke.

Koordinatzaileak egiten duen lana emakumeari proposatzen edo jaso duen laguntza antolatzea eta bateratzea bada ez da beharrezkoa izango haren identitatea ezagutzea, arestian adierazitako moduan. Hala, koordinatzaileak bere antolaketa-lana egin ahalko du emakumea nor den ezagutu beharrik gabe. Puntu garrantzitsua honakoa da: ea modurik dagoen pertsona horrek kodearen eta erreferentzia zenbakiaren arteko erlazioa egitea lor dezakeen.

Koordinazioa harago badoa eta esku-hartzeak eta haren emaitzak behar duten analisiaren ondorioz koordinatzaileak emakumearekin tratua izatea, haren datu pertsonalak idaztea, eta kodea pertsonari lotuz hura identifikatu ahal izatea gertatzen bada, disoziazio-prozesuak bere birtualtasuna galtzen du.

Alegia, koordinatzaileak emakumearen identitatea ezagutu behar badu, eta zenbakia deko-detuko balu, disoziazio-prozesua leheneratuta geratuko litzateke.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak adierazi duenez, datu pertsonalen babesari begira nahikoa izango da informazioak datu horien tratamenduari lotutako identitatea argitu ahal izateko aukera, urruna bada ere. Alegia, datu disoziatutzat hartzeko, beharrezkoa izango da prozesu horren aplikazioaren ondorioz datu jakin bat pertsona jakin bati lotzea ezinezkoa gertatzea.

Horren ondorioz, diseinatutako sistemak emakumea gehiegizko esfortzurik gabe identifikatzea ahalbidetzen badu ematen duen emaitza ezin da datu disoziatutzat -anonimoa- hartu, datu pertsonaltzat edo identifikagarritzat baizik.

4. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Duela gutxi bikoteak egindako sexu-eraso bat jasan duen emakume bat artatu da, eta emakume horrek berak beste emakume baten eraso bat jasan du; babes-aginduan bi pertsonen izenak ageri dira. Ustezko erasotzailea den emakumea ere gizarte-zerbitzuen erabiltzailea da eta adingabe bat du bere ardurapean; adingabearen egoera arriskukoa da eta haur-zerbitzutik kasua baloratzen ari da. Biktimak adierazi (eta salatu) zuenez, erasotzailea drogen ohiko kontsumitzailea da eta haien eraginpean zegoen eraso bat gertatu zen unean.

HONAKO ZALANTZA SORTU DA: ustezko erasotzaileen datuak erabil daitezkeen, adingabearen interesa kontuan izanda, ala DBLOren arabera informazio hori erabiltzerik ez dagoen. Honako zalantza ere sortu da: haur-zerbitzuari adingabearen ama erasoagatik salatua izan dela eta drogen eraginpean zegoela jakinarazi behar zaion.

Indarkeriaren eremuaren konplexutasunari, datuen babesaren kasu berezia gehitzen zaio, zeinek ardura eta arreta bereziak behar dituen. Bestalde, delituzko alderdiak ezagutarazten edo ezagutaraz litzaketen datu judizialak ezagutzearen garrantzia hartu behar da kontuan.

Galderari erantzun aurretik, jar gaitezen egoeran.

Galderak azaldutako **egitate nagusiak** honakoak dira:

- Erasotzaile bat jasan duen emakume bat laguntza bila joan da udalaren gizarte-zerbitzuetara.
- Erasotzaileak bi dira: haren bikotekide ohia den gizon bat eta emakume bat.

- Biktima izandako emakumeari dagokionez zigor-prozedura bat du hasita egitate horiengatik, eta erasoaren egileen aurkako babes-agindua dauka.
- Gizarte-zerbitzuek babes-agindu horren kopia bat dute (seguruenik biktima izandako emakumeak eman die).
- Gizonak bere bikotekide ohiari egingo zion eraso (genero-indarkeriako kasua da; beste emakumeak biktima den emakumeari egindako erasoak ez da genero-indarkeriako kasua).
- Erasotzailearen datuak (bere ardurapean adingabe bat daukala eta gizarte-zerbitzuen esku-hartzeari lotutako datu guztiak bilduko dituzte) udal-zerbitzuaren eskuetan daude dagoeneko, haien erabiltzailea baita.
- Biktimari laguntza ematean, hark erasotzailearen datuak eman ditu. Datu horiek ez daude erasoari edo haren inguruabarrei zuzenean lotuta, erasotzailearen eta haren semearen gizarte-egoerari baizik. Gertakariari lotuta dauden hirugarren pertsonen datuak ere eman ditu, hala nola erasoaren unean drogen eraginpean zegoela (egitate hori poliziari jakinarazi behar zaio, atestatuan sartzeko).

Oinarri horiek ezarrita,

Lehenengoa:

Gizarte Arreta Zerbitzuak erasoari buruz bil dezakeen informazioa laguntza eragin duen egitatera mugatu behar da, hots, sexu-erasora. Testuinguru horretan aipatu ditu biktimak hirugarren pertsonen datuak. Datu horiek ondoren izapidetuko den laguntzako administrazio-espedientean jasoko dira.

Beraz, laguntza eragin duen egitatearekin lotura zuzenik ez duenez gero, erasotzailearen egoera laguntzatik kanpo geratzen da.

Ulertu behar da gizarte-laguntzak eragin duten inguruabarrei heldu behar diela. Hala, informazio pertsonalaren bilketa helburu horretara mugatu behar da, hark gidatzen baitu esku-hartze osoa.

Uler dezakegu biktimaren gizarte-inguruabarrak baloratu behar izatea, laguntza zabaldu edo hobetu ahal izateko, baina ez da onargarria horrek hirugarren pertsonen, hala nola erasotzailearen semearen, informazioa jasotzea ekartzea.

Bigarrena:

Elkarriketa eta informazio-bilketa ezin da inguruabar horietatik harago zabaldu. Halaber, datu horiek ezingo dira idatziz edo beste bide batzuen bidez jaso, eta ezingo dira sartu genero-

indarkeriaren biktimen datu-fitxategian, ez daudelako eraso baloratzeko eta biktimari laguntza emateko behar diren inguruabarrei zuzenean lotuta.

Hirugarrena:

Oro har, biktimak emandako datuak beste helburu batzuetarako erabili ahal izateari dagokionez ere, erantzunak ezezkoa izan behar du.

DBLO zorrotza da horri dagokionez: datu pertsonalak datuak eman dituen pertsonak ezagutzen dituen helburu zehatzetarako baino ezin dira erabili. Kasu honetan, espedientean bildutako datuak beste helburu batzuetarako erabiltzeko aukera, baimen informatua eskatzea izango da; hura gabe datu horiek ezin dira beste helburu batzuetarako erabili.

Kasu jakinetan, datu horiek beste zerbitzu edo beste administrazio batzuei baimen hori laga ahal izatea aurreikusi da, eta horretarako hura gaitzen duen lege-mailako arau bat behar da (ez da nahikoa protokolo bat, erregelamendu bat edo Alkatetzaren Dekretu bat, adibidez).

Adibidez, baimenduta dago datuak poliziari, fiskaltzari edo epaitegiei lagatzea, helburua delitua jazartzea bada.

Erasotzailearen eta adingabearen egoerak delitua edo falta egotea ekar balezake, egitate hori ezagutu duten pertsonak adierazitako datuak jakinaraz diezazkiokete poliziari. Edonola ere, aztertu behar litzateke adingabeen arazoei, haientzako laguntzari, eta abarri lotutako arauak datuen lagapen hori baimentzen duen.

5. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Nork eskura dezake genero-indarkeria jasan duten emakumeen kasuei buruzko informazioa? Protokoloaren barruan dauden pertsona guztiek ala beste inork ere eskura dezake?

Lehenik, biktima baten datuak biltzen direnean, bilketa hori helburu jakin eta bakar batekin egiten da.

Informazio-bilketa hori biktima era egokian informatuz egin behar da, administrazioak ematen duen informazioa nola erabiliko den jakin behar duelako berak.

Berak ezagutu eta baimendu gabe, informazio horri ezin zaio beste erabilerarik eman. Hasierako helburua aldatzeko aukera bakarra salaketa litzateke, egitateek delitua balekarte. Horretarako ez da beharrezkoa baimena.

Baimenik gabe, biktimak administrazioari emandako datuak laga ahal izateko dagoen beste posibilitatea lagapen hori aurreikusten duen lege-mailako arau bat egotea da. Adibidez, gizarte-zerbitzuek bildutako datuak (...)ri jakinaraziko zaizkiola xedatu duen lege bateko artikulua bat. Holakorik ez badago, ezin da lagapena egin.

Lagatzeko hirugarren aukera zenbait erakundetako gizarte-zerbitzuen artekoa edo haien eta berdintasun-zerbitzuaren artekoa litzateke, haien eskumenek pertsonari, kasu horretan, genero indarkeria jasan duen emakumeari, laguntza emateko helburu bera balute.

Udal eremuko protokoloek ez dute gaitzen haietan parte hartzen dutenen artean datuak lagatzeko. Alegia, ez da nahikoa protokolo bat egotea lagapenerako lege-babesa egon dadin. Edonola ere, baimenik gabe edo lege-mailako arau baten babesik gabe datuak ezin dira laga.

Protokoloen erabilgarritasuna lankidetzaren eta laguntza-mekanismoak definitzean datza, baina indarkeria jasan duen emakumeak berak zehaztu eta baimendu behar du nori lagako zaizkion datu horiek.

Beraz, lehenago haren baimena bildu behar genuke lagapena egiteko, eta gainera baimen horrek lagapen zehaztutarako izan behar du, eta ez orokorretarako, datu horiek nori lagako zaizkion argi definituz biktimak batere zalantzarik gabe jakin dezan.

6. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Udal baten barruan eta zehazkiago gizarte-zerbitzu sail baten barruan -sailaren arduradunak, gizarte-zerbitzuen bulego-arduradunak eta teknikariek eta administrariak osatzen dute sail hori-, emakumeen aurkako indarkeria kasu bat iristen denean, zer pertsonak ezagutu behar dituzte datu identifikagarriak eta harekin egiten ari den esku-hartzea?

Beharrezkoa da sailaren arduradunak ezagutzea? eta haren espedientea mahaiz mahai igaro ahal izatea administrarien artean.

Informazioa eman behar zaie sailaren arduradunari, zinegotzieiei edo alkateari?

Erantzuna ez du ematen lege-xedapen zuzen batek, datuen babesari buruzko araudiko funtsezko printzipio batek baizik, helburuari lotutako kalitate-printzipioak, alegia.

Hasiera batean, datu-bilketa bere datuak eta bere egoerari buruzko informazioa eman dizkigun emakumearen baimenak babesten du, eta helburu bat dauka, arreta ematea, aholkatzea eta laguntzea.

Helburu horren barruan, zerbitzuan jarduteko zenbait mekanismo daude eta mekanismo horiek informazioa edo ebazpenak zerbitzuaren arduradunak berrikustea eska dezakete, edo, lanen banaketagatik, zenbait pertsonak esku hartzea eska dezakete.

Tratamenduan helburuari eusten bazaio, horrek ez dakar arazorik. Arazoak helburua aldatu eta datuak beste helburu bat duen beste udal-zerbitzu bati lagatzen zaizkionean sortzen dira; adibidez, errolda-zerbitzuari lagatzen zaizkie helbidea eta bizikideak egiaztatzeko, edo zerga-bilketari beste egiaztapen batzuetarako, edo zinegotziari edo alkateari lagatzen zaizkie. Lagapen hori ez litzateke zuzena.

7. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Elkarre batek laguntza ekonomikoetarako deialdi batean parte hartzen du. Elkarre horren datuak beste erakunde bati transferi dakizkioke beste helburu batzuetarako (adibidez, indarkeria jasan duten emakumeak bideratzeko, etab.)? Datu horiek pertsonalak dira?

Kontsulta horri dagokionez, elkarrearen (pertsona juridikoa) datuak, zeinek ez baitauka, beraz, datu pertsonalen babesik, zuzendarien, batzordekideen edo elkarreko beste kargu batzuen datuetatik, zeinek babesa baitaukate.

Azken horiei dagokienez, datuak nondik atera diren ikusi behar da, erregistro publiko batzuetan zenbait datu eskura daitezkeelako.

Elkarreak, pertsona juridiko gisa, bere bazkideen eta zuzendarien datuak beste edozein enpresaren edo erakunderen konfidentzialtasun eta zuhurtasun berberaz gorde eta zaindu behar ditu.

Eta azkenik, elkarrearen helbideari, telefonoari, eta abarri dagozkien datuak ez daude datuak babesteko legearen pean.

8. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Mankomunitate batean 2012az geroztik jarduera-protokolo bat dago. Erakundeen arteko mahaia ere badabil eta Ertzaintzarekin eta Osakidetzarekin koordinatzen gara.

2014 honetan, genero-indarkeriaren aurreko plan integrala prestatzen ari gara eta haren barruan, herrietako aguazilekin ere koordinatu gara eta haiek ere epaitegitik haien jarraipena egiteko bidaltzen dizkieten babes-aginduak jasotzen dituztela jakin dugu.

Arazoa udalerrri txikietan babes-aginduei ematen zaien tratamendua da edo, hobeto esanda, tratamendurik eza; alegia, udalerrri gehienetan faktura batek eta urruntzeko agindu batek prozedura bera dute, batere konfidentzialtasunik gabe.

Edozein erakundek, publikoa zein pribatua izan, bete behar du datuak babesteko legea. Lege horrek baldintza garrantzitsuak ditu genero-indarkeriaren biktimei dagokienez, eta baldintza horiek datu "arrunten" kasuan baino askoz zorrotzagoak dira.

Genero-indarkeriaren kasuan, adibidez, legeak goi-mailako segurtasun-maila eskatzen du datuen babeserako, eta segurtasun hori egiatan betetzen oso zaila da.

Udal batean batere konfidentzialtasunik gabe tratatuko den babes-agindu bat jaso daitekeela badiogu, arazoa izugarria da, eta erantzukizun garrantzitsuak ekar ditzake.

Mota guztietako indarkeriaren biktimen datuen tratamendua kontu oso handiz egin behar da, hain zuzen ere haiei kalteak ekiditeko.

Udaletan datuen babesarekiko errespetuko kultura ezarri behar da, minimoa bada ere, biktimen datuak gutxieneko segurtasun-neurri batzuk betez jaso eta tratatzen direla ziurtatzeko.

9. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Aurreko galdera zabaldu da, jarraitu beharreko prozedura apur bat gehiago zehazteko eskatuz, proposamen gisa baino ez bada ere, edo DBLOK halako datuei buruz dakartzan artikuluei buruz informatzeko.

Egoera hori laburbilduta azaltzen saiatuko gara, eremu jakin horren konplexutasuna baloratu ahal izateko. Amaieran datu pertsonalen tratamenduan kontuan hartu behar diren oinarriko oharren dekalogoia sartu dugu.

Segurtasun-neurrien atalean sartuta, DBLO garatzeko Erregelamenduko 81.3 artikulua adierazi duenez, oinarritzko mailako eta maila ertaineko neurriak ez ezik, goi-mailako neurriak aplikatuko zaizkie, besteak beste, genero-indarkeriako egintzek eragindako datuak dauzkaten datu pertsonalen fitxategiei edo tratamenduei.

Hala, aplika daitezkeen segurtasun-neurriak aztertuta, azpimarratu behar da, lehenik, Erregelamenduko 91. artikulua oinarritzko mailako fitxategietan, segurtasun-neurrien artean, sarbidearen kontrola ezarri duela, eta lehenengo zenbakian honakoa xedatu du: “Erabiltzaileek euren eginkizunak betetzeko behar dituzten baliabideak baino ezingo dituzte eskuratu”; horretarako, hirugarren zenbakian, honakoa ezarri du: “Fitxategiaren arduradunak bitartekoak ezarriko ditu erabiltzaile batek baimendutakoak ez diren eskubideak dituen baliabideak eskuratu ahal izatea galarazteko.”

Bestalde, 2. zenbakiak honakoa zehaztu du: “Fitxategiaren arduraduna arduratuko da erabiltzaileen eta erabiltzaile-profilen zerrenda eguneratua egoteaz eta erabiltzaile horietako bakoitzak zer eskuratzeko baimena duen ezartzeaz.”

Halaber, erabiltzaileak identifikatu eta autentifikatu beharra ezarri da, eta oinarritzko mailatik bertatik eskatzen da haien identifikazio pertsonalizatua. Horri dagokionez, 93.1 artikulua honakoa xedatu du: “Erabiltzaileen identifikazio eta autentifikazio zuzena bermatzeko neurriak hartu beharko ditu fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunak.” Bestalde, artikuluko bereko 2. zenbakiak honakoa aurreikusi du: “Fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunak bitarteko berezi bat sortuko du, eta, bitarteko horren bidez, informazio-sistemara sartzen ahalegintzen den erabiltzaile oro zalantzarik gabe eta banan-banan identifikatu eta benetan baimena badiuela egiaztatu beharko da.” Pasahitz hori erabiltzaile baimenduak baino ez du ezagutu behar.

Bestalde, DBLO garatzeko Erregelamenduko 93.3 artikulua honakoa adierazi du: “Egiaztapen-mekanismo hori pasahitzetan oinarritzen denean, pasahitz horiek esleitzeko, banatzeko eta biltzeko prozedura bat ere egongo da, pasahitzaren konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzen dituen.”

Maila ertainean, identifikazio- eta autentifikazio-neurri hori zorrotzagoa bihurtzen da; izan ere, oinarritzko mailarako aurreikusitako arestiko neurriei, 98. artikuluen edukia gehitzen zaio, eta haren arabera honakoa eduki beharko da: “bitartekoren bat informazio-sistemara behin eta berriz baimenik gabe iristen saiatzeko aukerak mugatzeko.”

Azkenik, goi-mailan, sartzeko gertatzen den saiakera bakoitzaren erregistroa behar da, eta hala ezarri da DBLO garatzeko Erregelamenduko 103.1 artikuluan: “Datuetan sartzeko ahalegin bakoitzetik, gutxienez, erabiltzailearen identifikazioa, zein egunetan eta ordutan egin den, zein fitxategitara sartu den, sartzeko hori zein motatakoa den, eta sarrera hori baimendu edo ukatu egin den gordeko dira.” Artikulu bereko bigarren zenbakiak, ordea, honakoa xedatu du: “Sartzeko baimena eman bada, beharrezkoa izango da zein erregistrotara sartu den identifikatzeko besteko informazioa gordetzea.”

Hortik ondorioztatzen denez, arestian kopiatutako artikuluan adierazitako profila duten pertsona guztiak ezingo dira aipatu fitxategian sartu,; aitzitik, Segurtasun-agiria deritzon agiri batean erabiltzaile kalifikatutako pertsonak baino ezingo dira sartu. Agiri hori, beste alderdi askoren artean, erabiltzaile edo datu pertsonaletan eta informazio-sistemetan sartzeko profil bakoitzaren eginkizunak eta betebeharrak definitzen diren gidaliburua da.

Pertsona horiek pasahitza erabili beharko dute sartzeko eta, adierazi denez, hark pertsona la eta sekretua izan beharko du eta ez dira onartuko pasahitz orokorrak. Azkenik, norbait fitxategi horretan sartu den eta, hala bada, nor, zer unetan eta zer informaziotan sartu den jakin ahal izateko, DBLO garatzeko Erregelamenduak sarrera-erregistroa esaten dion horretan gertatutako bakoitza jaso beharko da.

Indarkeria-egintza bati aurre egiten dion emakume baten datu pertsonalen kudeaketan esku hartzen duten pertsona guztien jardunen erregulazio fin eta xehea dela-eta, legez ezarritako zenbait parametro bete behar dira, zein gutxieneko mailak baitira. Haiek laburbiltzeko parametro horien zerrenda zehatza egin da:

- 1) Datu pertsonalak euren titularrenak dira eta azken horiek baino ezin dute haiei buruz erabaki. Zerbitzuko langileak, zerbitzua eta dagokion saila ez dira datu horien jabeak.
- 2) Informatu eza baimena eskatu behar da, eta horretarako inprimaki egokia eduki behar da.
- 3) Eskuratu diren helburu zehatz eta bidezkoari dagokionez egokiak, egoerari dagozkionak eta ez gehiegizkoak diren datuak baino ez dira eskatu behar, eta ezin dira beste helburu batzuetarako erabili.
- 4) Egiten den lanaren kariaz ezagutzen diren datu pertsonalen sekretu eta konfidentzialtasun beharra funtsezkoa da. Horretara behartzen dute datuen babeserako araudiak, enplegatu publikoaren estatutuak eta oinarrizko jokabide etikoak. Batzuetan, hori ez betetzeak jazarpen penala izan dezake.
- 5) Arestian aipatu segurtasun-neurriak bete behar dira. Segurtasun-neurri horiek segurtasun-agirian adierazi behar dira eta, beraz, langileek ezagutu behar dute. Horri dagokionez, pasahitzak erabili behar dira eta ez dira partekatu behar; datu pertsonalak dauzkaten espedienteak edo zerrendak armairuetan gorde behar dira, eta armairu horiek itxi egin behar dira norbera ez dagoenean; datu pertsonalak baimenik ez duten pertsonen bistatik kanpo eduki behar dira (bereziki fotokopiagailuetan, inprimagailuetan, faxetan edo are mahai gainean uzten diren agiriekin ardura berezia izan behar da); euskarriak ateraz gero (etxera daramatzagu USB memorietan edo paperean) ezarri diren segurtasun-neurriak bete behar dira.
- 6) Datu pertsonalen titularrei eskuratu, zuzendu, deuseztatu edo aurka egiteko (ARCO) esku-bideak erabiltzea erraztu behar zaie.

- 7) Kasu egin behar zaio datuen lagapenari, jakin behar da datuen titularraren baimena badaukagu edo baimentzen duen lege-mailako arau bat badago baino ezin dela egin. Aztertzen ari garen eremuan ez dago horri buruzko berariazko lege-aurreikuspenik.
- 8) Kontratuen arabera, erakundearentzat lanak (garapen informatikoak, segurtasuna, garbiketa, postaren banaketa, agiriaren suntsipena...) egiten dituzten enpresei edo erakundeei datu pertsonalak eman aurretik ziurtatu egin behar dugu kontratu bat sinatuta dutela eta han datu pertsonalei dagokien informazioaren konfidentziasunerako eta segurtasunerako beharrak ezarri zaizkiela, bestela informazioaren galera, ihes, desagertzea, suntsipen edo lapurretaren erantzuleak izango baikara.
- 9) Datuak deuseztatu, datu-bilketaren helbururako beharrezkoak edo egokiak izateari uzten diotenean. Batzuetan, suntsitu aurretik blokeatu egin beharko dira, alegia, tratamendua galarazi eta egoera zehatz batzuetan baino ez utzi haiek eskuratzen. Datu pertsonalak paperezko euskarrian dituzten fitxategiak suntsitzeko paper-birringailuak edo erakundeak ezarritako sistema segurua erabili behar dira.
- 10) Kasu egin behar zaio datu pertsonalak posta elektronikoz bidaltzeari. Esan behar da genero-indarkeriari buruzko datuak edo babes berezia duten beste batzuk, hala nola osasunari buruzko datuak, enkriptatu egin behar direla bide horretatik bidali aurretik.

Jardun horien konplexutasuna dela eta, erakundeek informazioaren segurtasunari eta datu pertsonalen babesari buruzko prestakuntza eman behar diete euren langileei. Langileek gaiari buruzko ezagupenak eskuratu ahal izateko prestakuntza-jarduerak antolatzeak, aplikatzeko egoera praktikoa aztertuz, eta are intereseko gaiei buruzko berariazko prestakuntza-saioak egiteak, informazio pertsonalaren tratamendu egokiari buruzko kontzientiazioa bultzatuko du.

10. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Erakunde batek (A) datu pertsonalak laga dizkio beste erakunde bati (B) emakumearen baimenez, etab. Bigarren erakunde horrek (B) bere aldetik laga diezazkioke datuak beste erakunde bati (C) azken erakunde horrek (C) emakumearen egoera ezagutzea interesekoa izan daitekeela ikusi duelako?

Interesa emakumeak behar duen laguntzako helburu bezala ulertu behar da derrigorrez. Egoera horrela definituta, b erakundeak egiaztatu egin behar du emakumearen baimeneko baldintzak betetzen dituela, bere aldetik, datu horiek c erakundeari lagatzeko edo, bestela, lagapena gaitzen duen legezko arau bat dagoen edo emakumeak behar duen laguntza-helburuari dagozkion eskumen berberak diren.

11. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Emakume bati udalerriko poliziak eman dio arreta eta salaketa jaso ondoren, eta orientazioa/laguntza jasotzeko, Emakundera jotzeko esan dio. Emakundek, ordea, ez ditu esku-men horiek. Emakundeko teknikariak e-maila idatzi dio udal horretan indarkeria-protokoloa koordinatzen duen pertsonari eta gertatutakoaren berri eman dio, beharrezkoa iritziz gero, behar diren neurriak har ditzan. Udal horretako protokoloaren arduradunak Emakunderi deitu eta txarto bideratu duten emakumearen izena esateko eskatu dio, polizia emakumeari arreta zer profesionalek eman zion atzemateko, profesional hori informatzeko etorkizunean ondo bidera dezan, arreta jaso duen emakumearen izena esan behar dio?

Ez eta ez, argi eta garbi.

Arreta jaso duen emakumearen datua erantzukizunak bideratzeko edo informazio okerra zuzentzeko ezagutzeak informazio pertsonala tratatzeko proportzionaltasun-printzipioa gain-ditzen du argi eta garbi; lagapen horretarako ez dago batere baimenik, ez legezkorik, ez esku-men berberengatik gaitzen duenik, ez, noski, emakumeak emandakorik.

Egoera modu oso errazean konpondu behar da: udal teknikariak bidalitako komunikazioaren datua hartu eta Emakundetik zirkular bat bidali poliziari prozesu zuzena zein den ezagutarazi eta arreta emandako emakumeak oker bideratu diren antzeko egoeren berri eman dela ohartaraziz.

12. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Emakume bati eta alaba adingabe bati abegi egin zaie foru-aldundiaren egoitza-baliabide batean une honetan nora jo ez daukatelako. Baliabide horretako profesionalek, alaba adingabea denez gero, umearen aitari deitu diote (bera izanda amaren eta, hedaduraz, alabaren aurka indarkeria darabilena) bere alabari baliabidean abegi egin zaiola jakinarazi eta neskatala horrek laguntza psikologikoa jasotzeko baimena eskatzeko. Testuinguru horretan baliabideko profesionalek aita informatu eta laguntza psikologikorako baimena eskatu behar diote?

Egoera ezin da desberdina ezta bereziki babestua izan indarkeria-egoera bat izateagatik. Hortaz, egoera sinpletu eta ohiko egoera batean jokatu litzatekeen bezala jokatu behar da; alegia, osasun-laguntza gurasoetako baten baimenez eman ahalko da, emakumeen aurkako indarkeria-egoeratik kanpo dagoen adingabe batentzako osasun-arretako edozein kasu arruntetan bezala. Gehiago sakontzeko, gerta daiteke laguntza psikologikoa parametro medikoen arabera ez izatea; gerta daiteke parametro medikoetan osasun-laguntzatzat ez hartzea.

Edonola ere, erasoak zuzenean adingabearen aurkakoak balira (eta laguntza psikologikoa haren amaren aurkako indarkeriaren eraginaren ondorio ez balitz) are argiagoa da gurasoaren bitartekaritzak ez daukala garrantzirik. Batzuetan, gerta daiteke justiziak, emakumearen aurkako epaitegiak, esku hartu izana, amarentzat eta alabarentzat babes-neurriak ezarritz; neurri horiek gaiari buruzko zalantza oro ezabatuko dute.

Informazio hori emanda gurasoari amak ezagutarazitako egoeraren berri emango ote litzaiokeen aztertuta, baztertu egin behar da; izan ere, gurasoak ezagutu egingo du bere bikote-kideak bere alabarekin batera etxetik alde egin duela eta, beraz, amaren eta alabaren osotasunarentzako segurtasuna ez da urratzen.

13. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Nola eragin dio datuen babesari buruzko araudiari 2011ko maiatzaren 11n Istanbulen sinatutako Europako Kontseiluaren emakumea eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Hitzarmena berresteko tresna duela gutxi indarrean jarri izanak?

Hitzarmena berresteko tresnak 20 urte baino gehiago zeraman indarrean jartzeke, zehazki 1981etik. Urte horretakoa da datu pertsonalen babesari buruzko 108 Hitzarmena.

Beraz, duela gutxi onartu eta 2014ko abuztuaren 1ean indarrean jarri zen berresteko tresnak ez dakar espainiar Estatuak DBLOn jaso ez duen erreforma juridikorik; beraz, ez dakar ezer berririk datu pertsonalen babesari buruz eta berariaz lotzen zaio arestian aipatutako Europako Kontseiluaren 1981eko urtarrilaren 28ko 108 Hitzarmenari. Hala, Europako eremuan arlo horretan tresna lotesle bihurtu da, eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko helmen handieneko nazioarteko ituna.

Izan ere, hitzarmenak Estatuan finkatuta dauden neurriak jaso ditu, hala nola emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan esku hartzen duten profesional taldeen prestakuntza, Estatuak emandako 016 telefonoa edo Euskadiren eremuan 900840101 telefonoa, eta genero-indarkeriari buruzko datuen informazio estatistikoko sistema bat.

Berrikuntzak, ordea, Zigor Kodean tipo penal berriak sarrarazi ditu; hala, hitzarmenak emakumeen aurkako indarkeria modu guztiak jo ditu delitutzat: indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala, bortxaketa barne, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontza, behartutako abortua eta behartutako esterilizazioa. Horrek esan nahi du Estatuak delitu horiek sartu beharko dituela euren sistema juridikoak, eta Espainiak badauzka bere ordenamenduan sartuta. Izan ere, behartutako ezkontza, esaterako, delitu gisa sartu da Kongresuan izapidetzen ari den Zigor Kodea erreformatzeko Lege Organikoaren proiektuan.

Eta datuen babesari dagokionez, hain zuzen ere, Europak arreta jarriko du emakumeen aurkako indarkeria kasuetan datu pertsonalak babesteko araudia bete dadin, horretarako pertsona talde handia izendatuz.

Egoera hori indartzeko, laster Europako Erregelamendua onartuko da eta, iragarri denez, enpresa eta erakunde publikoek eta pribatuek datu pertsonalen tratamenduan dituzten erantzukizunak gogortuko dira, horrek dakartzan arau-hausteak ezarri; datuen babesa mundu digitalaren premia berrietara egokituko du, egungo xedapenak European Internet biztanleen % 1ek baino gutxiagok erabiltzen zuenean ezarri baitziren, eta kontsumitzaileek informazio pertsonalaren erabilerari buruz duten konfiantza handitzea bilatzen du.

3. DATU PERTSONALAK LAGATZEA

14. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Genero-indarkeria jasan duten emakume guztiei laguntza integrala datuak babesteko legeak onartutako eskubideak urratu gabe nola bermatu galdetu da.

Adierazi denez, zalantza hori sortzen da emakumeak udalez besteko zerbitzuek bideratzen dituztenean eta haiekin kontaktatu ahal izateko baldintza haien datu pertsonalen bidez denean.

Bi komunikazio motaren artean bereizi behar da: bideratzea eta lagapena.

Adibidez, ez litzateke gauza bera komunikazioa gizarte-zerbitzuek egitea, arreta emandako pertsona bat genero-indarkeriaren biktima dela konturatzean, eta arlo horri buruzko zerbitzu jakin batera birbideratzea (bideratzea), edo birbideratzen duena gizarte-zerbitzuak ezi diren beste edozein zerbitzu izatea, zeinek emakumeari arreta beste helburu batzuetarako eman dion eta emakumeak indarkeria jasaten duela jakinda gizarte-zerbitzuekin kontaktuan jarri den haiek esku har dezaten emakumearen baimenik izan gabe (lagapena).

Aurreneko kasuan, pertsonak jasotako laguntzen helburua antzekoa da, eta helburu berari heltzea bilatzen dute; hortaz, uler genezake pertsonak zuen zerbitzuan hasieran emandako datuen erabilera bere esku-hartzearen hasieran pertsonak eman zuen hasierako baimenak babestuta legokeela.

Bigarrenean, datuen helburua aldatu da eta, beraz, datu horiek ezin dira komunikatu biktimaren baimenik gabe. Kasu horretan, zerbitzu bidaltzaileak pertsonari jakinarazi behar lioke berdintasunaren eta indarkeriaren zerbitzuan bertaratzea eta haren aholkularitza eta laguntza jasotzea komeni litzatekeela, eta biktimak jotzea hara bere borondatez.

Baliogarria litzateke, halaber, zerbitzu bidaltzaileak pertsonaren baimena jasotzea haren informazioa berdintasunaren eta indarkeriaren aurkako zerbitzuari bidaltzeko, ondoren espediente baimen horrekin batera igortzeko.

Bidaltzen duenak bidali dituen pertsonaren datuak gorde ditzakeen argitzeari dagokionez, erraz erantzuten da hori; izan ere, pertsonari laguntzen edo zerbitzuren bat ematen jarraituko badu baino ezingo ditu datuak gorde; berdintasunaren eta indarkeriaren zerbitzuari igortzean, ordea, bere lana amaitu badu, kasu horretan ezingo du batere informaziorik gorde eta datuak deuseztatu beharko ditu.

15. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Ertzain-etxean bere mutil-lagunaren aita eta harekin batera duen semearen aitona denarengandik jasaten duen jazarpena salatzeke Ertzaintzara jo duen emakumea. Ertzain-etxean esan diotenez, aitona hori bere emazteak salatu zuen beste une batean genero-indarkeriagatik. eman al dakioke informazio hori? Emakumearentzat oso interesgarria da, noski, eta neuk ere baneukan, baina pentsatu nuen ezin niola esan haren berri emanik babesteko legea urratzen nuela ulertu nuelako. egin nezake? poliziak egin dezake?

Egindako galdera oso interesgarria da eta batez ere datuak babesteko legeari buruzko in-tuizio oso zuzen batetik egitea.

Halaxe da, datuak dituen erakundeak interesduna bera ez den beste pertsona bati edozein datu ezagutaraztea datuen lagapena da, legearen arabera.

Datuen lagapenak galarazita daude Datuak Babesteko Lege Organikoaren sisteman, eta datuen titularraren baimenez edo lege-mailako arau batean aurreikusita badago baino ezin dira egin. Kasu horretan, pentsa dezakegu ez dagoela aitona/aitaginarrebaren baimenik.

Hortaz, datuak ezagutarazteko jardun hori ez dago onartuta.

Aukera bakarra legoke: poliziak babesteko, etorkizuneko balizko jardunei buruz prebenitzeko helburuz ematea informazio hori, baina horretarako zehaztu egin behar da. Nahikoa izango zatekeen berariaz ohartaraztea bereziki errepara ziezaiela bortxazko portaerei, halakoak sala zitzan, edo biktima babesteko neurriren bat hartzea.

Beraz, lagapena ez legoke justifikatuta.

Erabilgarria izan daiteke datu hori edukitzea, egoera testuinguruan jarri eta babes/laguntza-neurri egokiagoak hartzeko, baina zure portaera zuzentzat jo behar da, ezin duzu behin beste laguntza baten esparruan bildu zenuen datu hori laga. Izatekotan, lehenago aitona/aitagina-

rrebaren edo biktimaren, haren emaztearen baimena eduki behar zenuke datu hori laga ahal izateko.

16. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Zalanza egiten dugu indarkeriaren biktima bati laguntzean bildu genuen informazioa udalaren beraren sailen artean parteka daitekeen biktimaren berariazko baimenik gabe. Zehazki, informazioa honako sailen artean transmititzen da: gizarte-zerbitzuak, udaltzaingoa eta berdintasun saila.

Egindako galderak udalerrien ingurunean emakumeen aurkako indarkeriari lotutako datuen babesaren eremuan dagoen alderdi arazotsuenetako bat ukitzen du.

Zenbait kontu abiapuntu gisa.

Hasieran, gidan zehaztu dugunez, datuak bildu eta biktimari informazio egokia emateko unea funtsezkoa da, administrazioak informazioari etorkizunean eman ahalko dion erabilera baldintzatzen duelako. Biltzeko une horretan, argi zehaztu behar da informazio-bilketaren helburua, eta bildutako informazio hori nahi den xederako ezinbestekoa dena baino ez da izango. Kasu horretan, biktima sorotsi, lagundu edo aholkatzeko helbururako ezinbestekoa den informazioa biltzen da, esaterako laguntza-eskaera batera aurkeztea, hura balitz egoera, adibidez.

Lehenengoa, beraz, informazio-bilketa helburu bat lortzeko baino egiten ez dela ezartzea da. Bildu den informazio hori, helburu hori lortzeko beti, udal-zerbitzuetako batzuek tratatu edo erabili beharko dute, besteak beste, gizarte-zerbitzuetako arduradunek eta funtzionarioek. Eta gerta daiteke arloan eskumena duen udal-sailak ere ezagutu behar izatea, adibidez, indarkeria jasan duen emakumea talde horrentzat erreserbatutako etxebizitzaren onuradunen zerrendetan sartzeko.

Hortaz, eta bilatutako helburuaren barruan, gerta daiteke datuak helburu horretarako ezagutuko duten beste sail batzuk egotea. Baina ez dugu ahaztu behar helburu horretarako erabilgarriak diren biktimaren datu pertsonalak besterik ez dutela ezagutu beharko.

Adibidez, etxebizitzari buruzko eskumena duen sailak ezingo ditu ikusi lesioen parteak edo historia klinikoa hura gizarte gaietarako sailaren eskuetan badaude, bere eskumenerako ez duelako horren beharrik.

Ingurune horretan kokatu behar dugu gure erantzuna.

Bestalde, esan behar da udalak ideia horrekin bilduko duela informazioa beti, eta biktimaren baimenez beti.

Udal eremuan biktimari dagokion informazioa guztiz partekatu behar dela pentsatuko baltz, eta partekatze hori arrazoitu ahal baltz, gomendagarria da beti emakume biktimak hura jakitea eta hari baimena eskatzea.

Ez da ahaztu behar, bestalde, udalaren jardun oro arau juridiko batean ezarritako eskumenen erabileraren arabera dela. Gizarte-zerbitzuei buruzko eskumena duen sailak hala egingo du, eta eskumen horien erabileraren barruan, legea bete behar du.

Beraz, eta egindako galderari erantzuteko, datuak udal-zerbitzuen artean laga ahal izateari dagokionez, erantzunak ezezkoa izan behar du, helburua indarkeriaren baten arretari lotutako udal-eskumenen erabilera izan ezean.

Galdetutako kasuan, datuak gizarte-zerbitzuen, udaltzaingoaren eta berdintasun sailaren artean laga daitezkeen, erantzuna arestian azaldutakoak emango du.

Halaber, ez du irtenbide bera izango datuak adierazitako zerbitzu batzuek edo besteek bildu badituzte.

Egindako galderan, eta eskema bitarrari (batek beste bati) jarraituz, sei lagapen egon daitezke informazioaren lagatzailea (ematen duena) eta lagapen-hartzailea (jasotzen duena) nor den.

Galderaren planteamenduaren arabera, lagatzeko aukerak honakoak dira:

- Gizarte-zerbitzuek bildu eta berdintasuneko eskumena duen sailari bidalitako datuak:
- Gizarte-zerbitzuek bildu eta udaltzaingoari bidalitako datuak.
- Udaltzaingoak bildu eta gizarte-zerbitzu sailari igorritako datuak:
- Udaltzaingoak bildu eta berdintasun sailari igorritako datuak.
- Berdintasun sailak bildu eta udaltzaingoari bidalitako datuak.
- Berdintasun sailak bildu eta gizarte-zerbitzuei bidalitako datuak.

Aipatutako bakoitza datu pertsonalen lagapen posible bezala aztertu behar da.

Printzipioz eta orokorrean, erantzun behar da udaltzaingoari lagatako informazioa, delituzko egitate baten ikerketaren esparruan edo beste polizia batzuekin xede horrekin izandako elkarlanean, edo delitua prebenitzeko egiten bada, Prozedura Kriminalaren Legearen eta Zigor Kodearen babespean dago.

Aurreikusitako gainerako lagapenek, gizarte-zerbitzuen udal-zerbitzuen barruan edo biktimari helburu berberarekin emandako arretan laguntzeko helburuarekin egiten badira, ez da karte arazorik, eta egin litezke.

A priori arazo gehiago dakartza udaltzaingoak polizia-ikerketen esparruan dauzkan datuak lagatzeak. Datu horiek, polizia-ikerketaren esparruan bilduta eta tratatuta, ezingo zaizkio laga udal gizarte-zerbitzuei, helburu horrekin bildu eta tratatzen ari baitira. Datu horiek, printzipioz eta oro har hartuta, ezingo zaizkio gizarte-zerbitzuei edo berdintasun sailari laga.

17. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Batzuetan, indarkeria jasan eta epaitegiak arreta emandako emakumeak Donostian dagoen BLZra (Biktimei Laguntzeko Zerbitzua) bideratzen dira, Gipuzkoaren kasuan, eta hiri horretara joan behar dute, beraz. Geroago, BLZn lagundu ondoren egoera batzuetan emakumeek baliabide jakin batzuen laguntza edo kudeaketa behar dute. ...(prestazio ekonomikoak, laguntza psikologikoa..) eta emakumeek udal-zerbitzu horietara joan behar dute. Batzuetan horrek nahas-menduak eta denbora galtzea dakartzate baliabideen kudeaketan.

Illo beretik, atzeman dugunez, epaitegiak batzuetan ez dute biktima orientatzen udal gizarte-zerbitzuetara hurbildu ahal izan dadin, bere premia-egoera azaltzera. Batez ere babes-agindua dagoen kasuetan komenigarria litzateke hori (batzuetan emakume biktimak euren erabakiz jotzen dute gizarte-zerbitzuetara, baina indarkeria-egoera gertatu zenetik denbora dezente igaro denean).

Eusko Jaurlaritzak emakume biktimentzat ematen dituen prestazio ekonomikoei dagokienez, batzuetan hasiera batean eskabidearekin batera erantsi beharreko agiri zerrendan ez dauden agiriak eskatzen dira. Lagungarria litzateke aldeztu aurretik beste agiri batzuk zer egoera edo inguruabarretan eman behar diren argitzea eta jakitea.

Azken laguntza horien kudeaketan, batzuetan udalari dokumentazioa emateko eskatzen zaio espedienteak ebatzi ahal izateko eta, beraz, gizarte-langileak interesduna kontaktatu behar du eskatzen den dokumentazioaren berri emateko eta batzuetan profesionalak zailtasunak dauzka haren zalantzei erantzuteko. Gure ustez komenigarriagoa, azkarragoa eta eraginkorragoa da agiriak interesdunari zuzenean eskatzea.

Datuen babesean sortzen den arazo handia, hain zuzen ere, indarkeria jasan duten emakumeen babesaren eremuan esku hartzen duten erakunde asko egotea da.

Datu pertsonalen babesetik esan behar da, orokorrean, biktimei laguntzeko prozesuan esku hartzen duen bakoitzaren informazio-bilketa kalitate-printzipioak gidatu behar duela, hots, laguntzaren helburura mugatuz. Hala, epaitegiak delitua jazartzeko helbururako behar diren datuak baino ezingo ditu eskatu, eta udalak edo biktimari laguntzeko zerbitzuak, euren eginkizunei lotutako datuak besterik ez.

Datuak hirugarren pertsona fisikoei edo juridikoei lagatzeari edo jakinarazteari dagokionez, ezin da laguntza-prozesuan esku hartzen dutenen artean datu pertsonalik trukatu biktimaren baimenik gabe, bera baita datuen jabea, edo lege-mailako arau batek berariaz gaitu gabe, delituzko egitateak poliziari edo epaitegiari jakinarazi beharrarekin gertatzen denez, oinarria delituaren ikerketan baitatza. Ohartarazi behar da lege-mailako arau bat ez dela erakundeen arteko lankidetzaren edo koordinazio-hitzarmen bat.

Beraz, udal-zerbitzuen zein Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzea, informazio-trukea aurreikusi bada, egun eta printzipioz, indarkeria jasan duen emakumearen baimen horrekin baino ezin da egin.

Ez dago arazorik batzuek edo besteek emakumeari beste zerbitzu batera jotzea aholkatzeko, haien artean agiri edo datu pertsonalak lagatzen ez diren bitartean.

Eusko jaurlaritzak agiriak udalari ala biktimari eskatu beharrari dagokionez, zuek dokumentazio hori bidaltzeko baimena biktimak ematea da garrantzitsua. Alegia, datuen babesetik ez du axola zuek bidaltzeak edo zuzenean biktimari eskatzeak, kasu guztietan haren baimena edukiz gero.

18. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Neska bat kontaktuan jarri da Emakunderekin eta e-mail bat idatzi digu gobernuak indarkeria jasandako biktimei emandako zerbitzuetako batean izandako arretaz kexatzeko. Emakundek, zeinek II. akordioa koordinatzen duen, kexa dagokion erakundeari helaraziko diola esanez erantzun dio. Datuak lagatzeko baimena jaso behar dugu ala kexa jasotzeak helarazteko aukera dakarrela/baimentzen duela ulertuko dugu?

Lehenik, zer kexa mota den jakin behar litzateke, ez baita gauza bera izandako tratuagatik edo arretagatik atsekabea adieraztea eta laguntza edo zerbitzu bat ez ematearekin desadostasuna adieraztea.

Lehenengo kasuan, kexa helarazteko ez dira pertsonaren datu pertsonalak ezagutu behar. Are gehiago kexa adierazi duena indarkeria jasan duen emakume bat bada. Nahikoa litzateke datuak bereiztea; alegia, nortasunari, helbideari eta abarri buruzko datuak ezabatzea. Era ho-

rretan, emaitza erreklamaziogileari jakinarazi behar zaiola uste bada, Emakundek pertsona horren datu guztiak dauzka harekin komunikatu eta kexaren emaitza helarazteko.

Erakundeak kexa bideratu besterik egiten ez badu, bidaltzailearen informaziorik, ez posta elektronikoa, ez haren edukia, gorde gabe, unean uneko jardun bat baino ez da gertatu eta ez gaude lagapen baten aurrean. Egoera hori jarraian adierazitakoaren desberdina da.

Bigarren egoeran, zerbitzuak pertsona horren nortasun-datu guztiak edukiko ditu. Zuhertasun handiagoz jokatzeko, ordea, komenigarria litzateke eskatzailearen baimena lortzea kexa Jaurlaritzan eskumena duen sailari bidaltzeko. Horrela, komenigarria litzateke kexa-inprimaketan kasu horietarako baimena jasotzea aurreikusita egotea. Informazioaren segurtasunaren eta datu pertsonalen babesaren ikuspegi orokorraren beharrean jartzen gaitu horrek berriez.

4. DATU PERTSONALEN SEGURTASUNA

19. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Nork eskura dezake genero-indarkeria jasan duten emakumeen kasuei buruzko informazioa, protokoloaren barruan dauden pertsona guztiek edo beste norbaitek ere eskura ditzake.

Biktima baten datuak biltzen direnean, bilketa hori helburu jakin eta bakar batekin egiten da. Kasu horretan, biktima gizarte-eremu guztietan sorotsi eta laguntzea.

Datu-bilketa hori bere datuei eta administrazioak ematen duen informazioari emango zaien erabilera biktimari jakinaraziz egin behar da.

Berak ezagutu eta baimendu gabe informazio hori ezin da beste helburu batzuetarako erabili, zein ere diren helburu horiek. Baimen hori izan gabe, biktimak administrazioari eman dizkion datuak beste pertsona edo administrazio batzuei lagatzeko zabaltzen den lehen posibilitatea lagapen hori aurreikusi duen lege-mailako arau bat egotea da. Hala gertatzen da datuak poliziari lagatzeko kasuan. DBLOko 22. 2 eta 3 artikuluetan dago aurreikusita; zehazki, datu pertsonalak biltzea eta poliziari jakinaraztea aurreikusi du, are titularraren baimenik gabe, bilketaren xedea arrisku bat prebenitzea edo arau-hauste penalak erreprimitzea denean. Bigarren posibilitatea arlo berari buruzko eskumena duten administrazioako erakundeen edo entitateen artean lagatzea da, DBLOko 21. artikulua jaso duenez.

Udal eremuko protokoloak egoteak ez du gaitzen haietan parte hartzen dutenen artean datuak lagatzeko. Alegia, ez da nahikoa protokolo bat egotea lagapenerako lege-babesa egon da-

din. Edonola ere, baimenik gabe edo lege-mailako arau baten babesik gabe datuak ezin dira laga.

Protokoloen erabilgarritasuna lankidetzak eta laguntza-mekanismoak definitzean datza, baina biktimak berak zehaztu eta baimendu behar du nori lagako zaizkion datu horiek.

Beraz, lehenago haren baimena bildu behar zenuke lagapena egiteko, eta gainera baimenak lagapen zehatzetarako izan behar du, eta ez orokorretarako, datu horiek nori lagako zaizkion argi definituz biktimak batere zalantzarik gabe jakin dezan.

20. FAQ

EGINDAKO GALDERA: Erakunde batek indarkeria jasaten ari den emakume baten datu pertsonalak era egokian bildu ditu eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek emakumeari laguntza ematea oso lagungarria izan daitekeela uste du. Horretarako baimena eskatu dio emakumeari eta onartu egin du berak. Erakundeak, ordea, badaki udal horretako gizarte-zerbitzuek ez dituztela ondo betetzen informazio horrek merezi duen goi-mailako babes-neurriak. Norena litzateke erantzukizuna erakundeak azkean gizarte-zerbitzuei datuak lagako balizkie?, laga behar litzuzke?

Datu pertsonalak lagako dizkion oinarrizko zerbitzuek segurtasun-neurri egokirik ez daukatela badaki, ez litzuzke datu horiek laga behar.

Erakunde edo zerbitzu batzuen edo besteen erantzukizunak saihesteko jarduteko protokoloetan DBLOko goi-mailako segurtasun-neurriak protokolo horretan parte hartzen duten organo eta erakunde guztiek betetzea aurreikusi behar da.

3. ERANSKINA: DATUAK LAGATZEA ADINGABEEN ARRETAN EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA-EGOEREN AURREAN

1. ADINGABEAK BABESTEKO ARAUDIA

Gida hau egiteko kariaz pentsatu da adingabearen interesaren nagusitasunak Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoko 11. artikuluko administrazio-jardunaren printzipio gidaria izan behar duela. (1996ko urtarilaren 17ko BOE).

Adierazi denez, gure autonomia-erkidegoan, zehazki, honakoa dago araututa: "Herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, haur eta nerabeei babes soziala eta juridikoa eskainiko diete, honako printzipio hauei jarraituz: a) Jarduketa guztietan, haur eta nerabeen interes gorenak eta haien eskubideen babesak eta eskubide horien garapenaren bermeak beste edozein interes bidezkoren gainetik duten lehentasuna errespetatuko da (...)" (Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeko 48. artikulua. 2005eko martxoaren 30eko EHAA).

Halaber, "agintariek eta zerbitzu publikoek edozein adingabek behar duen berehalako laguntza eman behar dute, euren eskumen-eremuko bada jardun behar dute, edo bestela eskumena duen organoari helarazi behar diote eta egitateak adingabearen legeko ordezkariak jakinarazi behar dizkiete, edo beharrezkoa denean, Fiskaltzari." (1/1996 Lege Organikoko 14. artikulua). Bestalde, "hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei edo, beharrezkoa bada, fiskaltzari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete haurrenganako tratatu txarrak, haurren babesgabetasuna edo horien arrisku-egoera ekar dezaketen egitateak, eta halaber adierazi beharko dizkiete horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko, baina betiere adingabeen lehentasunezko interesak edukiko dira kontuan". (Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeko 25.2. artikulua. 2005eko martxoaren 30eko EHAA).

Zehazkiago, gizarte-zerbitzuek adingabe baten babesgabetzia-egoeran jarraitutako ohiko prozedurak honakoa xedatu du: "Adingabeak babesteko eskumena duen herri-administrazioak jakiten duenean haur edo nerabe bat babesgabetzia-egoeran egon daitekeela, espediente bat hasi beharko du, eta espediente hori honako jarraibidearen arabera tramitatuko da: a) Adingabearen familia-egoera zein egoera soziala ezagutzeko eta baloratzeko garrantzizko datuak eman ditzaketen pertsona nahiz erakunde guztiei informazioa eskatuko diete, batez ere oinarrizko gizarte-zerbitzuei. Beharrezkoa iritziz gero, eskolako tutoreari eta familiako medikuari

edota pediarrari eskatuko zaio informazioa, edo osasunaren zein gizartearen nahiz hezkuntza-ren arloetako beste zerbitzuetako profesionalen bati; profesional horiek idatziz igorri beharko dituzte eskura dituzten informazioak eta datuak, esku-hartzearen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko behar direnak, eta behar adina igorri ere. Arrisku-egoera bat edo babesgabezia-egoera bat antzemateko eta baloratzeko eginkizunean laguntzen duten erakunde eta profesio-nalei egoera horren bilakaeraren berri ematea, isilpekotasun-betebeharrak eskatutako muga barruan, eta, betiere, berri ematea bidegabea ez bada (...). (3/2005 Legeko 58.1. art.)

2. ADINGABEEN BABESERAKO ARAUDIAREN INTERPRETAZIOA DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOARI LOTUTA

Planteamendu juridiko hori ezarrita, ondoriozta dezakegu arestian aipatu xedapen arau-emaileek datu zehatzak lagatzeko behar adina gaitzen dutela?

Oro har, berriz esan behar da lagapenen arau orokorra baimena dela, eta hura izan dela, eta izan behar duela, gaiari buruzko gomendiorik garrantzitsuena. Hain zuzen ere, biktimaren edo datuak tratatuko diren hirugarrenen baimena jasotzea da gure gogoeten giltzarria. Adierazi dugunez, ordea, gerta daiteke datuen lagapenak legez gaituta egotea, hots, lagapena gaitzen duen lege-mailako arau bat egotea. Arau horrek berariazkoa izan behar du, eta ez oro-korra, eta haren idazketa aztertu behar da egiatan titulu nahikoa den erabaki ahal izateko.

Egoera jakin honetan lagatzeko legezko gaitzerik dagoen aztertuz, honako gogoetak egin behar dira:

Lehenengoa: Lehenik eta behin badago "administrazio-jardunaren printzipio gidari bat (Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoko 11. art. 1996ko urtarilaren 17ko BOE)." Gure autonomia-erkidegoan, zehazkiago, honakoa dago arau-tuta: "Herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, haur eta nerabeei babes soziala eta juridikoa eskainiko diete, honako printzipio hauei jarraituz: a) Jarduketa guztietan, haur eta ne-rabeen interes gorenak eta haien eskubideen babesak eta eskubide horien garapenaren ber-meak beste edozein interes bidezkoren gainetik duten lehentasuna errespetatuko da (...)" (Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeko 48. artikulua. 2005eko martxoaren 30eko EHAA).

Araudiko xedapena honaino aztertuz, adingabearen interes gorena funtsezko printzipio gisa balioesten duen printzipio gidari bat dago.

Administrazio-jardunerako printzipio orokor bat baino ez da, ordea, eta ez dago zuzenean lotuta administrazioari adingabeen datuak lagatzeko baimena emateari haurren gizarte-babe-serako jardun hori behar duen egoera bat aurkitzen den kasu guztietan. Eskubideen arteko ga-

tazka baten aurrean gaude; izan ere, eskubide konstituzional bat garatu duen datuak babesteko lege organikoak ez du horri buruzko aurreikuspenik egin.

Bigarrena: Jarraian, Adingabearen Babes Juridikoaren 1/1996 Lege Organikoko 14. artikulua aipatu da; haren arabera, "Agintariak eta zerbitzu publikoak edozein adingabek behar duen berehalako laguntza eman behar dute, euren eskumen-eremukoa bada jardun behar dute, edo bestela eskumena duen organoari helarazi behar diote eta egitateak adingabearen legezko ordezkariari jakinarazi behar dizkiete, edo beharrezkoa denean, Fiskaltzari".

Berriz ere, egoera horiek jakinarazteko, berehalako laguntza emateko, eta abarretarako betebeharrari buruzko xedapen bat dago. Adingabearen Babes Juridikoaren 1/1996 Lege Organikoko 14. artikulua, ordea, lau betebeharrak edo egoera jasotzen ditu:

- 1) Agintariak edozein adingabek behar duen laguntza eman behar dutela berehala; ez du ezer argirik xedatu lagapenari begira, aitzitik, administrazio bakoitzarentzat esku hartu beharra ezarri du.
- 2) Bere eskumen-eremuari badagokio jardun beharrak ere ez duela batere erlaziorik lagapenekin; aitzitik, gehiago da administrazio-jardunari jarritako muga bat, haren eskumenetatik kanpoko jardunak saihesteko.
- 3) Organo eskudunari helaraztea, egitateak ezagutu eta jarduteko eskumenik ez badago, organo eskudunari helarazi beharra xedatu du. Kasu horretan, gaitzea suma genezake.

Hain zuzen ere, egoera horretan esku-hartzea behar lukeen adingabe bat dagoela atzematen du organo batek, baina ezin da jardun eskumenik ez duelako; kasu horretan, haurrei edo adingabeen arretari buruzko eskumena duen organoari helarazi behar litzaioke.

Alegia, gizarte-laguntzan diharduen erakunde batek adingabe batekin berehala jardutea eskatzen duen egoera bat atzeman du eta ez du horretarako eskumenik egoera horietan arretak duen espezifikotasunagatik. Kasu horretan, egoeraren berri izan duen gizarte-zerbitzuetako erakundeak edo entitateak datuak jakinarazi behar dizkio haurren laguntzari buruzko eskumena duen erakundeari edo entitateari.

Xehetasunez aztertuta, ordea, aurreikuspen horrek bi muga dauzkala ikusi dugu: lehenik, adingabeak BEREHALAKO laguntza behar duen egoeren kasuan baino ezingo du jardun, presari argi eta garbi lotuta; eta bigarrenik, adingabearen laguntzari buruzko eskumenak dauzkan zerbitzu bati baino ezin zaio jakinarazi.

- 4) 1/96 Lege Organikoko 14. artikuluko laugarren aurreikuspena informazio hori adingabearen legezko ordezkariak esku hartu behar izateagatik lagatzea da ("egitateak jakinarazi"); horrek, gurasoei edo legezko tutoreei jakinarazteko baino ez luke gaituko, eta "beharrezkoa denean" delako muga jarrita, Fiskaltzari. Fiskaltzari jakinarazteko kasuak legean daude

araututa (Kode Zibila, Zigor Kodea, eta prozesuei buruzko legeriak), eta funtsean Fiskaltzak eremu judizialean jarduteari daude lotuta, adingabearen interesaren defentsan prozesu-tresnak erabiliz. Lagapen horiek ere ez dakarte arazorik, administrazioak berak eskatuta jardungo baitu Fiskaltzak gehienetan, berezik zigor-eremuari lotutako kasuetan.

Hirugarrena: Lagapenak hezkuntza-zentroetatik egiteari dagokionez, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeko 25.2 artikulua (2005eko martxoaren 30eko EHAA) honakoa dio: "Hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei edo, beharrezkoa bada, Fiskaltzari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete haurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo horien arrisku-egoera ekar dezaketen egitateak, eta halaber adierazi beharko dizkiete horrelakoe-tan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko, baina betiere adingabeen lehentasunezko interesak edukiko dira kontuan".

Hain zuzen ere, hezitzaileek eta hezkuntza-zentroetako arduradunek gizarte-laguntzaren premia dakarten egoerak edo egitateak jakinarazteko eskumena dute. Aipatu artikuluan, ordea, ez da datuen lagapen orokorrerako gaitzen; aitzitik, esku-hartzea eskatzen duen egoera bat gertatzen ari dela jakinarazteko gaitzen du. Horrek ez du gaitzen hezkuntza-zentroak bere hezkuntza-eskumenak erabiltzean bildutako beste edozein motatako daturik lagatzeko.

Hala, gizarte-laguntzarako beharrezkoa den txostenen prestaketa edo informazioaren komunikazioa era mugatuan eta murriztailean ulertu behar da beti eta, kasuan kasu, eta esku hartzen duten administrazioek eskatuta, guztiz beharrezkoa den informazioa baino ez da laga behar.

Gure aburuz, esaterako, ikastetxearen barneko txostenak, espediente akademikoa edo beste kontu batzuk eskuratzea eskatzen duen gizarte esku-hartze bat adingabearen (+14 urte) edo haren gurasoen edo tutoreen (-14 urte) baimenez baino ezin da egin, artikulua horretan lagapena ez baitago gaituta.

Laugarrena: Azkenik, 3/2005 Legeko 58.1 artikulua aipatu da; xedapen arauemaile hori babesgabezia-egoeretara dago zuzenduta eta mugatuta, eta ez adingabea babesteko esku-hartze orotara.

Babesgabezia legean bertan definitu da, 56. artikulua, honela: "(...) adingabeen zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez betetzeagatik edo eginbehar horien egikaritzea ezinezko nahiz desegoki izateagatik, adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala."

Alegia, babesgabezia-egoera larriengatik, herri-administrazioak adingabeen tutoretza bere egitea eskatzen duten gizarte esku-hartzeko egoerak.

Adingabe bat egon daitekeen egoeren zehaztapena BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duen azaroaren 8ko 230/2011 Dekretuan arautu dira. Beraz, hasieratik esan behar dugu gizarte esku-hartze mota oso zehatza eta larriena dela, gurasoei adingabeen zaintza eta jagoletza kentzen dielako.

Oinarriak ezarrita, azter dezagun Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babesteko 3/2005 Legeko 58.1 artikuluan xedatutakoa:

"Adingabeak babesteko eskumena duen herri-administrazioak jakiten duenean haur edo nerabe bat babesgabezia-egoeran egon daitekeela, espediente bat hasi beharko du, eta espediente hori honako jarraibidearen arabera tramitatuko da: a) Adingabearen familia-egoera zein egoera soziala ezagutzeko eta baloratzeko garrantzizko datuak eman ditzaketen pertsona nahiz erakunde guztiei informazioa eskatuko diete, batez ere oinarrizko gizarte-zerbitzuei. Beharrezkoa iritiz gero, eskolako tutoreari eta familiako medikuari edota pediatriari eskatuko zaio informazioa, edo osasunaren zein gizartearen nahiz hezkuntzaren arloetako beste zerbitzuetako profesionalen bati; profesional horiek idatziz igorri beharko dituzte eskura dituzten informazioak eta datuak, esku-hartzearen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko behar direnak, eta behar adina igorri ere. Arrisku-egoera bat edo babesgabezia-egoera bat antzemateko eta baloratzeko eginkizunean laguntzen duten erakunde eta profesionalei egoera horren bilakaeraren berri ematea, isilpekotasun-betebeharrak eskatutako mugen barruan, eta, betiere, berri ematea bidegabekoa ez bada (...)"

Hortaz, Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babesteko 3/2005 Legeko 58.1 artikuluko a) idatz-zatiak informazioa eskatzeko gaitzen du: lehenik, "garrantzizko datuak eman ditzaketen pertsona nahiz erakunde guztiei" eta, bigarrenik, helburu batekin beti, familia-egoera zein egoera soziala ezagutzea eta baloratzea. Kasu honetan, indarkeria-gertaera edo -egoera bati lotutako babesgabezia-egoera bat gartetzen dela ulertuta, gure ustez administrazio eskudunak txosten horiek eskatu ahalko ditu. Baina ez da eskatu beharko espediente osoa lagatzeko, familia-egoera eta egoera soziala baloratzeko guztiz beharrezkoa dena baizik, eta horretarako ad hoc txosten bat eginez.

Beharrezkotzat jotzen bada bakarrik, txostenak eskatu ahalko zaizkie tutoreari, familia-medikuari edo pediatriari.

Garrantzitsua da kasu honetan azpimarratzea informazioa idatziz helarazi beharra dagoela, baina halaber garrantzitsua da informazio hori helarazteko dagoen auto-mugaketa bera; izan ere, "esku-hartzearen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko" "behar diren, eta behar adinako" informazioak aipatzen dira. Ez da aipatzen nork baloratu behar duen helburu hori eta auto-mugaketa hori betetzen dela, baina gure aburuz alderdi biak izango dira, bai lagatzailea bai lagapen-hartzailea.

3. LABURPENA: ADINGABEAK ETA DATUEN BABESA

Ondorio gisa, arestian aipatu araudia aztertuta, honako gogoetak ezarri ahal ditzakegu:

1. Administrazio-jardunean adingabearen aldeko printzipio gidari bat egotea ez da, gure aburuz, adingabeei buruzko datuak herri-administrazioen artean lagatzeko gaitzen duen legezko titulua.
2. Haurrak eta Nerabeak zaindu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeko 25.2 artikulua-ren idazketak herri-administrazioen arteko lagapenak besterik ez ditu gaitzen, bi muga jarrita: lehenik, adingabeak BEREHALAKO laguntza behar duen egoeren kasuetan baino ezingo da jardun, presari argi eta garbi lotuta; eta bigarrenik, gizarte-arretaren eskumena duen zerbitzu batek berdin-berdina den beste bati jakinarazi ahalko di, bigarrena bada eskumenagatik esku hartu behar duena. Halaber, Fiskaltzari lagatzea aurreikusi du. Lagapen horiek haren eskumenak ezarri dituzten arauetan daude erregulatuta, eta funtsean burututako delituzko egitate bat jazartzea bilatzen dute.
3. Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeko 25.2 artikulua ez du gaitzen hezkuntza-zentroek beste herri-administrazioei datuak lagatzeko, hezkuntzako langileek ikusi edo ezagututako egitateak edo inguruabarrak ezagutarazteko baizik eta, beraz, araudiko betebeharrak orokorren barruan.
4. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeko 58.1 artikuluko aurreikuspena babesgabetasuneko egoeran dauden adingabeen datuak lagatzeko gaitzen duen lege-titulua da, honako mugak dituena: lehenik, babesgabetasuneko kasuei baino ez dagokie eta administrazioak egoera hori ezagutzen den uneaz geroztik; bigarrenik, ez du gaitzen espediente osoak lagatzeko, kasu zehatzetan eta soilik ezinbestekoa den heinean beste herri-administrazio batzuen esku dauden datuak edo informazioak jaso ditzaketen txostenak prestatzeko baizik; hirugarrenik, uneoro hartu behar da kontuan kalitate-printzipioaren aplikazioa, 58.1 artikuluan bertan berariaz jasota; haren arabera, nahi den xederako behar-beharrezkoak diren datuak baino ezingo dira laga eta, beraz, arloan eskumena duten organoei.